¡DONOSTIA!

I

Azkeneko geŕatea bukatu zan. Txomin donostiaŕa Ernani-ko aldapan gora zaldi-gañean zetoŕen. An, atzean, gelditu zan Ernani ta Ernani-ko espetxea, Txomin ain luzaroan egondakoa. Pakearekin askatatasuna eman zioten ta Txomin ta zaldia alkaŕekin ixilik zetozen. Zaldiak eup egin zuan; nekez ba-zan ere, aldapa gaitza menderatu zuan. Zaldunak eta zaldiak atseden artu zuten.

Gaña azpiratu zutenean goizeko amaŕak-aldea izango zan. Eguzkia goi-xamar zegoan. Goizeko intza ezereztu zan; baño gerizpeak oraindik busti-antzekoak zeuden. Eguzkia itzalari ondotik zijoakion ta aŕapatzen zion puska, beltza zana zuria biurtu. Bideko usai gozoak liluratuta zeukan gaztea. ¡Aspaldian ez zuan oŕelakorik aitu! «Nagoan, nagoan», zion. Espetxeko itzalean oituta eguzkia biziegia zitzaion. Txomin-ek Gipuzko-ko zati eder ura ondo ikusi nai, ginbala kendu, zapi zuriarekin kopeta legortu ta... exeri zaldi gañean. Zaldiak, bide ertzean, kosk egiten zion belaŕari. Zaldiek lepoa luzatzen dutenean, lengoa alako bi dutela ba'dirudite.

Amairu ilabete egin zituan Ernani-ko espetxean ta etxera zetoŕela, etxekoek ez jakiñagatik, ez zuan nai azkartu ibil-neuŕia. Bide artatik beretik ekaŕi zuten aita karlista zualako beste ziorik gabe. Txomin Haspaŕen-en zan geŕatean. Etxeratu naiean Sokoan San-

tander-eraño zijoan eŕota-ontzian sartu ta Donosti-ratu zan. Doi-doi aita gazteluan giltzapetuta zegoala jakiteko beste betarik ez zuan izan: aita gaztelura, semea Ernani-ra.

¡A zein ikuste edeŕa goi artatik! Bulaŕa ta biotza zabaldu zitzaizkion. Eusko-mendi galantak dantza ikaŕagaŕia zebilkiten: ortzia jo ta makurtu, alkaŕekin topo ta altxatzen ziran: batzuk zuzen, besteak okerka, uŕenak atzekoz auŕera. Atzenean ikusmena tinkotu ta bat-batean gelditu ziran guztiak: erpiñena Mendizoŕotz zan, lasaiena Aŕatzain, bakaŕena Buruntza...

Zaldiaren atze-auŕerakak loarazi zezaiotekean. Orain ba'zekuszkian mendi-betik goraño alkaŕen atzetik zugatzak laisterka; beste tokietan, alkaŕen ondoan geldik, batzaŕa zuten. Ikusmena geiago garbitu zitzaionean, zugatz batzuk mendian gora bide erdian gelditu zitzaizkion oker-oker eginda ta beste batzuk, bakarka, bidea galduta bezela, atzean. Orduan ederki oartzen zituan belar eta lurgoŕiak, sasi ta oteak, baita ere ikotika batez eguzkitatik itzalera abiatzen zan beko eŕeka jostalaria, bide-ondotik atzera zijoazkion lili zuri, goŕi, margo askotakoak. Tarteka-tarteka, arnase sendo batez, Txomin-ek osasungaŕizko aizeaz bete-bete egiten zuan bulaŕa... Daka-daka, Txomin etxe-aldera...

Bide zabal artan eguzkiak gero ta geiago jotzen zuan. Zaldiagana zetozen euliak arpegi-ondotik zebilzkion Txomin-eri. Oriamendi eskubide-aldean ikusita gure Eŕi gaxoaren edesti ituna gogoratu zitzaion. Euskaleŕiak egiñalak eta indarkak eŕuz egin izan ditu zearo zertarako jakin gabe; kemenak oparo eman izan ditu, beaŕezkoak izan eta gañezkakoak ba-litzaizkio bezela; luŕa goŕitu ta giza-ezur zuriek diz-diz

egiten zuten mendietan zilaŕaren antzera, naste ikaragaŕian. Mendi onetan bertan euskaldun - karlistak ebain-ebain egin zituzten ingeles eta portuges soldaru zaŕak. Mendian beera, elurtaren gisara, gudari-talderik artu zezakean juliparik gogoŕena, mingaŕiena, artu zuten. Orduan ez ziran izan euskaldunak metak eginda pilaka eŕe zituzten laŕu-zuriak, ez aien ezuŕak. Oriamendi da eusko adoreari eraiki zezaiokean oroigalurik edeŕenetakoa. Onelako mendiak ba'dira geiago Euskaleŕian.

Azkeneko geŕatea bukatu-beŕia zan. Oraindik ere sutauts-usaia nabari ez ote zan. «Benta Zikin»-dik eta Mendizoŕotz-tik danbagiñen kea ikusten zala esan zitekean. Gudarien oñatzak oraindik ezeztugabeak zeuden; sasietako adaŕak orduantxen ari ziran banaka zutitzen. Txomin gogoeta ilun auekin zegoala, zaldia belaŕez aldatzeagatik, jabearen gogoa egiteagatik baño, ba'zebilen tarteka ta bestetan belaŕa jan.

Geroxeago «Munlo» baseŕi-ondotik zijoazen, Ayete-n baŕena. «Pintore» an azaldu zan, 1813gaŕen urtean ainbat izkilo-su egiña, aŕiak agiñak kendu ba-lizaizkio bezela.

Amabiak ez ziran uŕuti. Baseŕitar merkatariak ba'zetozen Donosti-ko merketzatik etxe-aldera. Aien oju ta beŕiketa biziak zerbaitxo ernaitu zuten Txomin, Donosti-aldean zegoala jakiteak ere bai. Pilaka zetozen merkatari kaŕaxizaleak, asto-gañean edo bestela aldamenean. Zortzina ta amarnako asto - taldeetan igarotzen ziran, asto-zaiak beste ainbeste. Txomin-eri aŕitu-itxuran begiratzen zioten. Ura ondotik igarota burua biurtzen zioten zaldunari. Esan bear deguna da merkatariak amaiketakoa eginda etoŕi oi zirala; beraz, pozik eta auzoko kontuak esateko gaituak. Ordea, astoak, Txomin-en zaldiaren gisa, lokatzak utzi ta

bide-baxtaŕetik poliki asko zetozen anka-azpian artzen zutena ondaturik.

Baño

Ariin, ariin, alaatu nintzen Donostin.

Ernani-tik Donosti-rañoko bidea lenbizi igo egiten da Ernani-tik gora, gero mendi-gañetik joan ta, Donostia aldean daukanean, Aldapeta-tik beera jetxi.

Txomin donostiaŕa Aldapeta-n beera asi zan. Zaldia zankoak auŕera ta burua atzera zijoan. Lazkano--baseŕiaren ondotik ba'zijoazen. Ta andik pixka batera Txomin-ek zutitzea egin zion geŕiari ta eŕia auŕean ikusi : ¡Donostia!

Txomin-en biotza pil-pil asi zan. Gorputzari ikara eman zion ta eskua burura zeramala zaldia berez gelditu zan. Txomin egiazko donostiaŕa izan ta jaioteŕia ikustean baŕen guztia muñetaraño alaitu zitzaion, biotza lasaitu ta zoriona gañezka zetorkion. Norbait ezkutatu edo galdutakoan jakin izan degu zenbat maite genuan.

Aboa biotz-arazoen aterabidea da. Tankera artan, buru-utsik, Txomin eŕiari iñon diran xamurkeriak esaten asi zitzaion : «Kantauri-ko pitxia, Hirurzun zaaŕa, Easo edeŕa, Irutxulo maitagaŕia, Urumea-ko eŕegiña, ene biotzeko kutuna, sorgin-marama, ezti--tantoa, lili txuria, izar dizdizaria, amets-ituŕi gozoa, uŕezko pinpilinpauxa, poxpolin jostalaria...» Txomin gizajoak begiak busti-busti zeuzkan.

Irakurleak ere ikusi beza Txomin-ek ikusi zuana. Asibidez Donostia lekoretik ikus dezagun, gero baŕenen arituko gatzaio-ta : irakurgai onen bukaeraño ori izango degu geren bizitokia.

Donostia-n iru tontor daude : Txubilo - mendia, Santa Klara-ugartea (orduan doi-doi ugartea) ta Gaz-

telu-mendia; iruron artean itxasbaŕena dago, uŕezko ondaŕa ertzean. Donostia Gaztelumendiaren atzean dago.

Egun artan udazkena aldean zegoan. Txubīlo-ko argi-etxe zaŕak Donosti-ondoko tontor erpiñenatzat erakusten zuan bere burua. Ondaŕeko kaxeta zuriak diz-diz egiten zuten eguzkitan. Itxasoa beera ta gora, kaxetak atzetik eta auŕetik jostatzen ari ziran poxpoliñak ziruditen; edo mutīlak oñetakoak bustitzen ematen zuten. Donosti-ureta, diru-meta.

Gaztelumendiaren atzean, esan degunez, eŕia. Baño eŕi-kaskoa uŕuti xamar bukatzen zan. Andik Aldapeta-rako zelai zabala zegoan ta Aldapeta-ren oñean San Martin-etxadia. Beraz, eŕia an ta San Martin emen. Oŕa, zakur bat burua ta isatsa ezik lurpean sartuta bezela, burua eŕia litzake ta isatsa, San Martin-etxadia.

Eŕiak guda gogoŕak izandako itxura zeukan. Gaztelumendia aŕesiaz inguratua zegoan, gañean gaztelu zar aundia. Donostia-n ingeles, prantzes ta portuges gudariak askotxo ibīli da guda gogoŕetan. Ta oso gutxi zala karlistak Mendizoŕotz-tik bidalitako aleak itxasbaŕen-gañetik aizea txistuka uŕatu ta tarteka lertzen ziran. Atzokoa zan kanpaiak jo ta donostiaŕen kaleetan baztaŕeratzea. Eŕi-inguruko aŕesi aundia, orduan urte gutxi zala txirtxildu zuten: eŕiak kopetan min-izan ta bein sendatuta lotalua bota izan balu bezela, edo-ta, bazkari on baten ondoren eŕiak geŕia lasaitu balu bezela.

Beraz, Donostia-k ongi elkartutako etxe edeŕen auŕea erakusten zuan. Donostiaŕak atera zitezkean noiz-nai Donosti-tik at; ez len bezela, aŕesiko atea itxi ta San Martin-era etoŕi bear izaten zuten lotara. Naiz guztia Donostia izan, eŕia bat eta San Martin

bestea. Sanmartindarak jende alaia zan ta eritarak baño borokalari obeak. Ekaitz-egunetan ontzi bat baño geiago apurtzen zala-ta, bildutako eguررekin zenbait etxe egin ta bertako Zezen-Plazak bear zuan egur guztia izan zuten. San Martin-go etxeak lasaiak ziran, bea ta bizitza bakarekikoak geienak; etxe-arteak ere zabalak. Ezin ba' gibela estua izan sanmartindarak. Batez ere arera onekoak ziran ta kaletarak bezin atsegiñak. Plaza polita ere ba'zuten; makiñabat jai ta aureskuak egiten zituzten. San Martin-go Sebastopol-en ibiltzen ziran Ixkiña, Etxekalte, Brokolo ta zenbait zurut-zale ospetsuak...

Txomin San Martin-go ildegiaren ondotik zijoan, San Martin-goia ezkerera ta San Martin-bea eskubira. Bereala zelaian zan eta Eregesoro-n barena erian sartu zan Plaza Zaretik. Eskotila-kaleko ukulu batean zaldia utzi ta etxera abiatu zan Plaza Berian bazkaritarako garaian...

II

SANTOMASETAN

Erle amoŕatuak bezelatsu zebīlen jendea batetik bestera Plaza Beŕian. Santomas-egunean baseŕitar asko etortzen zan Donosti-ra ta, baseŕitaŕak eta kaletaŕak, guztiak Plaza Beŕian biltzen ziran: an izaten bai-zan iru eguneko peria.

Santo Tomas-eko periya
txorixua ta ogiya.

Plaza osoa mota askotako saltokiaz betea zegoan. Geienak nolanai jaŕiak zeudela, jendea aŕaen gisa irabioka zebīlen saltokien tartean. Batzuetan, ustegabean, irtendako tokian azaltzen ziran. Bestetan baseŕitar sendokote batek, auŕez-auŕe, kaletar nexka mexka baten ondotik joan bear izaten zuan. ¡An izaten ziran kaŕaxi ta algarak! Denda-edo ziralako aiek, ol eta oialez erdipurdi eginda itxura besterik ez zuten aiek, maiz bean jo ta gañeko ontziak itzulipurdika erortzen ziran. Saltzalea «asto» ta «kankalū»-ka asten zitzaion; bestea beŕiz, paŕez, «denda aŕayua jaŕi dezutena». Arkupearen parean zegoan bide erosoa; baldin erosleek guztia ikusi naiez atzeraka batean ibiltzaleekin istīlua jartzen ez ba-zuten. Erle amoŕatuen gisan zebiltzala esan degu ta alaxe zan. Gazteek txibilitoak eta koskabīloak erosi eta geiago eziñean Goŕa gaztain-saltzalea «ernegaziko» zuten. Neska lirañak, iŕia ezpañean, jostatzeko besterik jaioak zirala ematen zuten.

Ume eder bat ikusi nuben
Donostiya-ko kalian.

Etxekoandreak goizean etortzen ziran. Orduan izaten zan —orain ere bai— etxeko neska-mutilleri jostaluak eta goxoak ekartzeko eguna. Neska-mutilek artzen zituzten ardit, kuarto ta txanponak —edo eralgi nai ez zutenak, beintzat— «eltxetxoan» gordetzen zituzten: lau txanpon, zazpi kuarto. Santomas-egunean urte guztiko aurezkiak eltxetxotik atera ta, zerbait geiagorekin, amak bakoitzari ekartzen zion peria. Donostiar neska-mutillentzat ez zan urte guztian Santomas-eguna bezin zorioneko egunik.

Ordea, jostaluak ezik, ontziak, oialak eta etxerako bear izaten diran gauz asko saltzen zituzten. Baserritarak pillan ikusten ziran tokietan, makillak, akuluak, kapusaiak, zamarak, aizkorak, atxurak eta aldean egongo ziran. Egaztia —kapoia batez ere— eruz ikusten zan. Gora zeritzatzen gaztain-saltzale emakumeak, gaztañak ezik, lanpernak, karakelak eta lapak ojuztatzen zituan. Teresa Boba-k «panpoxo» ta «panpoxa»-eri pastelak eskeintzen zizkien. Bertan prejitzen zuten ainbat kana lukainka: beatzekin artu, aboarekin jan ta esku-atzearekin ezpañetako koipea... zabaldu. ¡Olio-keari «Txardin-berri»-koek egiten zizkioten musiñak!...

Txomin-en etxea Plaza Beriko aldetik bigaren bizitza zan eta Ikaz-kale aldetik irugarena. Donosti-ko aberatsenak Plaza Berian bizi ziran eta jairik ederenak bertan egiten zituzten.

Txomin-en etxean aita ta seme-alabak bizi ziran, alaba Txomin baño bi urtez zaragoa; Txomin-ek ogeitazortzi urte zituan. Aiekin batean Katalin mirabea zuten. Sukaldean egoten zan, plantxan aritu ere bai ta etxekoandreari illeak oraztu. Askotan iruten aritzen zan. Illean ogeitamar erialeko «soldata» zuan

—orduan ez txaŕa— ta Santomasetan beste ogeitamar eŕialeko saria, zapata parea, gorua ta arizko bi alkandora... Katalin-ek berak ardazkatua. Urteak zeramazkian etxean.

Neskame bat ere ba'zuten, Madalen, beste ajola gutxiagoko zeregiñetarako. Ala bearko. Orduan Donosti-ko etxeetan urik ez zala-ta, makiñabat aldiz joaten zan sularekin San Telmo-kalera ur-bila. Ta gizasemeren batekin itzegiteko aukera izanez geroz, baita aŕaskan (fregaderan) sula ustu kalera lenbailen ateratzeagatik ur-beaŕaren aitzakiarekin.

Txomin-en etxean ederki bizi ziran; uŕe asko ikusten zan etxe artan. Don Jose, aita, ziñaldaria (notarioa) zan, baseŕi askoen nagusi-ordezkoa ta, oŕez gañera, gudarien alarguneri «pagak» ematen zizkien ilero-ilero. «Pagak» emateko dirua Kale Nagusiko Aduana-tik ekartzen zuten. Dirua kuartotan artzen zutela-ta, askotan etxekoandre gaztea ta Katalin aŕatsalde guztian egoten ziran, ari ta ari, kuartoak zenbatu-ala pilaka jaŕi ta uŕena, eskua iŕistatuaz, paperean bildu ta mutuŕak itxi.

Emakumeak bakaŕik bizi ziraneko zorigaiztoko egunak joan ziran. Iñork ez zuan gogoratu nai iru urtez lenago gudariak etxera etoŕi, baztar guztiak miatu, aŕotuta gero, ta, galgaŕirik topatu ezagatik, etxeko nagusia Gaztelura eraman zuteneko egun ura. Eskeŕak jana etxetik eramatea aal izan zutela. ¡Ta uŕena Txomin eraman zuteneanl Orduan ez zuten jana eramateko aukerarik izan. Eskeŕak bere zaldia, argalduta ba-zan ere, biurtu ziotela. Orain pakean bizi ziran. Aita-semeak, auŕez-auŕe, mai berean aritzen ziran lanean.

Baño egun ura ez zan lan-eguna, jan-eguna baizik, batez ere Txomin-en etxean. Baseŕitaŕak urteko

«eŕentak» ekartzeko eguna zuten. «Eŕentaz» gañera, egaztia ba-zan, beste zerbait ba-zan, emaitz edeŕak ekartzen zituzten, «barkatu eskasiagatik, urte txaŕa izan degu» urtero bezela asiagatik. Ta Don Jose-k baseŕi askoen kontua egiten zuala-ta, emaitz ugariak biltzen zituzten etxe artan; bai orduan, bai gabonetan ta bai Sanjosetan. Katalin-en sari-eguna ere zan egun ura.

Ta ona zergatik esan degun «jan-eguna». Amabiak ezkeroztik baseŕitaŕak jabeen etxetara etoŕi oi ziran bazkaritara. Txomin-en etxera ogeitabost-bat lagun etoŕi ziran, ez oŕenbeste baseŕien nagusi-ordeko zalako, baseŕi batekoak askotan sendi guztia ekartzen zualako baizik. ¡Etxekoandreari, Katalin-i ta Madalen-i bildu zitzaien lan aundia!

Etxeko gela nagusian doi-doi sartu ba-ziran. Amabitarako maiak alkartu, zapi ta ontziak jaŕi ta eltzeak gal-gal. Mai-burutzat zaŕena jaŕi zuten. Txapelak belaunaren gañean, «Gure Aita» bat esan ta mai-burukoaren onetsi edo bedeinkazioarekin asten ziran. Ta asitzea asi ta galanki jan ere bai: ogi-sopa, eltzekaia, gisatua ta bixigu eŕia, gazta ta gaztañak; ardoa ta sagardoa edan-ala ta kafea paŕaŕakin. Batzuk maitik aldendu xamaŕak jaŕita, txaliarekin aritu bear zutenean, gorputza maiari alderatu, besoa luzatu ta, onuntzerakoan, azpiĺatik abora bitarteko txiŕio polita egiten zuten.

Nekez asten zan izketa; jan-ala, edo edan-ala, beŕiketa biurtzen zan. Uztaren galerarekin asiko zitzaizuten; batez ere sagaŕa izango zan gogotik ¡aren lore edeŕa! ta izotzak eta kaskabaŕak guztia ondatu. «Alako txal guri-edeŕa ba'genuan, gaitzak jo ta galdu zitzaigun». Emakumeak, batez ere, auzoko kontuak izaten zituzten: zereko zeraren ezkontza,

ainbat baseŕietako moŕoienak eta alako neskak onenbeste edo oŕenbeste eramango ote zuan. Artean neska-mutīlak ango oparotasunaz aŕiturik, ixilik ari ba-ziran ere, ezin geiagoan jaten zuten.

Bazkari-bukaeran Don Jose azaldu zan maisteŕen artera ta bai gogoz ta iñon diran atsegiñezko itzakin artu. Urdalā beteko pozarekin bat bertsotan asi zan ta nagusiari ta etxeko guztieri zorion guztiak opa zizkien. Maitik altxata agur egiterakoan, uŕengo Santomasetan ere «eŕentak» txintxo asko ekaŕiko zituztela, atzerako zor-punta ura ere berdinduko zutela-ta, urteroko esanekin abiatu ziran, andreak saskiak besoan. Ordurako Anita etxekoandre gazteak edo libra txokolate ala bakalo-zeŕa sartu zuan saski bakoitzean...

Aŕatsaldean ibilera berbera Plaza Beŕian edo neskatxa geiago esango genuke, eguardi-artean baño. Jendea sartu ta atera Eskotila-kaletik eta Esnategi-kaletik egiten zan ¡eta nolat alkaŕi bultzaka, alkaŕen gainka. Zuŕungilo aietan iŕi-karkarak maiz entzuten ziran, asaŕezko itzak ere bai eta noizbait eme baten kaŕaxia. Itxasaldiak guztiak nastutzen zituan ta jo batera ta jo bestera, zankoen gañean biraka ateratzen ziran.

Arkupetan ibiltoki erosoa zegoan. Gizaseme apain ta neskatx pinpiŕiñak aruntz-onuntz zebiltzan. Plazak ba'zeuzkan buru ta oñak, Plazak ba'zeukan urdala (lukainka-usaia nabaritu) ta Plazak ba'zeukan biotza, biotza arkupetan. Antxen zebiltzan eŕiko gazteak. Geren bizitzako oroitza samuŕenak labe orietan trinkotzen dituzu, irakurlea.

Arkupetik at sudur-zapi poxpoliña zetoŕen goitik beera, zeruko ilunabar-argi goŕian, balkoi batetik

eroria. Neska polit lirain batek beatz-mutuŕekin jaso zuan. Bereala iduri edeŕeko gizasemea azaldu zan aren pareko eskaratzean. Asi zan biĺa ta, ustegabean, neskatx politarekin auŕez-auŕe arkitu ziran bi gazteak. Biak lotsatu xamar zeuden: neska geldik zapi txukuna beatzetan ta gizasemea eskua doi-doi luzatu ta artzeko tankeran.

—Eskaŕik asko, gazte —esan zion gizasemeak.

Neskatxak ez zuan itzik atera aal-izan, begiratu bakaŕik.

Gizasemea bigaŕen bizitzara iritxi zanean, Anita-k ala esan zion anaiari:

—Ez zitzaikan joana damutuko, e...?

III

PLAZA BEŕIA

Kutxa baten baŕenen bestea, onen baŕuan uŕena eta bestea ta bestea... erdiko kutxatīla Donosti-ko Plaza Beŕia. Plaza Beŕia orixe zan, aranaren exuŕa. exuŕaren mamia. Zain guztitako odóla biotzean sartu ta irtetzen dan bezela, alatsu, Donosti-ko egiteko nabari guztiak egitera donostiaŕak Plaza Beŕira joaten ziran. Beraz, sagaŕaren adaŕaren punīaren punīan...

Goizean azoka izaten zan Plaza Beŕian. Baseŕitaŕak aulkietan exeritzen ziran ta eguerdiaz geroztik aulki aiek jaso egiten zituzten. «Tratua» bukatuta gero etxera-bidean abiatzen ziran ta len ere ikusi genituan Aldapeta-n gora asto ta guzti.

Uŕengo goizean oñutsik zetoztenak eŕi - saŕeran oñetakoak jantzi, xextoak koxkan utzita, ta zertxobait albait apainduta, Eskotīla-kaletik sartzen ziran. Plaza Beŕian sartu baño len, Eskotīla-kaleko «rekaderak» asten zitzaien aalik - eta onena merkeen erosteko asmoz; batez ere epeŕak eta olagoŕak izatekotan, bakanak izaten bai-ziran egazti aiek. Bein baño geiagotan iskanbīla jaŕita txinelak zer-egiña izaten zuten an sortzen ziran naste-boŕasteekin.

Barazki, arnari ta lorez edertua egoten zan Plaza Beŕia zeia bitartean.

«Donostiako plazan
Dira gaur ageri
Gauza merkeak eta
Naikuak ugari».

Neska-mutīlek, aal zutenean, «txanpon baten mamiya» eskatzen zuten besoa luzatuta. Esku-atzea gora

zutela, baseŕitaŕek txalia-bete mami-mordoska jartzen zieten esku-gañean. Uŕena, zupa ta zupa, geldiro abiatzen ziran; lenbizi, nekez ba-zan ere, eskuko zuria kendu ta gero goŕitzeraño.

Jai-egunetan enparantza goiz asko ustutzen zan. Beatzitarako Ibarguren, Txanbolin ta Xagararbola, eŕiko txistulariak, Plaza Beŕitik asi ta Aŕandegi, Esnategi, Ureta ta Eskotila-kaleetan baŕena bira osoa egiten zuten ostera Plaza Beŕian sartzeko. Onetan ezagutzen zituzten igande ta jai-egunak Donosti-ko mutil koskoŕek. Askotan kaleko soñuak esnatzen zituan. ¡A zein esnatze eztitsua! Egunaren eguzkia zitzaien, gorputzaren soñeko beŕia, giltzapetuaren askatasuna. Soñuak kalean aŕapatzen zituanak txistularien ondotik joaten ziran; kalearen mutuŕeraño bakaŕik txikitxoak ba-ziran.

Amabiak laurden gutxiagotan beŕiro txistularien otsa izaten zan Plaza Beŕian. Amabiak tarteko ordu laurdenean, neska-mutil, aurzai ta mukizuen gozagaŕi izaten ziran soñuaren irabio ta biurketak. Amabiak jota Ibarguren-ek keñua egiten zion Xagararbola-ri ta onek, lenagotik Ibarguren-i begira zegokionak, atabalari bat-batez eragin ta ez geiago eskatu, bazkaritara zijoazen-eta. Baldin euria ba-zan, txistulariek arkupetan jotzen zuten.

Neguan aŕatsaldeko lauetatik seiak arte jotzen zuten Plaza Beŕiko txistulariek. Ibarguren txistulari yayoa zala-ta, dantzari asko etortzen zan Plaza Beŕira, batez ere kaieko Jarana-ko neska ajolagutxiak.

Berdin zien, ajola zien bost, soñuaren neuŕia onelakoa edo alakoa ba-zan, zortzikoa edo polka izan. Orixe bai, *Ariñ*, *ariñ* jotzen zutenean, yayo asko dantzatu ezik, jendea kaŕaxika asten zan. Baño *Iriyarena* bezelako soñurik ez zuten donostiaŕek. *Eŕikoxemeak*

olde onekoak izaki ta berek asmatutako jai ta kantak izaten zituzten.

«A la kinkiŕinera
A la xamuŕera
Joxpantoni Plaza Beŕiko
Jira adi beste aldera.»

Oŕa, bada, *La ciudad alegre y confiada.*

Eŕi-etxea Plaza Beŕian zegoan; etxe edeŕa ala ere. Egun aundietan, gauez, iñolazko argi motaekin argitzen zituzten etxe-auŕea ta arkupea. Auŕez-auŕe, beste aldean, eŕiko aberatsenak biltzen ziraneko Casinoa edo lagun-artea zegoan. Ba'zan ere jatetxe bat Plaza Beŕiko txoko batean orobat goxotegia zana.

Plaza Beŕian nolanaiko jaiak egiten zituzten: bai mezak, bai zezenketak; bestetan lagunoste edo *konparsa* politak ere bai. Jai aundietan enparantza itxi egiten zuten, baŕen-aldera maĩaz-maĩa olezko exeri--tokiak jaŕirik. Maĩaz-maĩako ipurtaulki aiek luŕetik asi ta ia lenbiziko bizitzarañokoak ziran. Zenbaitek dirua polito irabazten zuan etxeko ikustokia alogeran emateagatik. Plaza Beŕiko balkoi guztiek zenbaki bana zuten ipiñia gañean.

Matxinada geienak enparantza onetan bertan sortu ta lertu izan ziran.

Gu esaten geraneko egun gutxi auŕetik txerpolari ta txotxongiĩoak izan ziran. Enparantza guztia sare ta tantaiez josi zuten. Batez ere *El hombre volador* egitekoak ekaŕi zuan jendea. Ba'zan bi soka ta mutuŕetan makil bat duteneko tiĩinga orietako bat goi--goien, oso gora, enparantzako teĩatuen parean. Tiĩingatik zintzilik, ankaz gora, gizon bat, *gizon egalaria* etoŕi bear zuan aldera begira.

Aurez-aure, uruti xamar, beste tilinga bat; au oso luzea. Emengo gizona, gazte bat, exerita ibiltzen zan tilingan; lengoa geldik ankaz gora, esan degunez. Gazteak tilinga utzita beste gizonaganaño aidean joan bear zuala-ta, orengatik zuan soka luzeko tilinga. Ba'zebilen, bada, atze-aurera, gora-beera, gazte egalaria. Musika ixildu zan. Jendea asnasik gabe «orain» noiz izango ote zan lari zegoan. Gaztea ba' zebilen naiko abiadura artu arte. Ots bat entzun zuten buruzperako gizonak eginda. Ta tilinga luzea bakarik utzita aidean joan zan egalaria...

Oretxeri esaten zion *El hombre volador*, aidean ibiltzen zalako. Len esan degunez, orixe zuten egitekorik aundiena txerpolariek. A bai ta... egalaria aidean zijoala buruzperako gizonaganaño iritxi, bi eskuak erakutsi ta, alkari eskuak emanez, antxe atxitu zuan *gizon egalaria*. ¡A zein lasajtasuna ikusleena! Gaztea jetxi zanean oraindik pir-pir zeukan biotza.

Bein, oregatik, buruzperako gizonari irixtatu egin zitzaion eskuetatik egalaria ta beera erori zan; ez ordea lurera, sarera baizik. Erenka atera zan gaztea, bere aalez, zerbait min-artua.

Urengoan burniari baten gañean einka joango zitzaizuten oñez. Eta olaxe. Musika jo ta jo, batez ere baltseak. Lau lagun ziran. Aien ereskin edo istrumentoak alkaren antzik ere ez zuten, alegia aien soñuak ain berdingeak zirala-ta, lau lagunen artean eresi bat jotzen zutela baño, lau eresi batean jotzen zutela obeto ematen zuten. Tarteetan emakume bat ontzia eskuan diru-eske ibiltzen zan jendearen tartean; ordea ikusteko asko, emateko gutxi.

Emakume onek berak noizpeinka, musikaren laguntzarekin, erderazko bertso batzuk abestutzen (kantatzen) zituan eta beroiek saldu ere bai.

Oietako bat *modan* jaŕi zan Donostia-n egun aietan. Aŕatsalde batean Anton Zuŕut eta Joxe Ogi Esnategi-kalean baŕena edanegiak zetozela, Plaza Beŕian sartuta modazko kanta ura estaŕiratu zitzaien. Eta onela ari ziran alkaŕi lepotik elduta :

Mamá, yo quiero subir, subir,
Mamá, yo quiero bajar, bajar,
Mamá, yo quiero subir
En el globo de Milán.

Todas las pollitas de aquí, de aquí,
Les disen a sus mamás, mamás :
Mamá, yo quiero subir
Aunque me caiga a la mar.

Txomin-en etxeko Madalen neskamea, sula sorbaldan eskaratzatik ateratzean, Anton Zuŕut «ziŕit» asi zitzaion eta Joxe Ogi orobat.

Madalen-ek ala bota zien :

—«¿Mamá, *yo quiero?*» Naikua ez ote dezute ean.

IV

ANTON ZURUT ETA JOXE OGI

1860garen urtean Anton Zurut eta Joxe Ogi donostiarak Aprika-ko gudarako irten ziran. Guda asi zan ta bukatu ere bai. Bukatutakoan, ez Anton, ez Joxe, ez ziran azaldu. Beren senarak iltzat emanda, «alargunak» ileta-elizkizunak egin zizkieten bieri.

Irten ziranez zazpi urtez geroz Plaza Zareko Erege-ostatuko aurean bi arabe-jantzidun jetxi ziran zalgurditik kalera : Anton Zurut eta Joxe Ogi. Aldameneko jendea aritu zitzaien. Bereala iñon diran mutil koskorak inguratu zitzaizkien abo-zabalik.

Anton eta Joxe arituri zeuden nora jo ez zekitela. Donosti-tik aldegin zutenean eri-inguruko aresiak oraindik zutik zeuden; orain, ordea, ezta arastorik ere.

Alako batean Kale Nagusiari antzeman zioten ta Kale Nagusitik jo ezazute. Aurera zijoazela Joxe-k paper bateri oar egin zion : *Se halquila un gavinete con su alcova.* «—Ez, emen dek», dei egin zion Anton-ek, ta Barbara-eneko sagardotegian sartu ziran.

Aratsaldeko iruretan sartu ta aratseko amaikak arte nortzuk ziran iñori ez zioten adierazi. Garai oretan sagardoa asi zan aien ordez izketan ta sagardoak euskeraz mintzatu bear. Orduan eman zuten beren buruen beri. Sagardotegian sortu zan pozarekin, bizkar-gañean artu ta aidean eraman zituzten etxera. Aien «alargunak», ordea, ilak zeuden.

Orain ere Barbara-enean ari ziran zenbait lagun : sardin zara ogi-tartean artu ta sagardoa edan.

Sardin zaŕak aldameneko eskaratzean saltzen zituzten. Sasoi artan Donosti-ko etxe-eskaratzetan, ateko sardin zaŕak ezik, ogia, sagaŕak, pelotak, espartziñak, txapelak eta jakia izaten ziran.

—Gaur txix egingo zenduten nik bejela Kuŕutako aiñ apaña ikusi ba-zenduten —ari zan Joxe Ogi—. Gaur marka guztiak autsi ditu. ¡Aŕen jazkera! ¡Eŕosayuak aliak baño kalabaza geyo bildu ditun mutilzaŕa! Lepoko aundi zuri-zuri batekin; korbata, beŕiz, sedazko oyetakua lepuari bi buelta emanez, kolore askotakua... Botak txarolezkuak, diz-diz egiten dutenetakuak. Galtzak... ¿nola galtzak eta botak batian etera biar diranetakuak...? oyetakuak. Ezta zimuŕik ere, nunbait tirantiakin zuzentzen dituzte. Extu-extuak galtzak. Alkandora-auŕian bi botoi txiki uŕezkuak alkaŕi kate txiki batekin lotuak. Txalekua txuriya, txit irikiya. Prak ekaŕi du berdia ta sonbrerua «Galerna»-ren baforiaren tximiniya bejelakua. Guantiak ere i, Anĩon, krabitĩla-eo ¿nola esaten dek ik? txuriyak ayek e'; indi-makĩla eskuan zĩlaŕezko kirtenakin... ¡motelak!

Donostia-n «currutacos» deitzen zieten alako jantzi-beŕizale aŕoxkoeri ta aldi artan gure mutilzar ori baño apañagorik ez zala-ra, bakartzat artu ta «Kuŕutako» jaŕi ziotzen gaitzizena.

Guztiak zazpi-bat lagun izango ziran Barbara-eneko ilunpean sardin zaŕak jan ta sagardoa edan ari ziranak. Egunez ere argia beeraño sartzen ez zala, kupela-ondoko krisalu batekin egiten zuten sagardotegi guztikoa: kupela-ondoan, noski, basoak beteegiak ez emateko ta ardit, kuarto ta txanponak ongi ikusteko.

Mai luze bat bi aulkirekin; an zeuden gizonek zer paŕegin izan zuten Joxe Ogi-k ikusitakoaz. Baten-

-batek zion, bai, Kuŕutako oŕek txaldan-arpegia zuala, baño bada-ezbada, eŕiko ontxoenaren atzetik zebīlela, polītena ta aberatsenetakoa. Beste batek galdetzen zuan non aŕaiotik zatorkion bizimodua, zer jaten zuan jakin ezagatik, ain janzki garestiak nola ibīli zitzakean, egun guztian kalean iñon lanean aritu gabe. Uŕenak «auskalo nungua dan ori», zion.

Baño aien artean ba'zan bat, Xanti, neska-kontuetan oso yayoa zana, Kuŕutako baño gazte jatoŕagoa. Kuŕutako-k ogeitamalau urte zituan; aundi xamaŕa izanagatik, mea, lerdentasuna galtzen asia; arpegian eta lepoan azaltzen zitzaizkion granoak ematen zioten lana. Kuŕutako-k andregairik aŕapatu ezin bezela, Xanti-k artu ta laga egiten zituan bereala aspertuta. Xanti-k nai aña andregai izan zitzakean.

Ixkixalda aren atzetik auxe asmatu zuten : Xanti Kuŕutako-ren neskaren atzetik asitzea, ea areri neska kendu ta aŕotza moko-uts uzten zuan.

Xanti, naiz orain sagardotegian ikusi, bai arte artan ta bai beste itxura oneko jendearekin ibiltzen zan gazte ondotxo azia zan. «La Fraternal»-en batzaŕekoa izango zan nai izan ba-zuan. Baño oraingoa arlo astunegia zeritzan; ordurarte onelako edo alako neska txukunekin ibīli ba-zan ere, ez ziran gain-gañekoak, orain aukeratu nai lioteken bezelakoa. Noski, ura ere gero uzteko asmoarekin asiko zan Xanti.

—I sayatu ari —ekin zion batek.

—Guk lagunduko diyagu nolabait al izanezkeroz —uŕena Anton Zuŕut-ek.

Artan gelditu ziran baietz esanda.

—I, ta ¿zer moduz bizitu ziñaten moruen artian? —galdetu zion batek azken itzegindakoari.

—Ni oso ederki bizi niñuken nere nagusiyarekin. Nere nagusiyak asko maite niñuan. Nik aŕek etzezkiken aroztegi-lanak egiten nitxiozkaken. Ondo elikatu, oi edeŕa bizkaŕaren azpiyan, nai bejela bizi niñuken nere nagusi mutur-beltzarekin. Jakintzak mutur beltza izanagatik guetako askok baño biyotz obia zeukala. Beñ-edo-beñ gu uztarpekuak beste prisioneruekin trukatu biar giñuztela-ta, ainbeste urtian aŕen onduan pasata, laga biar izan niken. Ta, txinist egidazute, agur esaterakuan malkuak ixuri zitun nere nagusi zaŕak —bukatu zuan Anton-ek.

Eta gisa onetara beste xeetasun geiago ere edestu zituan. Ordea, norbaiteri, xamurkeriak alde batera utzita, sagardo-txanda nork ordaindu «Didon, Didonié»-ra jokatzea oṫu zitzaion.

Ona nola aritu ziran. Xanti jaŕi zan agintari. Ezkeŕetik asita eskubiraño izen auetxek jaŕi zien mendez-mende: Didon, Didonié, Xarbon, Xarbonié, Ximon, Ximonié.

Xanti asi zan: «traballé titu», ta guztiek beatzarekin tiki-taka eten gabe jo bear zuten mai-baztaŕa. «Reste--la Didonié» esaten ba-zuan, Didonié-k beatza altxa ta ura ezik gañerako guztiek jota jaŕaitu bear zuten. Uŕena «traballé Didonié», ostera Didonié asi; «reste--la Ximon», Ximon geldik; «reste-la titu» esaten ba--zuan, guztiak geldi eta Ximon len bezela. Norbaitek agindu bezela berealakoan egiten ez ba-zuan, tanto bat galdu ta ainbeste tanto galduz geroz sagardoa ordaindu.

Agintariak beti kantari egon bear du: Didon, Didonié, Xarbon... eta berak ere maia jo oi du. Alako batean «¡reste-la Xarboniél» eta abar.

Joku ori, noski, gaskoin-jokua da. Donostia-n guda ta sute asko izan zirala-ta, prantzes-kondaŕak

gelditu oi ziran. Len gudari ibilitakoak gudaritza utzita Donostia gogoratu ta prantzes bat baño geiago etoři zan bertara. Prantzes orietako batzuk, batez ere, mai txikiak eta sukalde-aulkiak egiten zituzten eta baita ere bide-kutxak kaja utsakin; aspaldiko Eskotila-ko Mr. de Chevalié-k bezela eta San Telmo-ko Fransuá-k bezela.

Oŕez gañera gaskoinek urteetan izan zituzten artu-emanak donostiaŕekin. Oso sartu ziran Donostia-n. Beingo Nicolao de la Mayson alkatea gaskoindaŕa zan. Esnategi-kaleari «Narrica» (na-Rica) jaŕi zioten izena, Azakalezaŕari, «Embeltrán» (en-Beltrán) eta abar.

Gaskoina izan ez-izan, Ximon-ek galdu zuan jokoa. Ta Ximon Anton izaki.

Aulkietatik altxatzean batek ala esan zuan :

—¿Ba'al dakizute zer aitu deten? Oraingo ogeitamar xigaŕuak aurki ogeitabost izango dirala ta sei kuarton tokiyan zortzi t'erdi pagatu biarko ditugula.

Orduan Anton maurien artean bizitakoak onela itzegin zuan :

—Nayago nikek ezpanintz etoři. Emen mixeriya besterik etziok.

V

KAIEAN

Jarana-ko amakide alaiak... ari ziran, ari ziran trukean. ¡Aŕantzaleen etxadia! ¿Zer zan ura, etxe luze bat ainbeste etxe txiki egiña ala alkaŕi ondoratutako etxetxoak bat osatua? Jarana-ko etxadiak ogeitazazpi aŕi-oin zituan ta azpian utsa. Jarana-ko etxadiaren aterpean sarez betetako esku-gurdiak izan oi ziran, sareak, goŕiak. Sareek tiĩistaren antzeko kortxo borobiĩak izaten dituzte. Sare-gurdiaz gañera aŕai-kutxa piĩa aundiak izaten ziran. Aŕaia gatzatuta egoten zan. Oso langiĩe azkaŕak izaten ziran kutxalariak. Gizonek maĩuka batez sartzen zituzten iltze luzeak. Emakumeek eta mutiĩek ere bai. Tiña ta tiñako asko ikusten zan gatzak zurituak. Tiñatako bokartak angulen ugaritasuna zeukaten. Usai nazkagaŕia zabaltzen zuten. Oin-azpian artutako aŕaiak ikusten ziran luŕean. Ta Jarana-ko amakide alaiak, sare, gurdi, kutxa, tiña ta aŕai-lertu tarteko mai batean, ari ziran, ari ziran trukean.

Indar geiegi esan zitekean aren lan ariñarako. Bospasei gizon aundi tresak beitatzen. Ol batzuk belaunen gañean, beitatu ta beitatu egun guztian. Gizon bakoitzak ola bakaŕa. Ola tramankulu bateri alderatua. Amudun listaria ezkeŕarekin artu ta eskubiko beatzekin bokartaren begitik sartu ta amuaren musua isatsaraño sartzen zieten. Bat, bi... eŕeskadak ugari. Alako gai aŕont arekin olak edertu. Banaka-banaka guztiak alkaŕen ondoan. Bokartak pitxien gisara diz-diz. Miĩakoa nolanai beitatu. Ta beitalariak eragin bitartean, Jarana-ko amakide alaiak ari ziran, ari ziran trukean.

Kaia eŕi bat zan, urezko etxaide ta enparantzaekin. Ontziak, txikiak eta aundiak ba'zebiltzan aruntz eta onuntz kaleetako idigurdi ta zalgurdiak bezela. Orixe bai, ez dute soñurik egiten etxaideetan baŕena kurpildunen gisa; baño ba'dituzte txistu batzuk ikaragaŕiagoak... Txanelak txakuŕak ziruditen. Ontzi bat eta bi txanel ezkeŕ-eskubi, aita-semeak ziruditen.

Kaietaŕek telatuetatik uretara buruz beera salto egiten dute ta iñor ez da iltzen. Une batean ur-azpian ezkutatu ta beŕiro azalean agertzen dira. Kaletaŕek ori egingo ba-luteke... uretan baño obeto «garbituko» lirake.

Habana-tik ontzi asko etortzen zan azukre-kajaz beteak; aueri zuloak egin eta andik ixuritzen zan azukrea gogoz jaten zuten mutil koskoŕek. Beste ontzi batzuek zura ekartzen zuten Suezia-tik, kafea Puerto Rico-tik, gatza Prantzi-tik, jela Baltiko-aldetik.

Ba'ziran ontzi aundiak sabel-uts etortzen ziranak; bete ta bete aritzen zitzaieten, zakuak zirala, baŕikak zirala, kajak zirala, (sal-erosketa aundia zan orduan Donostia-n) ta oraintxe —nai aña iretsita gero— sarbidea itxitzen zieten, ba'ziruditen esku-atzearekin ezpañak igortzitzen zituztela.

Bidemaleak (pratikoak) oju egin du ta auzko bi ontzi-señak soka lodi batetik ezin geiagoan tiratzen dute. Soka, zulo batetik ateratzen da. Legoŕeko jendea ixilik dago. Auzko mutuŕetik «¡Piper-poŕoo!» mutil biuŕi batek dei egin du.

Bidemaleak txapela dauka buruan. Bizaŕa agitz zuritua, arpegiko azala goŕia, belaŕian belaŕitakoa. Uŕezko kate aundi bat dauka sabel aundi baten gañean. Kurpil bat darabilki, ezkeŕ-eskubi, txinpartak atera bear balitu bezela.

Beŕiz ere oju egin du bidemaleak. Jendea ixilik

dagokio. Ontziak buŕundara batez apar zuria asi da botatzen gañezka atze-aldetik. Ontziak ateetatik atera bear du. Bidemaleak tiro bat bota bear balu bezela zuzentzen du ontzia. Laŕi ibīli bear degu. Ontzia ateeratu danean, bidea estutu egin zaio ta ontzia lasaitu, edo ala iruditu beintzat. Ontzia ba'dijoa. Guztiak ontziaren bi aldeetara so-egiten dute: lekune berbera. Ontzia atera da. Bidemaleari txalorik ez jotzeaŕen eskuak sakelan sartuta nekezkoa zaie egoera ori zenbaiteri. Uŕena ontziak ezkeŕera egiten du ta zabalera ateratzen da. Jendea ere lasaitu egin da. Geroxeago batel axkar batean ekaŕi dute erditzale yayoenak baño arteza geiago erakutsi duan gizona.

Ta Txomin bidemaleekin ametsetan ari zan bitartean «Piperpoīo» ta bere kidea, egunez auŕetik zankoarekin putzura botatako aŕikatz-puska aundiak, uretan laŕubizirik murgilduta ateratzen ari ziran gero saltzeko asmotan.

Kai-mingaintxoko mutuŕean bi aŕantzale zeuden alkaŕekin itsasoaren gora-beerak asmatzen.

Bat ala ari zan:

—«Epaktak» amaika, īlea bigaŕena, amairu; amairu... īleak bost, emezortzi...

—*Quita kintze*, besteak.

Kaia, ondartza ta Gaztelu-mendia, oŕa Txomin-en gogoko eguraztokiak; beti itsasoari begira. Kuŕutako-k Zelaira, Zuŕiola-ra, Plaza Beŕiko arkupetara edo Santa Katalina-eguraztokira joera zuan bezela, Txomin-ek esandako tokitara. Kuŕutako-k neska non ikusiko zuan bezela, Txomin aŕantzaleen artera.

Egia da Kuŕutako, naita ere, ez litzakela ibīliko Jarana-ko inguruan. Gizonek ez lioteke ezere egingo. Emakumeek, ordea, jan egingo luteke. Ikusi orduko

destaña ta iseka egingo zioten, «xanko maxkal» areri, «txotx-apaindu» ura; itzik ateratzen ba-zuan gordiñak esan, ta «edukasiyo» konturik aipatzen ba-zuan, putzura botako zuten eskumakil ta guzti. Kanpotar bat edo bestek zaplateko edeŕak artuak izan dira Jarana-ko neskaekin zurikerizko ta bestelako itzaekin aritzeagatik: «¡señorito aŕayuak, *caarajo!*».

Txomin-eri ur-gaziaren usaia atsegiña zitzaion; ontzietako soka, oial, sare ta makil luzeak oargaŕi, ta mutiĺen kaŕamaŕoak alkaŕekin buŕukan jartzea, jostagaŕi.

Leenagoko urteetan «Don Jose-n semia» esaten ba-zioten, orain Txomintzat zeukaten guztiek. Kaieko aŕantzale askok maite zuten. Etxeko lanak eŕez egiten zituzten aita-semeek ta maiz etortzen zan Txomin kai-aldera. Jarana-ko neska gazte ajolakabeak «agur, Txomin» esaten zioten lotsatuta, besteeri «ariyo» esaten ba-zieten ere.

Urtearen auŕeneko egunetan, geienean, egoaizea izaten zan, eta izan oi da, Donostia-n. Kai-auŕeko etxeak, gaztelurako bidea, ikuztokia, aŕantzaleen eliza, Jarana-ko etxadia —aŕesi zaŕaren azpian—... ontzien soka, makil ta oialak; lur-gañeko aŕikatz-bildegiak, idi-gurdien joan-etoŕiak, garabi beso-luzeak... ¡a zer ikustea eguerdi arteko eguzki epelean! ¡Uraren urdintasuna! Baseŕitar itzaia ta aŕantzalea, ibaiko ur geza ta itsasoko ur gazia dituzu, irakurlea, usoa ta antxeta.

«Bost eŕial» balio zuan bildegietatik Kai-puntaraño-ko ibiĺaldia; makiñabatetan egin izan zuan Txomin-ek Ernani-ko espetxetik atera zanetik ere. Orduztik geiago ta geiago maite zuten Txomin kaiean. Eska zezakean edozein batel aŕaunean aritzeko asmotan. Oso aŕaun-zalea zitzaigun Txomin. Askotan ikusten

zuten bakaŕik bi aŕaunean ari ta ari beñere nekatzen ez zan gizasemea.

Txomin-ek ez zuan ezeren beaŕik aŕantzalea izateko; «sobra» bai, ordea: Plaza Beŕian bizi izatea ta zaldun-antzera jantzita ibiltzea. Askotan egin izan zuan goizeko lauetan treñeruan sartu ta aŕantzaleekin batean aŕatsarte ibili. Txomin patroi jatoŕa zan; ezerk ez lioke geiago txurikatuko patroi izate oŕek baño. Esandakoaz gañera oso gizaseme burutsua zan.

Aŕatsaldean zaldia artu ta Astigaŕaga-aldera joango ba-zan ere, goiz artakoa egin zuan. Ta Txomin kaia utzita etxera bezela, kaieko emakumeak Gaztelumendira igo ta, eskua kopeta-azpian ta tximak aizeak aŕotuta, itsasoko azken-baztaŕari begiratzen zioten eltxoa añako tanto beltza noiz azalduko ote zan...

VI

BEGO DONOSTIA

Irutxu-lo-ko
Gaztelu-pe-ko
joxemaritar
zar eta gazte,
. . . . . .

Festarik bear ba-da, bego Donostia. Donostia-n ba'ziran izneurlari yayo askoak. Bestetik, Sariegi ta Santesteban, musikari trebeak ziran ta bear aña musika asmatuko zuten. Beraz, Donostia-k ez zion iñori baitu bearik olde ona ta jostagura. Donostiarak beren xaltxan jostatzen ziran.

. . . . . .
Zer santuba
ta zer eriya
ta zer gaurko
gure alegriya.
. . . . . .

Pum, pum... Irutxu-lo-ko, Gaztelu-pe-ko... Ozte guztia estu-estu eginda zetoren Kale-Nagusian. Eriaren eguna zan, Ilbeltzaren ogeigarena : *San Sebastián*. Jendea agitz meartuta zebilen kaleetan barena. Batzun-batzuk, bultzatuta, eskaratz-barenetan sartzen ziran ta gero lanak izaten zituzten lenagoko giz-oldean sartzen : uroldearen urabarak ematen zuten. Artaraxe kendu zitzatekean egun artako otzak. Gu zortzitarako jaiki geralarik, atabal-otsa goizeko iru t'erdietan asi zan:

An zijoazen auŕelariak zaldiz, bost lagun: bat lenenburua, lau aren uŕenak. Orien atzetik atabalariak; lau, eŕenkadan eta eŕenkada asko. Azkenik «La Euterpe»-ko musikari-taldea.

Kalerik-ka-le
danboŕa-jo-az

dio izneurtu berberak.

Auxe zan batez ere eŕiko jai jatoŕa, iñon ez bezelakoa; ori ta uŕengo «soka-mutuŕa». Mutilentzat goizabaŕa ikusi zezatekean urteko egun bakaŕa zan. Askoentzat, ordea, eskaratzako ormak besoak zabalduta batean ikutu zitzatekean bezela, alatsu aŕapatzen zituzten ilunabaŕak eta goizabaŕak.

Alatsu aŕapatu zituzten Anton Zuŕut-ek eta Joxe Ogi-k, orain ere Esnategi-kaleko «Amabirjiña»--enean, begiak diz-diz, «tamborrada» etortzeko zai atean zeudenak.

Joxe Ogi-k ala bota zuan:

San Sebastián tarrapatatán
mucha bandera y poco pan.

Baña zaldizko aitzindariak Amabirjiña-eneko atarian azaldu ziranean Anton Zuŕut, bat-batean, ogia ta jakia eskuan zituala, akika auŕeratu zitzaien sekulako dantza paŕagaŕia egiñaz kaieko mukizuen tartean. Batek tira, besteak bultza, eroriko-al-aiz zebilen Anton gixajoa. Txinelak igaŕi ta an jaŕi zuan bizkaŕa etxeari itsasita. Goiko balkoietatik par gozoa zegiten. Beintzat jaŕaigo guztia igaro arte ezin izan zuan Amabirjiña-eneko ateak aŕapatu. Ez zan, ordea, geldik egon, alegia bustiaren bustia zegoala, baño, Kuŕutako neskaren atzetik ikusi zuanean ain garbia zerama-

kian oñetakoa zikin-zikin egin zion eta ez nolanai jota. Oŕa nolabait Xanti-ri lagundu.

¡Txinelak eraman bear Anĩon, berau iñoiz txinel izana! Aprika-tik etoŕibeŕian eŕi-zai jaŕi zuten ta, geiegizko edateak egiten ez ba-zituan ere, batez ere, okeŕik gertatzen ba-zan, aren beŕi edo «partia» idatzi--beaŕak ematen omen zion lan iguingaŕia. Onetxengatik utzi omen zuan eŕi-zaitza. Beñolakoan ondoko «parte» polita egin omen zuan : *El Abrusio (Ambrosio) iba conforme que manda reglamento tocando bociñ.*

Ta Anĩon-ekin ari giñala atabalariek iges egin digute. Urte artakoa «La Fraternal» ta «La Unión Artesana» bazkun edo soziedadeak eratutako jaia zan. 1874gaŕen urtetik 1876gaŕeneko bitartean, geŕatea zala-ta ez zuten «tamborrada»-rik ibiĩi; baño geroztiko urteetan bai bikañak egin Irutxulo alaian.

Uŕena Ikaz-kalean azaldu ziran atabalariak. Banketxe-jabearen alaba an zijoan bere adiskideari besotik elduta.

«Moño altubarekiñ
Lepuan lazua
Au da moda beŕiko
Jazkera-modua».

Kuŕutako ez zegoan uŕuti. Ezta Xanti ere. Aldizka Kuŕutako-k galtzetan garbitzen zuan oñetako gaxoa. Au, beti bezela, atzetik ibiĩi ta ibiĩi. Ibiĩi besterik ez. Xanti auŕerago zijoan. Nola begiratu ederki zekian. Iŕi-par goxoa asi zitzaion ezpañetan neskari. Kuŕutako-k atzera egiten zuan bertaegi jartzen zanean. Xanti-k, ordea, bildur gutxi ta aŕeta asko. Janzki beŕia zeukan soñean eta oso ederki artzen. Geienean ondoratuta zebilkion. Ozteak bein neskaren ezkeŕ-

-aldera eramaten zuan Xanti, bestean eskubira, uŕena atzera; ez nai auŕean azaldu, atzeraka egiten zuan. Kuŕutako zerbait igaŕita zegoan. Ordurarte, pozik zijoala-ta, ez zion ajol aundirik ematen zizkioten ukalondoko ta bultzakaekin. Orain asaŕetu egiten zan.

Kuŕutako aŕitu zan. Xanti-ri lagun bat etoŕi zitzaion. Bi mutīlak bi neskaen inguruan zebiltzan. Xanti-k oparo itzegiten zuan. Lagunari ezik bi neskaeri par--eginerazten zien. Naiz besteek aña ez, banketxe--jabearen alabak ere arpegi alaia zeukan. Bi neskaen tartean ari zala, onoko onek atzera begiratu ta auŕez--auŕe ikusi zuan mutīla.

Kuŕutako-k au ikusi ta ibaian beera datoŕen abaŕa ondoari lotuta, ura auŕera ta abaŕa geldik egoten dan bezela, Kuŕutako zotz bat egiñik uŕutiratu zitzaion. Noizean bein, begi bat aŕotza zualarik, ezkeŕ-eskubi begiratzen zuan norbait gertaera artaz igaŕita ote zegoan. Musikak eta atabalariak gero ta gogoŕago jotzen zuten. Ezta musikak ere ez zion atzegin egiten. Bera naigabetuago ta atabalariek indar geiago.

Azakalezaŕa-aldetik mukizuak beŕiro agertu zirala ta oju-otsa gero ta aundiagoa zala, ala dio Joxe Ogi-k Amabirjiña-eneko ateetan orain ere :

—¿Ogia garestitu ta *viva la Reina?*

Goizeko «tamborrada»-ren ondakin guztiak Iñigo--kalean bildu ziran. Aŕandegi-atzetik asi ta Plaza Beŕirañoko bide guztian jendez beterik zegoan gizonezkoak, noski, «soka-mutuŕa» atera bear bai-zuten. Gal-gal zegoan giza-taldea, alegia goizeko paīaŕak eta bestelako edariak lan eginda beŕiketarako ta laisterka ta oju egiteko gai zeudela. Idia atera zitekeala--ta, gizonen zankoen tartean eragozten zebiltzan mukizuak txint nabaritu orduko egiñalean asten ziran.

Idia, len esan degun Arandegi-atzeko txabol batean zeukaten. Idiari soka luze bat lotuko zioten lepoan. Soka-mutura, korapilo batez gogorturik, biraka zerabilkian lenbizi atera zanak bidea garbitzearen. Aren atzetik askok eltzen zioten sokari, lagun geiago eziñean, batez ere aure-aldetik, idi-ondoko aldean garbi xamara ba-zegoan ere.

Bein soka teink jariz geroz gelditu ziran. Iñigo-kaleko ardo ta sagardotegi guztiak zearo itxi zituzten. Atzeneko tokian Arakiña zeritzatena jari zan. Idiari atea idiki zioten. Beste mutürean ojuka asi ziran «¡emen dek!, ¡emen dek!». Jendea korika. Ordea, idiak ez atera nai. Tira ta tira asi zitzaizkion. Azkenean bulunba batez atera zan. ¡Ipurdiz gora erori ta azkar asko abiatu ziranak! Auzko mutürean orain ere «¡emen dek!, ¡emen dek!», zioten.

Alako batean —«soka-mutura» asi zan ba'— non ikusten degun idia amabi-bat urteko mutil baten atzetik. ¡Bai mutil yayoa! Sartzen da egiñalean ondoko San Juan-kalean, «Gazi-gezak» ureta-etxearen aldamenean, ta oraintxe alkaren bitartea labur-labur egiten zaie, idia sokaz lotua zegoala, sokak kale-kantoia arapatu ta arek egin zion tinkazoarekin idia ito ez zanean... Mutila an joan zan.

Baño auxe gertatu zan. Ateraberian soka zuzen ba-zegoan ere, idia San Juan-kale aldetik asi zanean, soka bat-batean okertu zan ta, Arakiña ezik, bospasei gizon ankaz gora joan ziran. Bai-ba', Arakiña sokaren azpitik beste aldean jari zan; eroritakoak, ordea, sokak sabeletik artu ta atzeraka bota zituan.

Idia beriro asi zan ta ¡eskerak Arakin azkarari! Bat idiak arapatzeko zorian baldin ba-zegoan, tira sokari Arakiñak beste aldera; onera ba-zan, ara tira beriz. Idia ba'zijoan arinki, Arakiña bera ere naiko

lari. «¡Emen dek!, ¡emen dek!». Kaleko lur-gañeko leioetan gizon asko zeuden jariak. Idia ondotik igarotzen ba-zan, ostikoka asi. Alderatzen ba-zitzaien, burnietan gora igo. «¡Emen dek!, ¡emen dek!». Alako batean, «soka-mutura» azkarik zijoala-ta, gizon bat erori ta beste atzeko guztiak eta idia bera ere gañetik pasa zitzaizkion. Zein ote zan eta ¡Anton Zurut! Ala ere tankatekoa bai, baño min aundirik ez.

Idia Plaza Berira iritxi zanean, sokaren mutura arkupetako ariari lotu zioten. Plaza Beriko denda guztiak itxiak zeuden. Ta an izaten zan urengo donostiaren gogoko jolas paragaria. Arkupeak zirala, soka zala, makiñabaten ariñala antxe ikusten zan; baita askoen baldarkeria. Baño, danetara ere, «soka--muturak» ba'zeukan bere elburua: idia adaretatik artu ta aunatzea, edo donostiarek zioten bezela «erendi» egitea. Beraz, ez zan edozein zezenlari xankameak egitekoa. Jazar artan ero indardunak bear ziran. Arakiñak «erendi» eginda bukatu zan egun artako «soka-mutura».

Onuntzean berdintsu.

Amabi-amabitan Santa Maria-ko eliz ederean aspaldiko urteetan bezelako meza edera izan zan. Eliza gañezka bete zan. Meza bukatuta eliz-aureko maletan beera ongi apaindutako giz-emeak ikusten ziran.

Txomin ta Anita, anai-arebak, an zijoazen ere. Bat-batean Txomin geratu ta ala geldetu zion arebari:

—Adi zan, orko neska lirain ori, nor den?

—Ori apaiz-kalekoa dala uste diat, «Kandi» deitzen ziotek, Orio-n ere aldizka egoten omen dek. ¿Ez al aiz gogoratzen Santomasetan orek berak iri nere sudur-zapia ematea?

Asto-kalean baŕena Anton Zuŕut eta Joxe Ogi zetozen alkaŕi bizkaŕetik elduta. Anton-ek bultzatu egin zion Joxe Ogi-ri ta zatoa eskuan

«Egaŕi zan ta nola
Ontzirik etzuen
Zerura apunteriyan
Jaŕi t'edan zuen».

Uŕena asto bat ikusi zuan kale-erdian, bi zamukaekin ia bi etxeetako ormak aŕapatzen zituala. Ta aŕiturik ala dio :

—Emen beintzat bi asto ezin zitezkian pasa parian.

Ta beste batek erantzunda :

—¿Oŕen loriya al zaude?

Madalen zan.

DONOSTIA

VII

XANTI MENDERATZALEA

Eŕegesoro, auŕeragoko urteetan, gudari-zelaia zan; antxen saiatzen ziran karlista-geŕatean gazte boŕokalariak. Oraingoan ez zan asaŕe-aŕastorik ere, guda bukatu zan ta suak itzali ziran.

Oraingoan igandea zan, igande-aŕatsaldea. Bazkalondoz asi ziran neska-mutīlak Eŕegesoro-n, gazteak geroxeago ta uŕena gizon-emakumeak. Oraindik ere aŕesiak izan ziraneko tokitik igarotzean ¡auek artzen zuten lasaitasuna!

Eŕegesoro-n ozte aundia bildu zan. Bai-ba' Eŕegesoro-n txerpolariak eta txotxongīloak-eta ba'ziran.

Txerpolarien tegia aundi xamaŕa zan, oialez osorik estalia, orduko emakumearen geŕitik beerako gonaren antzera, txerpolaritegiak ere burutzat geŕi estua zeukan ta luŕerañoko gona zabalak luŕari josiak. Idazkun au irakuŕi zitekean: *Compañía gimnástica, acrobática y mímica de don Rafael Díaz de Lisboa.* Beste toki batean *Toni Grice* naŕitari ospetsua aipatzen zuten.

Ba'zan ere txotxongīloen txabola, auŕe-aldean bizkaŕ-aulki askokin. Aur asko ikusten zan an. Zelaian —Andoain-dik Irun-erako bide zabalaren ertzean zegoan zelaian— jendea askotxo ikusten zan ta baita Santa Katalina-eguraztokian ere. Auek egualdi-oneko eguraztokiak ziran.

Xanti-ri arte batean bizi edo bestean, ez zion ajol aundirik. Berdin zitzaion sagardotegian egon, «La Fraternal»-en aritu edo neskarik aberatsenaren atzetik ibili. Orduan neskaren atzetik zebilen —Kurutako-ren kaltezko asmoak ba'dakizkigu— ta neska ikusten ez zuala-ta —berdin bai-zitzaion batera edo bestera jotzea— ta txerpolariak ikustera joan zan. Barengo musika zara lekorean ere bear baño geiago entzuten zan.

Orduko txerpolariak ez ziran bestetakoak baño askoz obeak. Arako emakume lodi ura, zaldiarekin ari zana, ez zitzaion oso atsegingaria Xanti-ri. Onen iritziz dantza baño egiteko egokiagorik ez du emakumeak. Ezkontzekotan, berarentzat bakarik dantzatu lezakean andrea artuko zukean. Beraz, emakumea dantzaria atsegin Xanti-ri.

Txerpolarien jauzka ta irabioak, alde-alde, beti batekoak zirala-ta, ez zioten zer aritu aundirik ematen gazteari. Aidean, bai aurera bai atzera, bira osoa egiten daneko ikotika ura, ala ere, beti atsegiñena izan zuana zan, garbi egitekotan.

Toni Grice-ri eskerak par-egiña oparo etori zitzaion. Oial beltz baten aurean, zuriz jantzia, izugarizko ikotikak egiten zituan Toni Grice-k. Xanti-k berak ere, zerbait saiatua zala, ezin sinistu ikusten zuana; gero-ta ikotika aundiagoak eta luzeagoak egiten zituan iñolazko arigarizko tankeran. Egiñala baño areago ari zala Xanti zertxobait kezkatzen asita, ora non ikotika batean Toni Grice aidean gelditzen dan jetxi gabe. Soka batetik zintzilik zegoala jendeak igari zionean ¡aiek egin zuten para!

Urena mai bat ekari zioten. Ezin-itxuran igota beste bat eskatu zuan. Orduan ere igo egin zan, besoarekin «aztutako» zankoari lagunduaz. Beste mai bat

eta baŕika, eta ororen gañean Toni Grice ospetsua. Asi zan «beñere erortzen ez dan gizona»-rena egiten. Batean onuntz, bestean aruntz, gero-ta balantza ikaragaŕiagoak egiten zituan. Toni kaŕaxika ta jendea ere bai. Ertzeraño joan, bertan gelditu ta atzerakoa ¡nola artzen zuan gizon arek! Buruko ilеak tente ta ikara biotzean ikusleak jaŕi zituanean, bere aldiko kaŕaxika eginda uzten du bere burua goitik erortzen ta... maiak-eta zilipurdika alde batera ta Toni ilazki bigun baten gañera.

Gero, zapia altxa ta jetxi, ikusgaŕiak egiten zituan Toni-k. Alde batetik beso bat atera ta idazkun au erakutsi zuan : *La salida del sol* (Eguzkiaren irteera). Zapia altxa ta mai bakaŕa utsik erdian. Maiaren atzetik borobil zuria asi zan goraka: Toni-ren buru-soil aundia. ¡Aiek paŕak arpegia erakutsi zuanean! Eta era onetako zenbait gauza paŕagaŕi.

Eta bukatutakoan, paŕez leŕ-eginda gero, ango aize beroak eta musika zaŕak bultzatuta, besteekin batean atera zan Xanti.

Asi zan, bada, neska bilatzeko asmoz. Txotxongilоen txabola-aldera abiatu zan Jende asko zegoan exerita, zai, txotxongilоak noiz asiko ote ziran. Exeri-toki geienak artuak zeuden. Jendeari begira, ez zuan banketxe-jabearen alaba oartu; Kuŕutako, ordea, bai. An zegoan orain ere itoko-al-aiz lepoko arekin; bai txukuna gizona.

Xanti-k bereala igaŕi : Kuŕutako an ba-zegoan neska ez zan uŕuti ibiliko. Kuŕutako-k esne artan eulia erortzea nai. Ta Xanti bera ere auŕe-aldeko toki batean exeri zan. Biok ba'zekiten alkaŕen beŕi.

Kuŕutako alde guztietara begira zegoan, axkurea belaŕian. Xanti, Kuŕutako bezin txotxongilorik ez

zala bere buruari ari zitzaion. Jendea laŕi zegoan txotxongiĺoak asteko. Bat-batean Kuŕutako asaldatu zan ta Xanti-k bereala igaŕi aren dar-darka ikusita nor azaldu zitekean.

Neska erdiko lekune artatik zijoan auŕera ezkeŕ-eskubi begira. Neska beste norbaiten biĺa zebiĺen. Xanti zegoaneko baño zertxobait atzerago gelditu zan, begiekin biĺaka. Mutiĺak ederki asko zekian neskak zer nai zuan. Ala ere, auŕerago ez zetoŕela ikusita, aldendu ez zezaion, uste okeŕeko itxura egin zion : ba'zala an exeri-tokia utsik, alegia—eskuarekin erakutsirik—exeri zitekeala.

Neska zutik zegoan eta Xanti orobat. Neskak eskeŕak zemazkion aren eskeñiagatik eta lagunaren biĺa etoŕi zala esan nai zion. Ordea, bai ongi entzuten ez edo ez-entzuna egin, Xanti-k bere artan exeri-toki garbia erakusten.

Orduan neska Xanti-ganatu zan ta ala esan zion :

—Eskaŕik asko, e'nuen siĺaren biaŕik. Nere lagunaren biĺa nenbiĺen.

—A —erantzun zion Xanti-k— barkatu, ala iruditu zait. Danetara ere, itxoegin nai izatekotan or bertan exeri zindezke, agidanian zure laguna zure atzetik-edo dabiĺ.

—Ez, ba'ninjuake; emen ez ba-dago nunbait biĺatuko det —zion neskak.

Eta Xanti, aŕano puŕukatuak, txanda onela artu zion :

—¡A zer zoritxaŕa! Ni, zerbaitian atsegin izan nai nizuna, ona ni utsarekin geldituba. Oraindik ere onegin nezaizukiala derizkiyot. Zure lagunaren biĺa lagundu nezaizuket, neria bezelako laguntzarik txarki ez ba-derizkiyozu... —ta oinka bat egin zuan.

Neskak, bestea. Orduan mutiĺak beste bi. Ta,

itzik gabe, alkarekin atera ziran, naiz aldendu xamarak joan.

Kurutako-ren ondotik igaro ziranean, ala ari zan berekikoz gure zargaztea:

—Esne onetan ni beste euli-mandorik etziok.

Xanti, jendea zegoaneko toki ura utzita, gogoz asi zitzaion izketan neskari, baita geiago alderatu ere; baño, zoritxarez, laister arkitu zuten laguna. Antxen bukatu zan egun artako lana.

* * *

¡Ez zuten par txara egin Barbara-eneko sagardotegian! An zeudela, Joxe Ogi-k beste berriak ekari zituan: Kurutako oso naigabetua zegoala-ta, zipotz egiñik, urengo batean Xanti-k ikusiko zuala nork aurea artu. Etsi bearean galenduta zegoala ta urengo igandean Xanti-k igariko ziola. Ok guztiak arokeriz bota zituala. Eta geiago ere bai.

Urengo igandean zer zan galdetu zutenean, Joxe Ogi-k esan zien: «Datorren igandian dakizutenez Andoañ-en pelota-partidua izango da, eriko apaizak ontxuenetako batekin. Kurutako-k diyoenez neskak aita-amakin juan biar omen du trenian ta araño eramango omen du Kurutako neska galtzeko bilduŕak. Bera zein dan oraintxe ikusiko degula». Ora ba' bilduŕak eman zion adorea.

Xanti-k bereala baietz, bera ere joan egingo zala ta apaizak pelotaka baño askoz erezago irabaziko zuala txotxongilo araio arekin zerabilkian auzia, naiz eta oñetakoak diz-diz ekari ta «olo-xanko» galtza aiek jantzi.

Sagardotegian asko poztu zirala zer esanik ez dago. Alkaren arteko kemenak auzia bizituko zuten, noski. ¡A zer jakia igande-aratsean! ¿Paragari utziko

ote zuan? Xanti mutil bizkoŕa ta apaña zan ¡arek aterako zizkion eltzetik babak!

Igandea etoŕi zan. Burnibidea jaŕibeŕia zan orduan Donosti-n. Jende asko zijoan Andoain-go pelotaka ikustera. Noski, alkaŕekin topatu bear zuten neska, Kuŕutako ta irurak bultzian. Xanti bultzian sartu orduko asiko zan bere irutegian.

Garaia etoŕi zitzaion. Geltokira iritxi ta bultzian igo zan. Asi zan neska non arkituko zuan. Ikusia ez-ikusi, ba'zebilen batetik bestera ta, alako batean, non ikusten dituan Kuŕutako ta neska artekan izketan. ¡Ura zan auŕea artzea!

Aŕitu zitzaion Xanti; ez, ordea, geiegi estutu. Ta an, aldean, bera ere zutik gelditu zan. Neskari begira asi zan. Neskak noizbait igaŕi zion. Kuŕutako iñoiz bezelako mutila zegoan. Oso eratsua ari zitzaion izketan. Esan batzuk Xanti-ren belaŕietaraño iritxi ziran. Batean ala ari zan :

—Zure izena polita dalaren polita, eztakit zerk eramaten naun zure aita-izenez deitzera : *Araneder*. Azkeneko *eder* ori zuri esatia ain gogozkua zait...

Ta Araneder zan, baiki, banketxe-jabearen izena. Orduko Donosti-ko iru banketxeetako bat zan Araneder-ena.

Kuŕutako-k bigunki, ezti, maiteki, zeramakian jardunaldia. Baño alpeŕik, gero-ta begiratu samuŕagoak egiten zizkion Xanti-ri Araneder-en alabak. Kuŕutako bera konturatu zan. Ta arteka bi besoekin artuaz ta Xanti-ri bizkaŕa erakutsiaz jaŕi zitzaion, ez neskak, ez Xanti-k, ez alkar ikusteko.

Onetxek asko mindu zuan Xanti. Jakin neska bere aldekoa zuala ta ezin ezere egin. Iñoren tartean sartzea ez bai-da egoki, ezta ere paketsu. Orduan Xanti-k

aita-amak zeuden baŕen artara zearka begiratu zuan. Ta auxe ikusi zuan: bien tokian ama zegoan exeria, beste bien tokian, aita; auŕeko lenengo bikoan iñor ez ta uŕengoan jantzi batzuk zeuden zabalduta. Bat-bateko ara zer bururatu zitzaion. Baŕuan exeriko zan Xanti ta orduan neskak Kuŕutako utzi ta bera ere baŕenera sartuko zan. Oŕa Kuŕutako-ri ostikoa jo ta bera neskarekin gelditu. Auŕeak erakusten du atzeak nola dantzatu.

Asnasa pixka bat artu, begiak erne, zankoak tinko, aiek biak alde batean utzita, sartu zan toki utsean exeritzeko asmotan. Baño amak,

—Ori neskaren tokiya degu—esan zion.

—Ai, barkatu—ta atzera etoŕi zan Xanti.

Xanti lotsatu-asia atera zan. Neskak begiratu edeŕa egin zion. Kuŕutako aren koska nabarituta dardarka asi ez ote zan. Egia da koska artan ortzak ortzakin jo zituala. Xanti-ri «jo ta uts» egin zuala iruditu zitzaion. Ez zuan, ordea, andik aldeegiteko asmorik; ez oŕegatik. Neska bere aldekoa zuan ta non-edo-an bereganatuko zuan.

Bai azkar ere. Neskak bereala «agur» esan zion Kuŕutako-ri ta baŕenera sartuaz lekorean utzi zuan Kuŕutako ezpañak luzatuta.

¡Ai, Xanti-ren poza! «¡Au, neria dek!», zion. Bi gizonak leiaŕetik begira jaŕi ziran. Zearka begira zegoala neska exeritzen ikusi zuan, edo, obeto esateko, etzanda-tankeran jaŕi zan, aldameneko jantziak artu ta zankoak estali zituan. Beraz, aldameneko toki ura utsik gelditu zan. «Orain deituko naun», oldoztu zuan Xanti-k. Ta deitu egin zion neskak. Ordea, Xanti-k ez-entzuna egin zion, Kuŕutako-k bigaŕen aldiz nola deitzen zion ikus zezan. Kuŕutako-k ba' zekian Xanti-ri deitu ziola, baño ezta itzik ere aipatu.

Bigaŕen aldian,

—Aizu, ba'dezu tokiya nai ba-dezu—argiago itzegin zion.

—Eskaŕik asko —erantzun zion Xanti-k— oŕen uŕuti ez nua, ni ere Andoañ-eko bidian nabil, zutik ba'ninjuakian; baño gogoz exeriko naiz eskeŕak demazkitzutan bitartian.

Ta Xanti baŕenen ta Kuŕutako kanpoan. Xanti-k eta neskak oparo itzegin zuten Andoain-eko bitartean.

Bultzia gelditu zanean Kuŕutako-ren aztaŕik ez zan.

VIII

EGUN ARTAN...

Egun artan egualdi edeŕa zegoan. Donostia-n ipaŕaizeak egualdi ona ekaŕi oi du; Matxitxako-tik datoŕenak, euria; egoaizeak, azaltzen danean, eguzki edeŕa ta aldeegiten duanean, egualdi txaŕa. Gañera udabeŕiak mokoa erakusten zuan.

Zuŕiola-ko itxas-bazter alai ura amaika egonaldi gozoen gaŕi izaten zan. Ipaŕaizeak ematen zuanean, ortzia ta itsasoa urdin-urdin ageri ziran. Auzko ertzetik asita, neke-neke zetoŕen aizea uraren gañean. Emengo aldetik, mendiek-eta zuten ertzatua zelai zabala. Ulia--mendi beti edan-ta-edan ari dan abere aundia zan.

Txomin-ek ez zuan egun ikusi ainbeste egazti batean. Ulia ta Gaztelumendiaren tarteko artan urtu gabeko elur-malutak eŕuz ikusten ziran zapi urdiñaren gañean: autsak alako ugaritasuna. Baldin munduaren azkenean antxetak berpiztu bear ba-luteke, Josapat-eko zelaia antxen luteke.

Antxeta zuriak lasai zeuden uretan. Bazkalondoz ariko balira bezela. ¡Eŕiaren edergalua! Venezia-ko usoak... ezta alderatzeko ere. Ura aundituta ba' zetoŕen ta antxetak atzetik artuta ipurdiz gora igotzen zitzaizkitzun; samalda osoa zerabilkian urak gora ta beera. ¡Begien atsegiña!

Beste antxeta-multsoa ibaian, Urumea-n, bi zubien tartean egoten zitzaizun. Urlaisteŕak itsasaldera zekarzkian ta ba'zebilzkitzun aidean atzekoz-auŕera; azkena leen, leena azken. Antxetak legoŕean, uretan ta aidean lebilzke. Ankaekin uretan igari ta legoŕean ibili; aidean, egoekin.

Itsas-autsia izaten zan tokian, ordea, antxetak pila

aundi batean *pii-pii* zebiltzan nastuan janari-bila. Gora ta beera, eten gabe, ain nekezkoa zitzaien bazka mokoratu naiean, lan gogoŕa zerabilkiten. Urari ikusten zioten elika-puska ebatsi nai lioteke jorien begi zoŕotzal ta ura berdintzen zanean txuxen-txuxen zijoazkien bertaraño.

Aŕitzekoa zan alkaŕi ikutu gabe alde guztietara nola zebiltzan. Ertilari baezpako batek angula-meta baten antza emango lioke alako naspilari; jakintsu batek egaera ikasi gogo zukean; eiztari batek tiro batez laukoa ilko lukeala begiak itxita. Aŕantzaleak eta antxetak bere gain zuten putzua garbitzea: aiek aŕaiez, auek zikinkeriz.

Aitz baten gañean maiz asko aŕantzale bat ikusten zuten kanabela luzearekin aŕantzan. Egoki zegokion aŕantzalea aitz puskari. Biak bat zirala esan zitekean. Gizona aŕiaren pikoŕa besterik ez. Egun artan aŕantzalea agiri ez zala-ta, konkoŕa kendu dioten ganbelua iruditu zitzaion Txomin-i.

Orduan ez zegoan aŕantzalea ta aren tokian iru kaio-zar zeuden aŕian. Gizona egoten zanean, beste guztiak ospa; ura ez ta kaio-zaŕak jartzen ziranean, besteak alde. An aal zuanak nai zuan guztia egiten zuan.

Kaio-zaŕak itxusiak ziran. Zebiltzanean ba'zirudian eskalaproinak zituztela. Mokoa, beŕiz, zapata zaŕen gisa, okertua zuten; beera begira, ez goraka. Ain aundiak zirala ere bildurtiak ziran. Txomin asmo txaŕik gabe uŕuti xamar ba-zebilkien ere, kezkatuta egoten ziran. Txomin aien atzetik igarotzen zala, uste baño bildurtiagoak zirala oartu zuan. Mokoa ezkeŕ--aldera jaŕita, Txomin-ek zearka begiratzen zutela uste zuan; ordea, begiak bi aldeetara izaki ta auŕez--auŕe ikusi.

Ba'zijoakien auŕerago ta atze-atzean jaŕita orduan izaten zuten istilua, ezkeŕ-eskubi begira. Ba'zegoan pixka batean, izututa egaz ez-asi ainbestean, ta bat--batean iru kaio-zaŕek ura jo zuten sabelez bete--betean.

Asi zitzaizkitzun bi lirdingari tiraka, egoak altxa, irugaŕena egonean. Teink jaŕi zuten, egoak gero ta aŕotuago. Irudigile bat baño geiagok oŕen lantxoa egin izan dute. Alako batean geien tira zuana mila aŕaioka asi zan abian. Beste biak aren atzetik. Bi aldeetatik zai zijoakiotela zuzen joaten beartu zuten. Txomin buru-begi zegokien zertara iritxiko ote ziran. Geiegi uŕutiratuko ez balira...

Eskubikoak laga ta bira eman zuan bere aldera.

Baita ezkeŕekoak ezkeŕera.

Auŕekoak lirdinga zikiña iretsi zuan.

Txomin ibai-ondotik etoŕi zan Urumea-ko kabaŕariak ikustera. Gizon bakaŕak alako ondar-pil aundia, aren eŕaz, ain bide luzean ¿nola eraman zezakean? Ara, ibaiko ura beera zetoŕela Loyola-tik Donosti-ko mutuŕera etortzen ziran, ura gora zijoala urarekin batean Loyola-ra. Urak eraman zitzan utzi, baño berek nai zutenean. Oŕa burua izatea.

Urumea-ko kabaŕariak taldean zetozenean ikustea, politenetako gauza. Bat atzetik-auŕera aga eskuan etoŕi bezela, beste batek aga-mutuŕa bizkaŕean zanko-joko yayoa zegian atze-aldera. Kabaŕaria iritxi-eziñeko irudia zaigu, ba'dabil eta beti toki batean. Auŕek ala oi dute ametsegiten, egiñalean itzulka ta toki berean.

Kabaŕariak taldean etoŕi oi ziranean, luŕalde beŕien jabe egitera zetozela esan bear. Batek auŕea artzen zion, uŕena besteak. Ta onela: eskubikoak laga, ezkeŕekoak eragin; onuntzkoak jo, aruntzkoak utzi. ¡Makil ikaragaŕiak!

Irudi-mirudiak ziran. Urumea-ko kabaŕariak ondar biĺa etoŕi oi ziran. Ez zuten bidegabekeririk egiten.

Iritxi, burnizko mutuŕa ondaŕean sartu, kabaŕa katez lotu ta galtzak belaun koskoŕetaraño goratuta ¡altza! oñetakoak eta guzti.

Pala eskuan ari zirala, zankoarekin tinkotu ta zutitu bakoitzean aidean botatzen zuten ondaŕa. Ta kabaŕa bitarteko bidean ondaŕari ipurdi-masaĺak ikusten zitzaizkion.

Kabaŕa agari lotuta eukitzen zuten, zakuŕa etzatokira bezela. Beiak gurdiari bezela. Ordea alde onetara utzi ta artara azaldu. Ura beera zetoŕenean ara begira gelditu ta gora asi zanean onera. Beti auŕea eman nai.

Kabaŕak tontoŕeraño bete zituzten. Gañezka eŕukigabea izan zala-ta, palaxt zegiten kabaŕek bi aldeetara. Ertzetik ari zala, kabaŕariak jo-ta-jo sartzen zuan izugaŕizko akuĺua.

Ez zan politagorik, ordea, zubi azpitik sartzen, ezkutatzeraño egon ta zubiari laisterka aldez beste eginda, kabaŕak mutuŕa nola azaltzen zuan ikustea baño.

Kabaŕak joan ziran. Txomin-ek zubi-zaŕeko oin-motzak ikusten zituan, joan-etoŕia bi kuarto eralgi bear zaneko eguŕezko zubia.

Oraingoa, ordea, aŕizkoa zan; edeŕa zubia. Txomin-en ondoan ikusten zan Azpiazu ziĺargiñaren odol-kutsua, azkeneko geŕatean eriotza eman ta ain luzaro iraun zuan odol belztua.

Txomin-ek Santa Katalina-eguraztokia ta Zelaia utsik arkitu zituan astegun goiz artan. Eŕegesoro-n ez zan txerpolari ta txotxongiĺoen aztarnik ere. Obe beretzat, ez zezaiola iñork eragotzi buruan zerabilkian lana. Txomin, bere eŕia asko ta asko maite zuan gaztea zan. Txomin-en eŕia, eŕi alaia zan, jai-zalea, jos-

tagura. Donostiaŕeri «*kaxkariñak*» deitzen zieten; ala ere, jolasa lanaren ondokoa izaten zuten. Igarotako urteetan Donosti-ko kaiean artu-eman aundia izan zan; batetik burnibidea jaŕigabea zegoala-ta bizigaiak itsasoz sartzen zituztelako; bestetik Donostia muga-ondoan zegoalako.

Txomin-ek arpegiko begiekin oraingo Donostia zekusan, guk erakutsi bezela, eguzkitako margo ta biziarekin; buru-baŕengo begiekin, beŕiz, aspaldiko Donosti ospetsua. Bai-ba', Txomin «La Fraternal»-en itzaldi bat egitekoa zan aiek ala eskatuta. Noiz edo noiz izaten zan itzaldiren bat batzoki artan ta Txomin-ek eder askoa egingo zuala-ta eskatu zioten. Beraz, Txomin egurazte edeŕez ari zitzaigun bere aria iruten.

Itzalbe ura «Katia» ziotena zan, San Martin-dik Plaza Zaŕeko bidean, aurzai guztien toki atsegiña. Txabol itxurazko idazkola zan ta antxen izaten zan eŕiko zergak ordaintzea. Geŕatean bai bakarki arkitzen zala gure txabola toki zelai artan. Kañoi-aleak ugari zebilkioten aldean ta aŕatsalde batez bi alek zulatu zuten txabola, Aŕatzain-dik botatakoak.

Txomin ondaŕera jeisteko abiatu zan. Kai-buru ondoko «Lastan»-n kaleruak ondar-lasta artzen ari ziran. Orduan landola asko bai-zegoan Donosti-n ta kaleru aiek Somoŕostro-tik burni-meatzaz beterik etoŕi ta, ustutakoan, ondaŕa artzen zuten.

Kaiean lana gogotik egiten zuten. Malukak saŕi jotzen zituzten ta burni-otsa, etengabea. Bizigaiak ontzietatik legoŕeratzen zituztenean, kate-aŕastakoa beŕiz. Kaiean oial-ontzi asko zegoan. Oial, makil eta soka eŕuz ikusten zan. Oso polita zan oial zuriak eta Jarana-ko etxadia eguzkitan ikustea.

Itsasoa beera nola bai-zan, Txomin ur-ertzeraño joan zan ondaŕean. Une onetan oial-ontzi bat ari zan

sartzen oso ikusgaŕi. Aizea gutxi ta oialak zabal-zabal izanagatik geldiro sartzen zan bi «puntetatik» onuntz. Itsasoa berdiña dala-ta, alakotan bakaŕik ikusten zaizka bideak. Uŕutiko bizigaiekin batean atzeŕiko asnasa dakartela dirudite. Buruari zerbait eragiñez geroz, aguro ikusten ditu ango ta emengo itsasoak, onelako ta alako gizonak, mota askotako ontziak, alde guztitarako joan-etoŕiak, sortaldeko igali edeŕak, ontzi-jabe aberatsak eta aspaldiko eŕomatar ta greziar salerosle ospetsuak.

Txomin batzuetan gelditu egiten zan edertasun ura bein eta beŕiro ikusteko, ainbatetan ura bera ikusi izanagatik. Donosti-ko itsasoaz ez da eŕez asetzen. Bestetan ibīli egiten zan ta bere artan ari zala, askotan, oartzeke, iges egin bear izaten zien olatu txikieri bustiko ez ba-zan. «Katia»-ondoko beera-bidetik Kontxa-erdiraño, gizaseme baten oñatza ikutsi zitekean ondaŕean.

Eta ba'zijoan auŕerago; itsas-beerako ondar-gañean ibiltze ori, maitea bai-zuan. Legortutako ondaŕetan legun ibiltzen da. Aizeak gatz-usaia dakar eta gozoa izaten da. Eguzkia bizia izaten da, baño ez du iñor gaizkitzen.

Eguarte ura, beste asko bezela, edeŕa zitzaion Txomin-eri. Askoz geiago ibīlia ez zala, izki batzuk oartu zituan Txomin-ek ondaŕean idatzita. Oar egin eta «Chomin» itza irakuŕi zuan. Oaŕa oar, auŕera jaŕaitu zuan. Noizbait auzko mutuŕera iritxi ta etxerakoa artu zuan Txomin-ek; bestetan baño onuntzago esango nuke. «Ez al da ba' beste Txomin-ik ni ezik» ari zitzaion bere buruari. Baño etoŕi-ala lengo idazkuna beŕiro ikusteko gero ta gogo aundiagoa zekaŕen. Bertaratu ta gelditu zan. «Dana-dalarentzat au egitera berariz etoŕi da norbait. Egīlearen oñatzak andik etoŕi

ta bide berbera egin dute arakoan. Iñork ikustekotan egin ba-du, ez zan ni baño askoz lenago emendik ibiliko, urez estalia egon bai-da au. Ezta askoz geroago ikusteko egiña, aurki urak ezereztuko bai-du, itsasoa beerako azken malan bai-dago», alako oldozketan ari zan Txomin. Oñak etoritako irten-bidera begiratu zuan. Ez zuan iñortxo ikusi. Urena Andoain--dik Irun-erako gañeko bideari ezker-eskubi begiratu zion oartu aal zezakeaneraño. Azkenez «Chomin» irakuri zuan. Izkiek ez zioten ezere geiago esaten. Asi zan ibiltzen, baño ostera gelditu zan. An ibilitakoaren oñak txikiak bear zuten izan, atzak erakusten zutenez. Txomin ariturik zegoan. Eta etxerako asi zan. Lengo itzaldi-arloa aztu zitzaion. Urena ez zion jaramonik egin nai izan ikusitakoari. Beriz ere «¿nor etori ote da eta norentzat jari ote du?» ari zan. Burua atzera biurtu ta begiratu zuan. Ainbestetan ibiltze ura bera egin ta ez zuan beñere alakorik ikusi. ¿Zer ote zan? Dakianak esan dezala.

Ora egun artako eguraztea nola bukatu zan: antxetak, kabariak, oial-ontziak, itsas urdiña eta azkenez «Chomin» ondarean.

«Katia»-raño igota, Txomin-ek eriko bidea artu zuan, zuzen Plaza Zaraño. Lengo oldozkunak bazterru zituan. Azkeneko baseritar merkatariak azkarik zebiltzan «are, mando» etxerako. Goiztxo zala-ta, Eskotila-kaletik artu bearean Esnategi-kalera aldatu zan. «Judua»-eneko parean neska pil bat ikusi zuan izketan. Aien artean Kandi ezagutu zuan atze-aldetik. Bat-batean biotz pir-pira etori zitzaion, baño oñetakoetan ez zuan neskak ez busti, ez ondar aztarnik. Txomin-ek bere buruaren lotsa izan zuan. Orez gañera Kandi-k ez zuan Txomin-en aldera begiratu. Beintzat Txomin kardaba arekin joan zan bazkaritara.

IX

TXOMIN-EN ITZALDIA

Kartetan ari ziraneri utzierazi egin zieten jokoa; amaŕak urbil ta aŕats artako itzaldia gertu egin bear. Batzuk jokoa bat-batean utzi ta altxa ziran; beste batzuek jokaldia bukatzen uzteko aŕenka eskatzen zuten. Azkenez, jokalarieri altxatzeko garaian kontuak nastutzen zitzaizkiela-ta, kartak eta tantoak artu ta, jardunari utzi gabe, idaztitegi edo bibliotekan sartu ziran, aiek aretoan exeri-tokiak egokitzen ari ziran bitartean. Eskuak gauzez bete, ala zion batek: «Etortzen zaio joko bat... gazta zaŕari aŕa baño geiago».

«La Fraternal»-en, beraz, idaztegia ba'zuten. Gela artan liburu-apalak ezik bi mai ere ba'ziran; antxen irakuŕi ta idatzi zezatekean bazkideek. Liburu-apaletan ez zan gauza aundirik. Oŕa, bat-batean ikusteko, Mañé y Flaquer-en *El Oasis—Un viaje al País de los fueros*, Camino-ren *Historia de San Sebastián*, Brost-en *La partida doble; Cuentos tártaros*, ia puskatuta, *Manual de Homeopatía*, *Elementos de Botánica*, *Medicina popular* eta abar. Apalategiaren azpian alasa zuten; bertan zeuzkaten gordeak bandera bat, musika-paperak eta iñauterietako margo askodun zenbait gauza, batzoki-zaiaren aŕantzarako kañabel bi puska ere tartean zeudelarik.

Baño jokalariek bakaŕik egon nai dutenez geroz, utzi ditzagun idaztegi-baŕen artan atea itxita. Arteka estu aietan jendea askotxo ikusten zan, alkaŕi bultzatu gabe ezin ibiltzeko eran. Lenengo aldiz etoŕitakoeri gogoz eta legunkeriz erakusten zieten «La Fraternal»--eko etxea bertako bazkideek; batez ere arako gela ura, sartu-auŕeko orman itxurazko sukaldea irudika-

tua zeukana. Atea idiki-beŕian edozeñek artuko zukean egiazkotzat itxura utsa zana. ¡Aien poza ta atsegiña norbaiteri okeŕeko irudipena jartzen ba-zitzaion!

Norbaitek dei eginda artekaetako jendea asi zan aretoan sartzen ta exeri-tokiak betetzen. Aretoa ederki zegoan, bai jendez, bai apainduz. Izlariak egon bear zuaneko tokian oial goŕi edeŕa jaŕi zuten eskudelatik beeraño. Iztokia luŕa baño bi aŕabete gorago zegoan. Argia edeŕa zan, orduko «betrolio»-argia ba-zan ere. Eŕaz ikusi zitezkean ormaetako irudiak: batean Pi y Margall, bestean Ipaŕagiŕe tu uŕenan Manterola-tar Balendin. Ta tokirik agirinean auxe irakuŕi zitekean: *Menos política y más administración.*

Amaŕ-amaŕetan azaldu zan Don Jose-ren semea batzokiko lendakariarekin. Bere izenez *Domingo de Lasurtegi e Intziarte* zan.

Atea idikita Txomin azaldu zanean, entzule guztiak bere aldera jaŕi ziran. Baten-bat asi ta bereala txaloka artu zuten, iztokira igo baño len. Txomin, gaztea zalarik, lasai azaldu zan jendearen auŕean, iŕia ezpañetan.

Irakurleak gaur dan eguneko gazteen arpegi-itxura ematen ba-dio Txomin-eri, oker dago. Sasoi artan Donostia-n gizonezko guztiak bizardunak ziran, eta Txomin orobat. Gaztea zalarik, bizar aundirik ez, ongi apaindua. Ileak eta bizaŕak beltzak zituan. Arpegia, aizetan eta eguzkitan ibilitakoa; iduri onekoa. Bekañetatik buruko iletaraño, kopeta zabala. Gizaseme mardula; bizkaŕa zabala, burua neuŕi edeŕean.

Txomin-eri itzaldia emateko eskatu ziotenean, Txomin-ek euskeraz emango zuala erantzun zien; baldin alakotan, bai; bestela, ez. Oŕa ba' donostiar jatoŕa. Don Jose-ren semeak artzen ari zan izenagatik

ezik, euskeraz zer nola moldatuko zan kezkatuta zeuden entzuleak. Oŕetxengatik, abots eder batez eta geldiro asi zanean, lenbizikoz itzaldi ura euskeraz zergaitik egiten zuan azaldu zuan. Erdizkako euskaldunak ez omen dira euskaldunak; osoak ala batez. Geienek euskeraren aldetik galtzen omen dute osotasuna. Euskera ba'dala gai edozein jakintz-arlotarako eta ez balitz ere gaitu egin bear genukeala. Antziñako Donostia-z itzegin ta erderaz egitea, baseŕitar bateri aragondar baten espartziñak jartzea bezela litzakeala; txapela kendu ta Soria-taŕaren ginbaĺa jartzea litzakeala. Orduan entzun zituan lenengo txaloak.

Itzauŕea esanda sartu-bidea artu zuan. Donostia-ren izenik zaŕena ¿zein zan? Zaŕenetakotzat *Hizurum* ematen zuten; ordea, oŕekin batean *Hirurzun* ere ikusten zan aspaldiko paper zaŕetan. Txomin-en iritziz «Hirurzun» ta oraingo «Irutxulo», *hirur-iru* dute alkaŕekikoa biek. ¿*Zun* eta *txulo* gauza berbera ote? Izlariak zionez ez omen zan oŕen sakoneraño sartuko; *txun* lenbizi ta gero *txulo* izango zan.
¿*Zun*-ek *mendia* esan nai ote zuan? ¿Txubiĺo, Santa Klara ta Gaztelumendia ote ziran? ¿Txubiĺo, *zun-biĺo* ote zan, naiko «biĺoa» danez? Beste batzuen iritziz «Irutxulo»-k itsasoaren iru saŕera edo «txulo» adierazten omen du. Txomin-eri ez zitzaion uste-eŕeza itsasoaren sartze oieri txuloak deitzea. Txomin-entzat naikoa zan *hirur* ta *iru*-en batasuna *Hizurum* baztertzeko. Oŕez gañera *urum-urun*-ekin ez da euskerazko itzik bukatzen. Ta emen bukatu zuan berak izeneko arazo ori. Izenetik izanera aldatu zan.

«Donostia-ren aspaldiko aunditasunaz jardufzea »—jaŕaitu zuan— ez da lan zaĺa, ain da ugaria egin»tza goragaŕi aien etoŕia. Antziñako Donostia-ren »edestiak aunditasunezko tanto lodiak ixuri dario.

»Aspaldiko donostiaŕen baratzan edeŕetan edeŕena »zegoan; lorerik pinpiñena, muxikarik elduena. Alaxe »nai genuke gure eŕiarentzat : ¡leen-leen usoa zan eta »gero Donostia!»

»Beaŕezkoa degu gure asabaen egintza ikaragaŕi- »ak aldizka gogora ekartzea. Gurasoen egiteetan »geren buruak ikusi genitzake; alakotu gintzaizki- »ekela, alegia. Aspaldiko donostiaŕeri begiratuta aien »leia gureganatu liteke, beintzat aien ondorengoak »izan eta aien aalekoak izan gindezkela erakutsiko »liguteke; edo-ta, geren aulkeriaren lotsa izango genuke bederik».

«Donostia-ren gizaldiz-gizaldiko aziera ta zabal- »tzea —zion Txomin-ek— batez ere erbestekoekin »artu-emanetan aritzeko bizkortasunari zor zaizkio : »balearen atzetik lurburuko jeletaraño joan ziran, »bakaĺuaren biĺa Terranova-ko ondaŕetara; Erdiko »Gizaldian, La Rochelle-n ta Brujas-en azokak jaŕi »zituzten ta Ipar-itsasoetan ingeles saloskariekin ika »aritu ziran; Donosti-ko itsasontzi olaetan ontzi edeŕ- »ak eŕuz egiten zituzten ta Baŕen-itsaso urdiñaren »zear joanda Itsas-Beltzaren azken-baztaŕetaraño sar- »tu ziran; Lurdi Beŕiaren idorokunde ta azitzean auŕen- »ekoen kideko izan ziran ta emezortzigaŕen mendean »Caracas-eko Lagungo goragaŕia, «Compañía de »Caracas» zeritzatena, sortu ta eutsi egin zioten: ta »ez *cacao*-ren salerosketan holandaŕeri nagusitasuna »kendu bakaŕik, baita Venezuela-ren edestian euskal- »dun-eragintasuna geitu ta indartu...»

Izlaria gero ta gar biziagoa zekaŕela, entzuleak berotu ta txaloka gogozkoa egin zioten. Txomin abo edeŕeko iztuna zan. Manterola-k berak ere txalo egin ez ote zuan, Ipaŕagiŕe-ri ia gitaŕa eskutatik erori ta Pi y Margall-ek, Manterola-ri igaŕita, urbiltxoenari bea-

tzarekin deitu ta Txomin-ek esandakoak erderara biurtzeko eskatu ez ote zion.

Txomin, beraz, bere eginkizunean aurera zijoan; itzaldia, itsasontzia egiñik, bete-betean artzen zuan aizea goiko ta beko oialetan. «La Fraternal»-eko jendea ixilik zegoala, itsaso barean zebilen aize--ontzia, ta itsas-eri batean sartua zan.

Negargaria omen zan 1813g. urteko suteak Erikoetxean egin zuan paper zaren eretzea. Antxen galdu ziran betiko Donostia-ren edestiko ainbeste jakingari. Eziñezkoa zala edesti ori osorik azaltzea. Ta, berak eratutako itzaldiari zegokion bezela, urena bale-arantzaren beri asi zan ematen.

«Bale-arantza —zion Txomin-ek— oso jaso aundi»koa izan zan aspaldiko urteetan. Sasoi batean bero»gei bale-ontzi ikusi izan zitezkean Pasai-ko kaiean »donostiaren ontziekin batean. Nolanai jota, bi mila »itsas gizon izango ziran. Arantzak bi mila barikaen »irabazia ematen zuan; edo-ta, seireun mila peso or»duzkoak eta bale-bizararekin beste irureun mila peso »aiez gañera».

Eta onela jarai :

«Ipar-itsasora zijoan bale-ontziak, bear bezelako »itsasgizon azartu ta gaituak zeramazkian berekin, »bale-arantza arisko aundikoa bai-zan. Emendik »ateratzean gatzartua (zezina), galeta ta sagardoa, »bide guztirako artzen zuan; auez gañera laruak eta »burni landua sartzen zituzten ontzian bideko itsas»-erietan saltzeko».

«Bale-koipez bete bear zituzten kupelak, bata »bestearen gañean jartzen zituzten tontorka. Ontzi »bakoitzean gaurko treñeruen antzeko txalupa bat »izaten zan, amabost araunlari ta txabolin-botatzale»aren diñakoa. Txalupa au sendoa izanez gañera,

»ariña ere ba'zan ta, aŕantzan ari zirala, onen atzetik »beste txalupak joan oi ziran burni-zoŕotzekin bale »zaurituak akabatzeko asmotan».

«Txabolin-botatzaleak beste egitekorik ez zuan »txaboliña baleari sartzea baizik. Txaboliñak burniz»koa zuan balearen aragian sartzen zan auŕeko pus»ka, ta kirtena, eguŕezkoa.»

«Bein balea begitaratuta txalupa alik-eta bertaen »joaten zitzaion aŕai-zaŕari, ta botatzalea, zutik, bale»aren buruari burni kakotua egotzi edo jaurtitzen zion. »Baleak oñazea nabaritzen zuanean igesari ematen »zion, baŕen-baŕeneraño murgildu ta berekin txaboli»ñari lotutako soka eramanik. Baldin azkaŕik ez ibil»tzekotan, txalupa ta gizonak ur jelatu aren baŕuan »sartu zitzakean.»

Oraingoan otzikara sartu zitzaien ain ixilik zeuden «La Fraternal» eko entzule aieri. Txomin-ek zion:

«Txabolin-botatzaleak, naiko soka lagata gero, »busti egiten zuan berau, laŕaskatzearekin txalupak »alde artatik su artu ez zezan. Beste mariñel batek, »lema eskuan zuala, aŕai-zaŕa nora zijoan, txalupa »ere alde artatik jartzen zuan aŕastaka zijoala.»

«Balea arnasa artzera ateratzen zanean, txabolin»dunak albait beŕiro zauritzen zuan odolustu naiean; »beste txalupaetako aŕantzaleak etoŕi ta aiek ere burni »luzeekin egiñalean aritzen ziran. Aŕantzako oldaŕ-al»di au aŕiskorik aundienetakoa zan, balearen astiñaldi »batek guztiak aidean bota zitzakean-eta. Bein balea »ilda uraren gañean gelditzen zan; orduan ontzira igo »edo atoez artzen zuten.»

«Legoŕetik uŕutitxo baldin ba-zeuden, balea ontzi«-gañean zabalik jaŕi ta antxen txikitu ta urtu egiten »zituzten puskak. Gizena urtutzeko adriluzko labe »berarizkoa izaten zan; lenbizikoz eguŕakin su-egin ta

»gero balearen ondakin berekin. Era au oso zan ona, »baño baita arisko aundia ontziak berak su artzekoa.»

«Euskaldun arantzaleengandik ikasi zuten holan»desak eta ingelesak bale-arantzan.»

«Baño batez ere Euskaleriaren aal eta indarak »Amerika-ko luraldea idoro zutenetik geitu ziran. »1348g. urtean Groenlandi-ko bidea oker artu ta bale»-zale azkar batek Terranova-ko lura begiztatu zuan. »Orduan, beriz, bakalu-arantza izugaria izan zan »euskaldunentzat. ¿Eta ba' al dakizute nor izan zan »gizon ospetsu ori? —galdetu zuan Txomin-ek— ¡Do»nosti-ko Juan Etxaide-tara!»

—¡Ederki!— oju egin zuan batek. Ta une berberan txalo ugariak sortu ziran aretoan; uso-samaldaren egan-asitze bat-batekoa. Txaloka luzea izan zan. Txomin entzuleen jabe zan. Guztiak donostiarak izaki ta donostiar-biotza ederki jo Txomin-ek. Aretoko aizea berotzen asi zan. Atseden-aldi labur baten ondoren Txomin gazteak jaraitu zuan.

Bakalu-arantzaren beri astiro eman zuan. Urena Donosti-ko Urumea-ondoko itsasontzigintzak aipatu zituan; baita Injente-aurekoa ere. Toki onetan bertan, 1615g. urtean, bukatu zuten *Santa Ana*-ontzia egitea ta 1857garenean Felipe IV-ren aurean ontzi-nagusiaren uretaratzea izan zan.

Ola aietan ontzi aundi ta txiki asko egiten zituzten, bai bertarako ta bai atzerirako. Felipe II garenak Ingalatera-ra bidalitako ontzitaldean, «La Invencible» zeritzatena, amaika ontzi aundi aietan zortzi ziran Donostia-n egiñak.

Len esandako ontzi-nagusia 1522 toneladakoa zan ta 90 kañoi aundienetakoak zituan. Europa-n orduan zanik ontzi aundienetakotzat zeukaten.

Santa Katalina-ko ondoan aingura-ola omen zego

an. An egindako aingurak Prantzian eta askori saltzen omen zizkieten. Toki ortan bertan, izokiak Zuŕiola-tik sartzen ziran bitartean, oial margoztuen ola batean bandera polit'edeŕak egiten zituzten, guda-ontzietarako ere.

Txakoliña, beŕiz, eŕuz artzen zan. Aizea ta itsasaldien bidez Ulia-ondoan eraikitako ondar-munoetan zeuden azkeneko maastiak.

Sagaŕa ere asko biltzen zuten. 1625g. urtean bale-ontziek 3680 baŕikote artu zituzten.

¿Zer zan Karakas-eko Gipuzkoar Lagungoa edo *Compañía Guipuzcoana de Caracas* zeritzaiona?

Entzun dezagun aretoko Txomin-en abots bakaŕa:

«Venezuela-ko lur zabalak ia utsa ematen zuan »Lagungoa asi baño len. Geientsuena atzeŕitaŕen eta, »batez ere, holandaŕen menpean zegoan.»

«Auŕeragoko 28 urtean bost ontzi bakaŕik joan »ziran Españatik alde artara. Bein Gobernuagandik »baimena iritxita andik onera kakaoa ekartzeko La»gungoa sortu zan, 1728g. urtean».

«Bi urtez geroz itsasoratu ziran lenengo lau on»tziak, guztiak gudarako gaituak. Guztion artean 561 »itsasgizon.»

«Ontzitaldea okeŕik gabe iritxi zan bear zan toki»ra; baño bertan bizi ziran atzeŕitaŕekin sortu zitekean »leiaren bilduŕez, aŕera agitz gogoŕa egin zieten ta ori »ezik matxinada bizia jaŕi ere bai. Ezin izan zuten »kakaorik erosi naiz-eta eros-neuŕia oi baño gorago»koa izan.»

«Ori ala zala-ta, joandako ontziak ezin izan zuten »etxerakoa askoz geroago baizik artu. Ainbeste itsas»gizon elikatzen diru asko eralgi bear izan zuten».

«Lagungoa, beraz, nekazarieri dirua utsean baitu»tzen asi zan, alegia dirua ordaintzekotan eman aun-

»ditu bear gabetanik, euneko ainbesteko sari edo »koŕitu gabetanik; kakaoa ondo baño obeto ordaindu, »ta, oŕez gañera, Europa-tik eramańdako salgaiak »iñork baño merkeago saldu.»

«Kai batzuk ere egin zituzten, ontzigizonak zama »bizkaŕean eraman ez zezaten. Lagungoaren iraba- »ziaz gañera Gobernuak ere diru asko jasotzen zuan. »Eŕitaŕak lengo erdian ordaintzen zuten Karakas-etik »ekaŕitako kakaoa.»

«Lagungoa sortzearekin Venezuelas-eko eŕia asko »aunditu zan ta iñoiz baño kakao geiago biltzen »zuten.»

«Karakas, batez ere, oso aunditu zan. Etxegintza »azkartu zan, nolanaiko etxe edeŕez. Beste eŕi koskor »asko ere sortu ziran ta Venezuelas osoa aberastu »zan Lagungoaren bidez etoŕi zitzaion ondasunaz.»

«Ingalateŕa-kin orduan guda zala-ta, makiñabat »erasoaldi jaurtiki zituzten; aien «aida»-eri «ezti» go- »gor erantzuten.»

«1740g. urtean Lagungoak irureun guda-gizon »bidali zituen Karakas-era *Nuestra Señora del Coro* »ta *San Sebastián* ontzietan.»

Jaŕaitu baño len utzi dezaiegun «La Fraternal»-go bazkideeri txalo jotzen, ontzien izenek aŕas zorarazi zien-eta.

Txomin-ek zion:

«Geroxeago Lagungo berberak zortzi ontzi bidali »zituen Habana-ra.»

«Ta geroago Lagungoa ogeitamar itsasontzien »jabe zan. Zenbait urteetan irabazi-ta irabazi zijoan, »asierako dirutza alako iru egiteraño. Baño noizbait »beerakoa asi bear ta aren azkeneko egunak ez dira »uŕuti igaro.»

«Oroitza gozoak utzi dizkigu Lagungo goragaŕi

»arek : gure *Santa María* eliza ta Loyola-ko Inazio »donearen zilarezko irudia, Eroma-n egiña.»

Lengo txaloak aundituta beritu ziran. Beraz, Txomin-ek eriko gauza gogoragariak gogoratzen zien eritareri. Ta naiz orietako batzuk jakin, gutxik arek ainbeste. Txomin-ek donostiar pil areri Donosti-ko gauza on asko erakusten zien, arotu zitezkean neurian.

Urena Txomin-ek XVIIg. eunurtean irasitako *Consuladoa* aipatu zuan. Donosti-ko banketxeak jaso aundikoak zirala. Konsuladoak salerosketako arauak jari zituala, artu-emanak legepean jari.

Oso on aundia etori omen zitzaion Donostia-ri Konsulado oren izatearekin. Konsuladoak Txubilo-ko argi-etxea egin zuan; orduan ederenetakoa zan, argia amalau zuduko bidean bidaltzen zuan.

Kaia ere edertu zuan, bear bezelako lanak eginda. Santa Klara ta Txubilo-ko tartea itxitzeko asmoa erabili zuan, ontzi-toki ona izatearen.

Konsuladoari eskerak 1765g. urtean Itsasarau--Ikastetxea edo *Escuela de Náutica* zana jari zuten.

Txomin oraingoan itzaldia bukatzeko zorian zegoan, baren artako aizea ere naiko beroa zegoan-eta. Egun aietan *Eco de San Sebastián* beringiak sutsu jardun zuan Okendo-ri, Donosti-ko semeari, irudi bat eraiki bear zitzaiola. Txomin-ek, asmoari aria emanaz, ala zion :

«Ez da Euskalduna bezelako itsastarik izan. Bale»-arantza zala-ta, urutiko itsasoetara joan bear izaten »zutela-ta, Euskaldunak ezkutueneko bazter oiek »ederki ezagutzen zituzten. Euskalduna itsaso zaba»laren jaun eta jabe izan zan. Euskaldun itsastarak »ospetsuak ziran. Euskalerriak ba'zituan erbesteko »ordezkariak edo kontsulak derizkiotenak, bai Pran-

»tzi-n, bai Ingalaterra-n, bai Flandes-en ta bai Alema-»ni-ko Hansen-Urietan.»

«Itsastar gain-gañekoak ziralako guretako asko »joan oi zan eginkizun aundietara. Beste aldez, nor-»beraren jakiteak ematen zien uste-ona ta adoreare-»kin, ajol aundiko zeregiñetan gogoz sartzen ziran. »España-ko erregeak izandako ontzitalde-buru entzute »aundienekoak, euskaldunak ziran. Ta oien artean »Okendo donostiarra, orain irudi bat eraiki nai liote-»kena. ¡Gora Okendo! Ondo irabazitako oroigalua »luke. Arizkoa baño brontzezkoa obe. Bego zutik »Donosti-tik itsaso zabalari begira. ¡Ur iristagaria, »oñari trinkoa zitzaion borokalari nekatu-eziñari! »¡Kristau otoitzalea! ¡Amaika jazaretan garailaria! »¡Ingeles ta holandar ontzi asko ta askoz inguratuta »geriko bat lertuko balitz bezela ebain-ebain egin zien »gizona!».

«Nere itzalditik batez ere —asnasa lasaituaz esan »zuan— asmo au nai nuke izan dezazuten: Donosti-»-ko uriak Okendo-ri irudi bat eskeintzea. Ustea oso-»-osoa daukat ala izango dala. Ondo dagoana, bego. »Bukatu det.»

Idaztitegiko batek «ordago» esan ta bat-bateko esku-zarta ikaragaria nabaritu zan an ondoko areto nagusian. Txomin gazteak orduantxe bukatu bere itzaldia. Jaiki ziran azkarik maiean zeudenak ta bizkar-ak ormari lotuta artekatik areto-aldera asi ziran. An besteekin bat egin zuten.

Txalokak asko iraun zuan. Guztiek nai zioten eskua estutu Don Jose-ren semeari. ¡Nekezko lanbi-dea! Aretoa bete ta iñor joaten ez. Izarditu gindezkean an. Lengo lagun zarak, besteko zar lagunak, lagun ez ziranak, «La Fraternal»-en bildutako ozte guztia

bereganatu zitzaion izlari yayoari. An zebilen lari-lari Kurutako. Txitxigabea zanez argalean sendo ba-zan, orain bular-bizkarak bat egiteko aukeran zegoan. Baita ere Xanti begi zorotza, an zan. Eta beste asko.

. . . . . .

Txomin-en itzaldiak «itzal» aundia egin zuan. Donostia-n egun batzuetan itzaldiaren jakia izan zuten. Kaietaren lagunaren ospea arabete igo zan. Ona *La Galerna* asterokoak, «semanario satírico donostiarra» zeritzanak, zein itz erabili zituan :

«...*el joven donostiarra don Domingo de Lasurtegui, hijo del conocido procurador don José, nuestro respetable convecino... hizo del vascuence vehículo superior de ideas e instrumento de ideas superiores... hombre capacitado para grandes empeños... quedó ampliamente demostrada la maravillosa ductilidad del lenguaje de Euskalerria.*»

X

DONOSTIAN DONOSTI

¡Plaza Beŕia! Ortxen izan ziran Prim-en eta O'Donell-en saŕerak; ortxen Urbiztondo-ri aŕera edeŕa; ortxen Isabel Ilgaŕenaren aldezko matxinada; ortxen agurtu zituzten Aprika-rako gudariak (Joxe ta Anĩon zirala); ortxen Campillo-ren matxinada ere; ortxen 18, 33, 45, 50, 57, 66gaŕen urteetako Iñauteri-artzaigo ospetsuak... ¡Eta aurtengoak ere!

Donostian donosti, gorostian gorosti.

«La Fraternal», «Unión Artesana», «La Euterpe»...

Ĩabetez auŕetik asi ziran «La Fraternal» ta «Unión Artesana»-koak urte onetan Iñauteri gogoŕak egin bear zituztela. Ain gogoŕak ere; azkenik biak alkaŕekin jaiak antolatzea erabaki zuten. «La Euterpe»-ko musikariak saiatu zitezkean.

Lenbiziko, San Telmo-ko ingeles-gudariek utzitako tramankulu luzeak, bitan ebaki ta Burgos-era bidaldu, laŕu beŕiak jaŕi ta atabal egokiak izateko.

«Donostiaŕak oi dira beti
Umore onian oitubak
Iñauteriyan ageri dute
Bertako kanta soñuak.

Penak utzi eta
Maite polita
Atoz zu nere ondora».

Donosti-ko Iñauteriak ospe aundikoak izaten ziran, aspaldidanik; baño aurtengoak lengoen maŕak autsiko dituzte. Zalduniote-goizean ba'ziran Donos-

tia-n 6.000 kanpotar, prantzes asko ta Pau ta Biaŕitz--tik etoŕitako ingeles naiko, burnibidea ba'zegoan ba' sasoi artan Prantzi-tik etortzeko. Ordea, Zarautz--aldetik lengo zalgurdi zaŕa zebīlen orain ere. Artantxe egin zuan Santa Cruz-ek Donosti-rakoa Aramayona-tik itzuli-beŕian; artantxe etoŕi ziran Anton Zuŕut eta Joxe Ogi Plaza Zaŕera, Aprikako luŕaldea utzita, mauri-jantzian.

Orain ere Plaza Zaŕean egiten zuan geldi-aldia Zarautz-ko zalgurdi aundiak. Zalgurdiaren goiak eta beak bete-betean zeuden jendez. Be-aldean amabi lagunentzako tokia ba'zan: iru auŕe-aldean, sei baŕen--aldean ta beste iru atze-aldean. Gañean, beŕiz, lau lagun joan zitezkean. ¡Zortzi zaldi! Dantzategi artatik nekez ateratzen ziran, zankoak ezin luzaturik, autsez zuri-zuri egin ta, udara ez izanaŕen, naiko berotuta ere.

Beintzat, Zalduniote-goizeko amaikaetan, Ondaŕeta-n danba batez *dios Momo* ba'zetoŕela gaztigatu zutenean, kaieko jendetza aundiak ulu ikaragaŕia atera zuan ta inguruko itxas-ontziskak iñolazko motazko txistu biziakin uŕatu zuten aidea; batzuek txalo egiten zuten. Kai-auŕeko etxe-zuloak jendez beterik zeuden ta beko zenbaitzueri nekezko zitzaien ertze-ertzean egon ta iñoren bultzakarekin uretara ez eroritzea. Beraz, Txubīlo ren oñean zegoan Ondaŕeta-tik, *dios Momo* egin zuteneko lantegitik berau atera ta itsasoz, Santa Klara-ren atzetik, kaiean legoŕeratu bear zuten ostera *dios Momo*. Ondaŕeta-ko danbak jende asko ekaŕi zuan zalduneriak igaro bear zuaneko kaleetara, auŕeko tokiak aŕapatzera.

Antxe zegokion zai, kaiean, zalduneria *dios Momo*--ri, areri laguntzeaŕen, ta berau gero ta bertago zetoŕela zaldiak eta gurdiak gertutzen azkaŕik zebiltzan. Santa Klara-ko atzea igaro zuala-ta oraintxe urduri

zebilen jendea. Urizaiak lan gogoŕa zerabilkiten jaia era onez egingo ba-zan. Azkenik txaloka ikaragaŕia jo zuten *dios Momo* bertaratu ta legoŕera asi zanean. ¡Lanak izan zituzten! Onekin batean beste gizon asko —zaldi ta gurdiaz gañera— etoŕi zirala-ta, kaia bete--betea zegoan; ain betea ere, amar urteko mutil koxkoŕa putzura erori zala; ordea, bat-batean, esku batez zankotik eldu ta buruz beera atera zuten uretatik. Oŕa ba' alaitasunaren jainkoizunari aŕera berebizikoa.

Ta txinguŕitegi artatik txinguŕi geiago eroriko zan uretara baldin zaldi, zaldun ta zalgurdiak noizbait abian asi ez ba-ziran. Ikus bitza irakurleak Donosti-ko Iñauteri ospetsuak.

Auŕenekoz iru aitzindari zijoazen zaldizkoak buruko goŕiekin; gorontza goŕia ta ikurdi urdiñak bular--bizkaŕetan; gona motz urdiñak ere, uŕezko siztatuekin; luma txuria burukoan ta oñetako aundi edeŕak. Erdiko aitzindariak idazkun au zeukan jaŕia ikuŕin edo bandera batean: *Carnaval de 1878 —La Fraternal— Unión Artesana;* aldameneko bi aitzindariak turuta zeramaten ta, tarteka, turutari aize ematen zioten.

Bi bazkun edo soziedade oriek ederki alkartuta azaltzen ziran ta arpegia onela erakusten zuten; egia da ere bat baño geiago asi zala esaten «Unión Artesana»-k egindakoa geiago ta obea zala «La Fraternal»-ena baño.

Uŕena eŕiko danbolin-jotzaleak apain-jantzian.

Gero bi eŕaldoi edo gizandi ta lau buruaundi: Alkatea, bi urizai ta beste txinel bat, itxurazkoak.

Orien atzetik *Estudiantina Euskalduna*, beŕogei laguneko taldea, beltzez jantziak, eztaŕiko ta eskumutuŕetako egalun txuriekin, galtza motzak, zapata luzeak ta ginbail zabala margo askotako lumaekin. Auŕeko tokian ikuŕin edo bandera bat zeramaten

idazkun onekin : *Estudiantina euskalduna de la Universidad de Valladolid.*

Bostgaŕenez, *Carroza de nigrománticos.* An zijoan Xanti, gure ezaguna. Ortzi-ikustokiaren antza zeukan gurdikote arek. Uŕutikuskin aundia ere ba'zan zeruko izaŕak azterkatzeko. Oŕez gañera, an zijoazen lau lagunek uŕutikuskin bana zuten txikiagoak. Arekin Xanti-k iduri-oneko neska guztieri begiratzen zien; uŕena mutur estua aboan sartu ta bertatik itzeginda zurikatzen zituan. Beñolakoan, neska polita irudituta, aboko bustia begiari erantzi zionean, berealakoan okertu zuan beste aldera : Kontxexi Araneder zan.

Seigaŕen tokian *Música japonesa* zeritzatena zijoan, «La Euterpe»-ko musikari yayoak japondar jantzian, beren lastozko ginbail zabalakin ta soñekoan iñolazko izki ta maŕa, berek eta txinataŕak oi dituzten bezelakoak.

Dios Momo-ren bi aitzindariak Injente-kaleko parean zijoazen, auŕera bai-zijoan zalduneria. Batzuek kale-ertzean jaŕita geldirik ikusten zuten; besteak zalduneriaren ondotik arekin batean joan. Ta *dios Momo* bera Kale Nagusian sartu baño lentxeago, ate bateri bizkaŕa erantzita zeuden «Txardin-beŕi»-ko ama-alabak :

—Agur, *don Amalio*— esan zioten Kuŕutako mutil zaŕari. Iŕia ezpañetan ikaragaŕizko ginbail-kentzea egin zien.

Ikus dezagun *dios Momo* orain. Danetan gurdikoterik aundiena zan. Amaseigaŕen gizaldiko Venezi-tar ontziaren itxura zeukan, bi aldeetako aŕaun eŕenkadakin. Aŕaunlarien ordez musikariak zijoazen. *Dios Momo* tokirik agirienean jori zegoan, oial zabal baten itzalpean. Gurditzar au koxkabiĺoz ta txilintxaz josia zegoan ta, zebiĺela, musikarien soñuarekin belaŕi-

-baŕenen atsegin egiten zuan. Sei mandok zeramaten gurdia; auek mitxeleta-egoekin zeuden edertuak.

Gero *Praxku-talde* bat, gure eŕiko jantzian, ta atzerago, *Carro de Ceres*, goroldioakin antzemana. Garia, artoa ta luŕak ematen dituan beste aliak lantzeko lanabasak. Oŕez gañera ate batzuk ibīli añako ur-ontzi aundia, ate ta guzti.

Uŕena *Batallón de Kaka-jarios*, aspaldiko urteetan Zelaian izandako buŕukaekin zer-ikusia zuana.

Eta onelaxe, geiegi ez luzatzeaŕen: *Carroza infantil, Carro de Marte, El moro Muza y su séquito, Carro de Mercurio, El robo de Elena, Carroza de Vulcano, Concha de Neptuno, Escolta de carabineros de Offembach, Primer regimiento montado de jeringuería.*

Ta azkenez, eun eŕomatar zaldizkoak... olar-gañean exeriak, musika ta tutuekin.

Zalduneriaren buru amaika txantxo ta mozoŕo ba' zijoan kalekoak.

Azkenik, Kale Nagusia igarota, Portu-kalean baŕena, Plaza Beŕian sartu ziran guzti-guztiak. Ta era egokiz jaŕiak zeudenean, Donostia-k esan zezakean:

«Iñork nai ba-du belar onikan
Naiz dala lore, aziya,
Gure baratzan arkituko du
Asma diteken guziya».

Baratz ura edeŕa zan bada. Plaza Beŕiko telatuetan ere jendea ba'zala esango genuke. Jaŕaigo luze arek bira guztian artzen zuan enparantza. Baŕen-aldean, sokaz ertzatuta, eŕuz zan jendea; oñak ezin ibīli-ala. Baita arkupetako ibiltokian. Aietako uztai baten azpian zeuden Kandi ta beste iru lagun alkaŕi

besotik elduta, lepoak luzatu ta iñoren bultzakari arpegi goxoa jartzen. Noizean bein aldeetara begiratzen zuan atzekoa ikusteko.

—¡Ori poliki! —ari zan— ¿Zer diyo *dios Momo*-ren kurpiletan? *La Fra-ter-nal* (buruari eragiñaz), *U-nión Ar-te-sa-na*. ¡Zein ederki! ¡Oŕa Xanti! (bereala alde batera begiratu zuan). ¿Zer dute jantziyetan maŕeztuta? Kokotzaren azpiyan eguzkiyaren antza eta gero oin eta eskumutuŕetaraño izaŕez josiyak. ¡Oyek ate politak uretan!

Une batean ixildu zan besteak ere bere artan ari zirala. Andik pixka batera jaŕaitu zuan:

—San Tomas-egunean bezelako lanabasak daramakite or luŕa lantzekuak. ¡Ara, zerbait erori da balkoi artatik...!

—...San Tomas-en bezela —itzegin zuan atzean zegoan Txomin-ek— eta barkatu, Kandi zeralako neska polit oŕek, ez det uste nere aŕebaren sudur-zapiya jaso zenuelako eskeŕak eman nizkitzunik ere.

Beste neskak, «Unión Artesana»-k geiago egin ba-zuan edo gutxiago —esamesak entzunda ari zirala —«neska polit oŕek» itzak belaŕiratu zitzaizkienean, arlo ura utzi ta Txomin-en aldera jaŕi ziran begira.

—Baietz uste det— erantzun zion Kandi-k ikara joanda gero.

—Ez det uste (gezuŕetan ari zan Txomin).

—Ez zan zer eman ere. Beraz ¿aztu ziñan?—Kandi gero ta ausartuago.

—Eta gogoratu naiz. Aztu izatia gogoratu. ¿Zer ote da, buru txaŕa ala buru ona izatia?

—Itzaldiyak egiteko buru ona biarko dezute, noski.

Par gozoa egin zion Txomin-ek.

—Nolakuak diran.

—Gain-gañekuak edo...

—...nolanaikuak.

—Zoriyonak zuri, berandutxo ba-da ere.

—Eskaŕik asko.

—Ia uŕengo batian eskeŕak ematia aztu zerala gogoratzen zeran.

Neskak iŕia zuten ezpañean.

—San Tomas-egunarekin bezela nun eta beste zerbaitek Iñauteriyak burura ez ba-dakarzkigun...

Txomin-ek aitzekia zekaŕen, baño Kandi-k San Tomas-eguna aipatu. Txomin-en erantzuna alde txaŕera artu zitekean, baño ez zan oŕelakorik gertatu.

Ordurako iru musikari-taldeak batera bildu ziran ta *dios Momo* bera ere erdi-aldera ekaŕi zuten jendearen artetik egizko Jainkoak dakian bezela. *Momo* zutik jaŕita agerkai bat irakurtzen asi zan. Aren jolasa esan bitartean, Txomin-eri ondaŕeko idazkuna burutaratu zitzaion. Aspaldian kezka ura ezin aienaturik zebiĩen. Berekikoz neskaren bat bear zuan izan, ango oin-atz txikieri antzemanda. ¿Eta ura ez ba-zan, nor izan zitekean?

Momo-k bukatu zuan :

«Artu jende maitiak
Donostiyakuak
Oroipen aitormenak
Biyotz gurekuak».

Iru musikari-taldeak eresi bat jo zuten ta onen uŕen, etoŕi bezela, jaŕaigoa asi zan Plaza Beŕitik, Portu-kalera, Kale Nagusitik Lasala-enparantzera. Ementxen zan zalduneriaren gorde-tokia.

Plaza Beŕitik atera baño len, Txomin-ek ondaŕetik ikusi zuala *Momo*-ren etoŕera esan zion Kandi-ri.

Ixildu egin zala-ta, uŕena itsasbera zegoala-ta,

bertago egoki ta ondo ikusi zuala ondaŕetik. Kandi-k beste nonbaitetik ikusi zuala esan zion. Eta Txomin--ek neskak agurtu zituan.

Ondo egin omen zuan ez geiago esatea. Arek zer ikusirik ez zuan izango arlo oŕekin. Ala zion Txomin--ek beintzat. Beste esanak gogoratu zitzaizkion. ¡Zein polita zegoan neska polit ura!

Kaleetan jende asko zebīlen. Aŕotzak nora etoŕi ziran ederki zekiten.

Aŕatsaldeko ordu bata joa zan.

Lauak ezkeroztik Plaza Beŕian ezin bukatu alako musika zan. Donosti-ko mozoŕo ta txantxo guztiak antxen bildu ziran. Mutil koxkoŕak txantxoen atzetik bixiga edo maskuriakin jo ta jo ari zitzaizkien. Bein edo bein listaria autsi ta pelota bezela joaten zitzaien maskuria. Batzuen ondotik joanda ardo-usaia galanki aitzen zitzaien. Zuŕunbīlo artan geienak kaŕaxika ari ziran. Baño txistulariak ezta ere gelditu.

Antxen zeuden Eŕi-etxeko ate-ondoan Joxe Ogi ta Anton Zuŕut, artatik ondo egiñak. Ibiltzen asmatzen ez zutenak, trebeak ziran dantzan. Jende asko zegokien begira.

Joxe emakume-jantzian zegoan, goŕiz goitik beera, ginbail beltz luze batekin. Arpegian ere ziŕimar goŕiak zituan; begiak, ikaragaŕiak; geŕi estua ta luŕerañoko gona zabalak.

Anīon emakume-jantzian ere. Gonak, maindire batekin egiñak; bulaŕak, sendo; buruan, txapela; arpegi-ordeko mozoŕoa ta, emakume-gisan zegoalarik, mozoŕoaren aboko zulotik, xigaŕoa. Dantzan egiteko baztar batean jaŕi zuan zerabilkian kaiola, baŕenen sardin-zaŕa txoritzat zeukala. Onoko txantxoak orain ere ikusten dira aŕantzaleen artean.

Ta dantza gogoŕean ari zirala, non beste moskor bat etoŕi ta irurak alkaŕekin asten diran—au eguneroko jantzian etoŕi zan. Ogi-ri ginbaĺa erori ta etoŕibeŕiari txapela kendu. Zuŕut-ek ginbaĺa luŕetik artu ta ezagutzen ez zutenari jaŕi. Ta onelaxe, bat erori, bestea altxa, uŕena jendearen gañera joan ala alkaŕen gainka ibiĺi. Noizbait bukatu zan amaitu eziñeko dantza ura. Kaiolak-eta eman zizkieten ta an joan ziran irurak alkaŕekin, bi alargunak eta bestea, izarditan, zakur bat atzetik zaunka zijoakiela.

Uŕengo goiza arte ibiĺi ziran ezagutzen ez zuten kideko arekin. Anĺon-ek ez zuan ez txapelik, ez mozoŕorik, ez kaiolik.

Asma, besteak.

XI

ASTELÈNIOTE. ZANPANZART

Joxe ta Antŕon-en adiskide beŕia Iñigo-kalean zegoan astelen-aŕatsaldean.

«Kilimax» goitizeneko beste moskor batek zesaion:

—Moskortzeko dirua ba'dek, poxpoluak erosteko es.

Bestea lengo tankeran geldik, Kilimax-eri begira.

Uŕutixeagotik biurtu ta oraindik ere zesaion :

—Moskoŕa aŕapatzeko dirua isan dek, ¿es al eunkaken poxpoluak erosteko?

Bestea betiko tankeran ta begira beŕiz itzik atera gabe.

Lengoak beŕiz ere, gero ta uŕutiago :

—Moskortzeko dirua isan dek ba', ¿sergatik es dituk poxpoluak erosi?

Ez dakigu geiagotan atzera biurtu ote zan. Geldik zegoana, aspertuta, ez bein-beingoan, noizbait ibiltzeko asi zan ta beatz-tartean zeukan xigaŕo-punta erdeñuz bota zuan. Ezta itzik ere.

* * *

Aŕatseko zortziak baño geiago izango ziran *La Fraternal* ta *Unión Artesana* bazkunak eratutako zalduneria Lasala-enparantzatik atera zanean. Gutxi gora-bera Zaldunioteko jaŕaigo bera zan.

Ibili zituan Lasala-enparantza, Injente-kalea, Plaza Zaŕa, Ureta-kalea, Esnategi-kalea, Iñigo ta, amaŕak aldean, Plaza Beŕian sartu zan. Bideko kale ta plazak jendez beterik zeuden.

Bai Plaza Beŕia ere, geiago ezin artu alako oztea zebilen. Zuzi ta argi-ontzi margo askotakoekin argitua

zegoala-ta, liluragaría zegoan Donosti-ko txulo maitagarí ura.

Leku geiago eman dezaiogun Zanpanzart-aratseko jaiari. Orduan izaten zan *Txardiñaren lurperatzea* eta, azkena azken, ta neuriak autsita ibiltzen ziran Irutxulo-ko eritar alaiak. Donostia, amabost urteko neska buru ariña soin beriarekin zebilen egun aietan.

¡Nork esan 1813garen urteko eria zala ura! Urte artako Dagonilaren 31ean, eria prantzesen menpean zegoan. Ingelesak eta portugesak alkartuta, aurean zeukaten erian sartu nairik. Zenbait egunean egiñalak egiten arituta, azkenean, Urumea-ibaiak ur estua zekarela, aldez beste egin ta geroxeago *Brecha* izena jaritako tokitik, erian sartu ziran gudari amoratuak. Nai aña gaiztakeri ta lizunkeri egin ta arats artan bertan su eman zioten eri gaxo areri. Seireun etxe zituala ogeitamasei bakarik gelditu zitzaizkion zutik. ¡Ta urengo urtean, 1814garenean, Iñauteri jatorak egin omen zituzten, alajañetan! Zararen gañean eri beria agidanean.

Lengo eguneko garai berean atera zan Zanpanzart-aratseko jaraigoa. Lasala-enparantzatik atera, Azakalezaratik sartu ta Esnategi ta Iñigo-n barena, beatziak doi-doi, zorioneko Plaza Berian sartu zan orain ere.

Bosteun mamu maindire txuritan bilduak. Bakoitza kandel bana bi zerenda luzeetan. Noizpeinka tarteko bat azaltzen zan argi polit bat eskuan.

Bigarenez, *Cazadores de Gerolstein*, bakoitza margo politazko argi banakin.

Gran banda de tambores, eun abeslari atzetik eta txinatar musikariak. Nasteka, *Il Trovatore*-ko *miserere* jo, *Andre Marika tronpeta* jo ta nai bezelako eresiak jotzen zituzten.

Beste eun baño geiagoko txurizko-taldea.

Gudari-mordo bat, apain-jantzian, izkilu edeŕakin. Ileta-gurdi aundia, lau zaldizkoa. Zaldiek beltzezkoa zuten bizkar-gañetik ta galdur zuriak. Erdian, gorputz zegoan *dios Momo* luze-luze, itxuraz. Txurizko-pila batek zaitzen zuan.

Azkenez, il-aztiak edo esandako *nigromantes* diralakoak. Kurkurtxoak buru-gañean, ortzian irakurtzen zuten gizadiaren etorkizuna.

Argi goŕizko zuzien argitan ikaragaŕizko ikustea egiten zuan aren ozte aundiak. Plaza Beŕia labe goŕia zegoan.

Gudariak eta il-aztiak erdiko olaetan igota, izugaŕizko dantza ta ikotika politak egin zituzten, txurizkoak eta beste gañerako lagun guztiak inguruan zegozkiela.

Eresi berarizkoarekin gogotik ari zirala, alako batean ateratzen zaizkie txeŕen zaŕak olaen azpitik eta, lengoak bidaldurik, asten dituzu bere aldiko izugaŕizko ots eta zaratakin dantzan beste eresi edo musika batekin ta Plaza Beŕiko guztiak erotu ez ote ziran.

Eresia bukatuta txeŕenak, zera atzetik zintzilik, ola-baŕenean sartu ziran beŕiro ta berekin batean *dios Momo* ere ezkutatu zan, aiek eramanda. Bitartez aidean igotzen diran borobil orietako bat goraka asi zan, jendeak txalo beroak jotzen zizkiola. Idazkun au zeukan geŕian jaŕia : *Farrez dago ama chardiña*. Ta Garizuma asi bear zuala iragaŕiz txardin aundi bat zeraman zintzilik ezkata dizdizariakin.

Auxen zan, irakurlea, atzoko Donostia, jolasarako Euskaleŕian berdiñik ez zuan eŕia, eusko-baratzako pinpilinpauxarik jostalariena ta politena. Ori, Donosti maitea, Irutxulo biotzekoa.

Alatsu bukatu ziran urte artako Iñauteriak. Jaiak,

bai; baño aŕatsa, ez. Jendea lotarako etxe-aldera kale-muturetan banatzen asi zala, Plaza Beŕia usturik, jende mordo aundia gelditu zan Iñigo-kalean zarata ta asaŕe bizia zerabilkitela. Aien ojuak uŕutitik entzuten ziran. ¿Ba'dakizu nortzuk ziran, irakurlea? *Unión Artesana* ta *La Fraternal*-ekoak. Esamesak besterik ez ziranak, amor eman zuten, aunditu era berean gaizkitu ta orduantxen istilu goŕia jaŕi zuten.

Aiek ez zutela auek aña egin, auek aiek ainbat eta obeki; besteak, jakin ba-zuten *dios Momo* lenago il kear zuala. «—Baita zuek ere». Ta orduan, amoŕaturik, alkaŕi eltzeko bezela jaŕi ziran. Esnea irakiten gero ta geiago aŕotzen dijoan era berean, ango iskanbila ere goraka zijoan, alkaŕi txistuka asteko tankeran. Ta oŕa uste gutxienarekin, asmo onez esandako itzak nola sortu zuten ekaitz beltza.

Gogoŕegi ari zirala, paketzeaŕen, bateri alkartasuna eskatzea otu zitzaion ta,

—*¡Viva la unión!* —oju egin zuan.

¡Ai, ama!, esan ba-zuan esan zuan. «Viva la Unión Artesana» esan nai izan zualakoan, beste askok, abo batez.

—*¡Viva la Fraternal!* —berealakoan erantzun zioten.

Ta baita besteak ere:

—*¡Viva la Unión Artesana!*

—*¡Viva la Fraternal!*

—*¡¡Viva la Unión Artesana!!*

—*¡¡Viva la Fraternal!!*

Bi gizon zartakoka asi ziran.

Uŕutitik ikaragaŕizko ojua egiñaz,

—*¡Viva Ingalatierra!*

Anton Zuŕut zan edatea edanda.

Lengoak zartakoka ta beste batek «—Muera la

Fraternal» oju egin zuala, ura zan boŕoka bikaña ta jatoŕa. Urizai bat aidean bota zuten. Moskoŕak nagusi. Sagardotegi bateko maĺadian beera gizon bat erori zan zankoak buruaren aldetik. Lenbizi batek eta gero bestek igesari eman zioten Esnategi-kalearen baŕena etsaiak atzetik zeŕaikietela. Makil batekin kaskoan jo ta puskak kaleko argia itzali zuan. Sagardotegiko andrea atea itxitzera igo zan okeŕeko jende geiago sartu ez zezaion. Min artuta bat baño geiago asi ziran aioṣka. Moskor batek besotik kosk eginda ez zion nai utzi besteari. Txinelak asi ziran azaltzen batetik eta bestetik. Asto-kaleko «bonberuari», txardiña urdaĺean aspaldian oeratu zanari ere, deitu zioten.

Noizbait, bai zutik zeuden asko erori ta ez altxa, bai besteak igesari eman ziotelako, bai uŕenak txinelak ikusi ta alde-egin zutelako, sagardotegian buruz beera erori zana aipatu gabe; noizbait boŕokalariak gutxitu ta urizaiak geitu ziran. Batzuk giltzapera eraman, besteak eritegira, orduantxe ixildu ta ustu zan Iñigo-kalea, baldin norbait, amildegiaren ertzean bezela, ate-txokoren batean lo gelditu ez ba-zan.

(Jaŕaituko du).

DONOSTIA

XII

GARI-PILAKO TXORIA

«La Fraternal»-eko balkoi ta tximenetako arte artan, lagun pila ura altxatzeko asi zan Iñauterien buruz ordubete ta geiago izketan eginda gero; oso naigabetua zebilen «La Fraternal»-eko jendea egunak joanagatik.

Joan bear zutenak altxata bi bakarik gelditu ziran exerita, ordurarte alkari itzik egin ez ziotenak: Xanti ta Kurutako. Egia esan, ez-ustean arkitu ziran alkaren aurean. Orain biek aldegingo zuten bata besteagandik; baño ezin ba' artaraño iritxi ziranez geroz. Xanti-ri, bere burua tankera artan ikusita, oldozpen au etori zitzaion: baldin agerbide eske asten ba-zitzaion, bi zartako eman eta kito.

Kurutako-ri, ordea, Kontxexi-ta bien arteko beri jakiteko naia etori zitzaion ta bere buruari adiskidetsu aritzea abindu zion. Tximenetaren gañean martin--arantzale deritzaion txoria zegoan bizirik gabea, beti alde batera begira, Kurutako-ren begi arotza bezela.

Orduan Kurutako-ri otu zitzaion:

—Ez dakit ba'ote dakizun bazkide erdiak baño geiagok batzara eskatu dutela, Iñauterien zerbaiten txarki arkitua gure buru diraneri arpegira botatzeko asmotan.

—Egia esan, ez nekian —erantzun zion Xanti-k—; naiago nuke oker banengo, baño ortatik gauza onik aterako degunik ez det uste; oso itxura txara demaiot «La Fraternal»-eri batez ere egun artako iskanbila gogora ikusita.

Oartu bear degun gauza biak erderaz ari zirala.

Kuŕutako oso erderazale puŕukatua zan, euskeraz ederki zekialarik. Euskera baseŕitar izkera zeritzan, naiz sasoi artan Donostia-n ontxoenak ere euskeraz egin. Erdera, nonbait, apain jantziarekin egokiagoa zuan. Ta joera ori zualako, ta paŕagaŕi ibiltzen zalako ta txatxua zalako, askok nazka zeukakioten.

Euskeraz erderaz baño obeto zekian. Askotan gain-gañeko gauzetan aritzeagatik, izugaŕizko ukalondo-sartzeak egiten zituan. Bein *los rayos «extra» violetas* esango zizun. Beste batean: *Newton, el que inventó el asunto ese de la gravedad.* Prantzesez puxka bat ere ba'zekiala adierazteagatik *mille huit cent quatre-vingt «dix» seize* esango zuan. Uŕena botako zuan *¿quieres que te explique el significado de la «sílaba» permeable?* Ta aparitan ari zaneko egun batean, prantzes-poŕuari tiratzen ziola, onelako gogai burutsua izan zuan: *Todo lo que cría la naturaleza es del hombre.* Ondo berea zuan, beraz, prantzes-poŕua.

Xanti zerbaitxo aŕitu zitzaion Kuŕutako-ri, ain maiteki zetorkionez geroz; ez uste oŕen adiskide arkituko zuanik.

—Agian uste izan dezu zuk, ari au utzita, —ekin zion Kuŕutako-k— asaŕe naukakizula lengoan Kontxexi zala-ta gu biokin gertatutakoaz.

Xanti-ri bat-batean paŕa egiteko gogoa etoŕi zitzaion; baño baita aŕitu Kuŕutako ain ausar ikusita.

—Arlo ura egun artan bertan bukatu zan neretzat —jaŕaitu zuan—. Nik aitortu bear dizut garbi kendu zenidala; edo ura buru-ariña dalako, ala zu yayoagoa zeralako, ala bat eta beste. Nik, nere buruari geiegi opatu gabe, esan nezaizuket —bene-bene zion— neskak «onla» (beatz-muturak elkarturik) izan nezazkikeala, jantzi edeŕak neskak liluratzen bai-ditu, ta

nik neronek izan deten aziera ona uŕutitik igartzen. (Xanti laŕi zegoan paŕari eutsi eziñaz). Ta oŕetxek mindu ninduan, neska batek ezetsi izan izatea, ni bestela oituta nagoana. Ta oŕetxek goratzen zaitu zu, ni bezelakoari neska kendu izatea. Aspaldian ikusten zindutan zenbait neska ontxoenakin ta menderatzaletzat zinduzkatela, orain arte ez nion antzik eman norañokoa ziñan. Ez daukakizut, bada, iñongo asaŕerik.

Ez dakigu bilduŕak ala ausardiak gisa artan itzeginerazten ote zion. Jakin-naiak, beintzat, galdeerazi zion emeki: —¿Eta geroztik zer egin zenuan arekin?

—Arlo ura zuretzat orduan bukatu ba-zan, neretzat orobat. Ni ezin niteke neska berarekin luzaroan ibili; aspertu egiten naiz. Egun artakoa, beintzat, aguro utzi nuan, naiz neska edeŕa izan. (Kuŕutako-k baietz buruarekin). Agian nere egitekoa txaŕagoa irudituko zaizu, neska kendu ta laga; alegia ortarako ez nuala iñori kendu beaŕik; zuretzat kalte ta neretzat obaririk ez. Baño egia esan, ongi oldoztuta, nere baŕua azterkatuta, an ez nuala nik ezer egiterik ikusi nuan; artean zu zerorekin nork jakin noraño iritxi zindezketean. (Kuŕutako pozez). Bai, ni, lortu bitartean, oso zaletuta ibiltzen nozu; baño bein atxituta gero, bereala aspertu. Ez nuan uste zuk diozun bezelako erakaŕ-indaŕa ote zenuanik neskaekin; baño egia esan (gezuŕa), orduan ikusitakoarekin ez naiz ezertxo aŕitzen, lana egin bear izan nuan gogotik.

«Neska polita dezu oso, ta nerekiko beŕiro asi bear zenuke. Nik, beintzat, ez dizut kalterik egingo».

Xanti-ri Kuŕutako txaldana ta paŕagaŕia zitzaion. Paŕez lertuko zan, baño ez nai min geiago ematea. Kuŕutako-ri, beŕiz, baŕena alaitzen asi zitzaion; Xanti

adiskidea izateak asko poztutzen zuan; Xanti yayoa zan neskaekin, aren beará izan zezakean, ta uralako mutil sendoa etsaia baño, adiskide obe.

—Xanti «adiskidea» —asi zan Kurutako— ez zaitez ezertxo ere larítu Kontxexi-rekin gertatutakoaz. Zuk ura neri egin izatea ez deritzat gaizki, zu gaztea zera «ere» ta neska ez zan nerea. Egia diozut (gezurá) bera begira ta begira nereganako begitarte ona aspaldian azaltzen asi ez ba-zitzaidan, nik ez nion jaramonik egingo. Bera asi, neska askok nai lutekena ain eráz bereganatu ta beste bat, zu, tartetu ziñalako, bazterituko al ninduan ba'! (Xanti-k ezetz buruarekin). Neri ajola gutxi. Ni, zu bezelako «suertoso»-a (ala esan zion) ez izanarén, ¿ez al derizkiozu Kontxexi Aranéder baño edeŕagoa noiz nai topatu nezakeala? Agian, zeoŕek igaŕiko diozu, ostera asiko zait nere aldeko; baño *don Amalio*-kin (berak esan) ez du ezertxo egiterik. ¿Ta ez al dezute geroztik itzegin?

—Itzik ere. Iñauteritan ikusi nuan azkenekoz ta ezta agur egiterik ere. Ta askotan ala gerta oi da, zenbat eta destaña geiago egin, orduan eta zaletasun amoŕatuago artzen dizute neskak. Zuk —lenago ere esan dizut— beŕiro asi bear zenuke neska oŕekin. Ez lizaizuke nekezko lana izango. Neska edeŕa, egokia ta ederki jantzia : oriek guztiak bat jotzen dute. Zuk, zerana zerala, baldin neskak baŕengo mamitik ezagutuko ba-zenitu, eŕex baño eŕexago izango lizaizuke.

—Noski, zu ortan ni baño jakiñagoa zera —Kurutako-k baŕengo pozari ezin eutsirik. Ordurarteko ezkutuak ¿ikasiko al zituan ba'? Kontu asko jakitekoa zegoan Kurutako.

—Gizona emakumeagana bezela, emakumea gizonaren aldera—. Ta berak uste ez zuala ere, bene-bene ari zan Xanti. —Itxuraren kontra sapua saltalari.

Emakumeak ezin bestez erakusten du bere naia; baño antzik eta kutsurik erakutsi nai ez ba-lizuke ere, oargaŕia zaio, aŕeta egiten ba-diozu. Zenbat eta bildur gutxiago, lotsa gutxiago izaten dute neskak. Ara, abiatu bear duan zalgurdiko neskak, nolanai egingo dizu agur edo iŕi baldin zuk ere arpegi goxoa jartzen ba-dakizun. Oŕa baŕena agiri. Oŕa ba' maitasun-bidean asi-asteko era polita. Orobat gurasoakin dagoan neska ausartuago izaten da begiratzen bakaŕik dagoanean baño. Gurasoekin ez besterik ateratzen ez diran neskak izugaŕiak izaten dituzu. ¿Mutiĺakanako gogoa neskak? Orixe bai.»

Orduantxe batzoki-zaia alderatu zitzaien bi gizoneri ta poxpolo batekin argia piztuaz, tximeneta-gañeko martin-aŕantzalearen eŕañua ormari erantzi zitzaion, oso mokoa luzatuta. Kuŕutako-ren suduŕa ere zoŕoztu egin zala esan zitekean ta Xanti-ren kopeta zabaldu.

Atseden pixka bat artu ondoren jaŕaitu zuan Xanti-k :

—Baño maitasun-arazoetan irabaz-bidean ibiltzea nai ba-zenuke, batez ere, auxe gogoan artu bear zenuke beti, gertaldia non eta noiz izan liteken, edo-ta, nongo ta noizko ta nolako xede oriek lagundu egin bear digutela. Egite berbera alderakoa edo kalterakoa izan ditekela non eta noiz egiten dan, esate batera. Gertaldiak berak dakaŕela alderakotasuna, alegia.»

«Zu ibiĺi zindezke neska bateri begira jo ta tira. Berak ere begitarte ona egin lizaizuke. Baño luzaroan ikusi-mikusi zabiltzatela, aspertu zindezkete biok-ala-biok. Artean, nonbait ondoan gertatu-beaŕak bereala alkartu zinduzketean. Xedea bear dala bata-bestetu egingo ba-zerate. Beraz, xedea legoken gertaldia

bīlatu. Eta xederik ez balitz, zuk zerořek sortu, din baziña. Ara, ¿gogoratzen al zera txotxongīloak ikusten egon giñaneko artan? Nik ba'nekian lagunaren bīla zebīlela Kontxexi; baño sīla-bīla ote zebīlenen itxura egin nion. (Kuřutako-ri begiak zabaldu zitzaizkion ikasiaren pozez). Baño ori arlo zalena dezu; naikotu zindezkean gertaldiari garaiz eta bear dan eran eskua emanaz. Ta aipatutako aukerarik ez izatekotan, lan gogortxoa izan oi da atariri atarira neskaren auřera azaltzea. Zurekin egoteko pozik legokenak, gaizki ar lezake zure ausardia gutxiesten dezulakoan. Begirapena izatea asko atsegin dute emakumeek. Ni neroni begirapenez aritzen naiz; baño begirapen-itxuran, ausarki. Ausartua, bai, trenean joan giñaneko artan bezela. Orduantxen egin zenuan egitekorik aundiena; baño ni ausartuago. Ta lendik zu baño arituago. Donosti-egunean atabalen atzetik ginjoazenean ¿zergatik ez zintzaion neskari alderatu ta neri lekurik utzi ez?»

Kuřutako pozik zegoan entzuten bere-bereko tentelkeriak ařigařizko gauzak ikasten ari zalakoan. Tarteka zaiaren joan-etořien oin-jotzea nabaritzen zan. Bestetan, sīla mai-gañean jaři ta zapi batekin zirt-zart ari zan. ¡A zer egitekoak egin bear zituan Kuřutako-k! Zurikeriak esaten zizkion Xanti-ri. Ta biak bakar-bakařik zeudela, oraindik ere jařaitu zuan Xanti-k «La Fraternal»-eko aretoan :

—Nik izugařiak egin izan ditut. Amasei-amazazpibat urteko neskak oso samuřak izaten dituzu. Legunkeriak esan eta bete-beteko maitasuna artzen dizute. Ni bein batekin onela ari nintzaion : «Zu neska polita zera, neska ona, oso bioztia, zure biotza zimuřik gabea. Begirozu okeřeko senargaia artzea, biotz-min bizia letorkizuke.» Ta okeřeko aldera jo zuan

neskak. Ain ongi ezagutu nuana, ni oneri maitekatu zitzaidan. Ta biotz-nekea izan zuan gizajoak.»

«Atsegin zataŕa da, baño bai atsegiña askoen kutuna izatea. ¿Bai al dakizu zuk maitekatzen diran neskak zein goxo ta xamuŕak izaten diran? Baño maite-lan auek oso aŕisko aundikoak izaten dira. Askotan naikoa izaten da zu neska baten maite izatea, ta arek dizun maitasunarengatik, zuk ez uste edo nai-ezagatik, zu zerori ere aren maitale biurtzeko. Zer aundia dauka neskaeri ondo itzegiten jakiteak. Baldin neska bateri zu mutil ona zerala ta buru argikoa txinisterazi ba-diozu, aguro zureganatuko dezu aren biotza. Neskak ez dute izaten nai ez adimen kamotzeko mutilik ez-eta koldaŕik.»

Ta iŕi-antzean ari zitzaion :

—Baño batez ere ni asko jostatzen naiz nik «bi paretako» jokoa derizkiotenarekin: bi neskaeri batean aritzea. Ori lan zail xamaŕa dezu. («Ez, ez» —zion Kuŕutako-k). Biak ikusi bear dituzu. Batek begiratzen dizunean areri begitarte goxoa jaŕi; besteak begiratzen duanean, beŕiz, aren txanda. Ta biak batera begiratzen ba-dizute, iñori ez. *La cuestión está...* —zion— biak alkaŕen beŕi ez jakitea ta bakoitzak bereganako uste bakaŕa izatea. ¡A zenbat laŕialdi izaten diran ta zer par egiteko gogoa ere!»

«Baño bein —aŕitu-itxura egin zuan— «trinketea» izan nuan, «trinketea». («Demontre»—Kuŕutako-k). Bein neska batekin exerita nengoala, auŕeko beste bat begiraka zegokidan ta iŕia ezpañetan zeukan nik aldamenekoarekin nere irutegia ain ongi nebilkialako bereari ari nintzaion bitartean. ¡Ta gizajoak ez zekian ontziakin etortzen zan neskameari, prantzesez itzegiteko aitzakiarekin, zein gauzak esan eta nereganatuta nola neukan! ¡Gero ere esan zidan Bidarte-ko

neska arek zein min aundia ematen zion ni nereko neska aren ondoan egoteak!»

¡Kuŕutako-k egiten zizkion aŕitu-itxurak! *¡Qué bárbaro!* Baño bai pozik atsalde artan Xanti-rekin batean. Gauza asko ikasi zituan berekiko. Neskak «onla» izango zituan. ¡Aietxek ziran oloak jartzen ari zitzaizkanak buruan! Kuŕutako-k norbaiten ustea ba'zeukan ta, beartuta ere, Xanti-ren laguntza izango zuan. Oraingoz ez zion ezertxo esango; baño garaiz alderatu ta biak alkaŕekin ibīli zitezkean korapīloak askatzeko. ¡Ura bai pozik!

Ez, ordea, Xanti. Geiegi itzegiñak nazkatu zuan. Txantxetan asi ta ¡noraño kokoak esan zizkion gero! Amoŕuarekin jo ta botako zuan martin-aŕantzalea, txoria ta eŕañua sendo elkartu zitezkean eran. Altxa zan, bion zoŕa Kuŕutako-ri utzi zion berdintzea ta ta agur esanda, atzera begiratu gabe, kaleratu zan gari-pīlako txoria.

XIII

SASIAN ZARATA

Txomin-ek itzaldia irakuŕi zuaneko toki berberan, «La Fraternal»-eko zatirik edeŕenean —ez ain joritua— bazkide guztien biĺera zala, orduantxe doi-doi eman zion irakuŕaldia lendakariak bazkide askoen izenean egindako idatziari.

Len aipatu degunez oso asaŕetuta zeuden bazkun (soziedade) onetako bazkide asko «Unión Artesana»-kin batean egindako Iñauterietan, onek «La Fraternal»-ek baño bere eginbeaŕa askoz obeto bete zualako. ¡An ikusi bear arpegi kopet-iĺunak!

Lendakariak irakuŕi bitartean ixil-ixilik zegoan giza-taldea. ¡Arek ematen zigun bilduŕa! Oraingo ixiltasuna geroko iskanbiĺa bai-zan. Gurekiko, lendakaria pozik arituko zan irakuŕi t'irakuŕi aŕatseko amabiak arte, naiz pitxaŕa-bete ura ustu, baldin asper-asper eginda jendea loak artuko ba-zuan.

Larunbat-aŕatsaldeko sei t'erdiak ziran. Onetan, zuri-zuri eginda, gazte bat altxa zan. Eztaŕiko txistuari atzera bultzatuta asi zan noizbait:

—Beste iñork asi nai ezpalu... ta... *ya que*... neronek «firmatu» deten... auŕeneko... paper ori... asiko naiz ba'. (Ta bat-batean asaŕetuta). ¡Lotsagaŕiyagorik ezta gertatu «La Fraternal»-en aspaldiko urtietan!...

Lendakariak altxata txiliñari eragiñaz:

—Eztiyot iñori kontsentituko buĺaka aritzia. *Libertá pa' hablar, sí; pa' gritar, no.*

¡Orduan bai «gritar» entzun bear izan zuala! Bat-batean bazkide-piĺarik aundiena uluka asi zitzaion lendakariari. Beste batzuek «¡ixo!, ¡ixo!». Len *bule-*

varistas ta *antibulevaristas* izandakoaz geroztik ez zan batzaŕik oŕen itxura txaŕekoa asi. Ala ere, baretu ziran. Baztar batean bi lagun zeuden izka. Kuŕutako ate-ondoan. Lendakaria ere zuri-zuri.

Batek:

—*Que deja hablar.*

—*Ya ha dicho antes tamién que libertá pa' hablar, sí; pa' gritar, no*—lendakariak.

—¡Ixo, ixo!

Izlariak:

—¡Zer *gritar* aŕayo!

—*¡Orden, orden!*

—¡Zer or-den ta emen den!

—*¡Que se callen!*

Lendakariak zutituta:

—Izlariyak itzegin beza ta beude ixilik bestiak.

Ixilunea izan zan ta orduan izlari moko-meak:

—Jaunak, odol txaŕa jartzeko ba'da pentsatu utsakin. ¡Zeñek esan, denbora bateko «La Fraternal»... «La Fraternal» famatubak oŕen bera etoŕi biar zunik! Beti-beti «La Fraternal» gorengo tokiyan egon izan da Donostiyan, «Unión Artesana»-rik izan ez-izan. Iñauteriyak biar bezela moldatzeko eztu iñoren biaŕik izan. Ta aurten gertatutakuakin ¿ez al det lotsagaŕiya izan dala esango? (Suŕumuŕua jendearen artean). ¡Lotsagaŕiya ezik naskagaŕiya! (Lendakariak ixilerazten du jendea). *Dios Momo*-k iya tira-bira egin zun eta orduan dozena pare bat kristau ito ba-zan ¿zeñen kulpa izango zan? (Txalo ugariak jo zizkioten izlariari). Gure kaŕozak danetan itxusiyenak eta «Unión Artesana»-k baño bi gutxiyo. Gu emen an baño askoz sosiyo geyo ¿zer egiten da gure diruakin?

«¡Ori, ori!», naiz abots edeŕez esan, doi-doi nabaritu zan an sortu zan zalaparta ta iskanbilakin. Beren

exeritokitik altxata nasteka asi ziran izketa bizian. Lendakariak ezin ixilerazi jendea. Ba'zirudian ez zutela aspertu bear. Jo ta jo lendakaria, batzuk «ixo»-ka, besteak kaŕaxika, ate-ondoan ez zan Kuŕutako-ren aŕastorik.

Ordua auŕera, lendakaria gogotik saiatzen zan ixildu zitezen. Geientxoak baretu ziran. Lendakariak itzegin nai ta batzun-batzuk uzten ez. Noizbait ala esan zuan :

—Gure kaŕozak etziran «Unión Artesana»-koak baño bi gutxiyo, baizik bat gutxiyo; oŕen truke *Dios Momo*-k edozeñek alako bi baliyo zitun ta oŕetxengatik biartu giñan bat gutxiyo egitera. Oraindik eztu iñork aitatu emen aŕen edertasuna. Ta tira-bira egiteko aŕiskorik etzan izan...

—Bai, jauna —askok.

—Ezta ere, eztu iñork aitatu *Mirador de los nigrománticos*...

—Bai, ta ola autsi ta Xanti Zalakain buruzpera erori. Katalejuakin baño askoz obeto ikusi emen zitun izaŕak, alajaña— izlari moko-luxeak.

—Guk eztegu ez lotsagaŕirik ez naskagaŕirik egiten. ¿Diruakin zer egiten degun? Biar bezela gastatu, naiz biar genduken guztiya ez izan...

Batek :

—*Malo*, lau lagun t'iru talo.

Orduan diruzaiak asaŕeturik :

—Gure maya ondradu
ez falta t'ez sobratu.

Esta sosiedá se paga al contao las fauturas y cuentas. Si era la invidia tiña, cuántos tiñosos habría.

Izlariak :

—Aizu, Ama Birjiña Eŕemediotakua ¿ba' al dakizu nun don? Tolosa-tik beraxio ta Irura-tik goraxio. Erderaz ikasteko Pasaya-n gau bat pasatzia asko dezu.

—*¡No metes custiones ensima una otro!*

—*¡¡Fueraaa!!*

—*¡Viva la «Unión Artesana»!*

—*¡Abajo «La Fraternal»!*

Orduantxe zarata goŕia jaŕi zuten. Txistuka ere asi ziran. Lendakariak ixiltzeko ta iñork ixildu nai ez. Txiliña autsi zitzaion. Zutik jaŕita, bi besoak zabalduŕik, pixka bat baretzeko aŕenka eskatzen zien. Kalean zijoazenak aŕitu egiten ziran «La Fraternal»-eko goian zer ote zebiltzan.

Ta zarata aren erdian batek atera zuan burua beste guztien artean, bultzaka ba-zan, ojuka ba-zan; ta lendakariak berak egin-aal ez zuana, arek egin zuan...

Anton Zuŕut-ek bere txamar beltzakin deadarka jaŕita beregana biurtu zituan buru guztiak. Ala ari zan:

—Esan besaigute nai ba-dute arkitetorik onenak egin situstela «gure» kaŕosak, beste iñork baño diru geyo gastatu «gendubela»; oyek gustiyak egitzat emanda e' («¡Gezuŕa!» —batek) eŕiyari atsegiña eman biar zayo ta eŕiyak estu atsegiñik izan «La Fraternal»-en lanakin.

Orduan jo zizkioten lenbiziko txaloak Anĩon-i. (Diruzaia gizon moxtaka bat zan ta begiratu zoŕotzaz begira zegokion Anĩon-i eten gabe. Diruzaiak ba'zekian zergatik eta baita Anĩon-ek ere).

—Eŕiya beste juesik esto ausi ontan eta eŕiyak nola artu dun ederki dakigu emen gauden denak. Oraindañoko gustiyan «La Fraternal» isan da Donostiyan sosiedadik bikañena jayak antolatzen ta sori-

yoneko·Junta au asi zan eskeostik esta gausa susenik etxe ontan. (Beŕiz ere txaloak. ¡Diruzayaren arpegi zitala!) Baño emagun noisbait gausak susenduta eŕiya aguro astuko litzakela, ¡baño ori es da okeŕena! Gu emen gaude, Iñigo-kalian Sanpansart-aŕatsian ederki «sanpatu» giñusenak, —Zuŕut-ek beintzat ala zion— geren buruak naiko laŕi ikusi genitunak eta guri «satisfasiyorik» eman es? (Diruzaia gero ta geiago begira. Anĩon-ek ez-ikusia egiten zion). ¿Aŕitzekua al da emengo sosiyo geyenak etxe au usteko asmotan egotia?

—*Bien, Anĩon* —ta esku-zarta beroa jo zioten guztion artean.

—«Gure» sosiedade ontan ikusten diran gausak...

Altxatzen da diruzaia suminduta ta kaŕaxika esaten dio :

—*¡El que no son sosios, fuera!*

—*Saber no se quita nada, hombre.*

—*¡¡Fuera!!*

¡Antxen sortu zan istilua! Lendakariaren aginduz etxe-zaia asi zitzaion bultzaka Anton Zuŕut-eri. Bazkide batzuk ere bai. Besteak, ordea, tira xamaŕetik, ez joateaŕen. Batera ta bestera an zebilen Anĩon gizajoa naiko bultzaka artuz.

Xanti-k ala dio :

—Toki onian jaŕi aiz fandangua jotzen.

¡Aiek ojuak! Nolabait ateeratu zuten ta oŕa astorik onena zintzaŕi gabe utzi.

Gizajoa maladian beera asi zala ala zion jantziari begiratuta : «*No es cosa más rabia lo que me da, una ropa limpiao y planchao y roto... Todos los pamparrones así se pasa. ¡Cuántos hablan el que no tienen que hablar!*»

Ordea, eskaratz-ateetara iritxita zankoa altxatuz :

«Eun d'eun, beŕeun
¡Biba Astigaŕaga!»

Ta an joan zan.

Goiko bizitzan ekaitz izugaŕia zebīlen. Sīlari adaŕa kendu ta aidean bota zuten. Eskeŕak, motza izanaŕen, diruzaiak burua makurtu zuala; bestela garbituko zuten. Ta burua makurtuz batean kalerakoa artu zuan arek ere. Makīla geiago kentzen asi ziran ta alako batean ¡plast! Manterola-ren irudiari kopetan jo zioten zartakoa ta leiaŕa zartatuta eguzki-antza artu zuan izpi ta guzti. Bide batez Ipaŕagiŕe-ren irudiaren ertza jo zuan makīla berberak ta au beŕiz dingilika asi zan gitaŕa magalean. Pi y Margall auŕekoz atzera jo ta goitik beera erori zan. Argi-ontzi bakaŕa ere ez zan osorik gelditu.

Zozoa zan, birigaŕoa zan,
sasian zarata zan.

Beste batzuek naiago zuten zenbait gauza osorik... artu alde egiterakoan. Alaxe eskutatu ziran libururik edeŕenak. Geroztik ez zan martin-aŕantzalearen aŕastorik ikusi.

Ormak ezik zutik zeuden gauza guztiak luŕa jo zuten, ¡ta ormak jo ez zuteneant Ildegia zirudian. Adaŕak beso-ezuŕak ematen zuten.

Onela ustu zan jendez etxe ura ez geiago iñor etortzeko. Ta «La Fraternal» zaŕako bazkideak «Unión Artesana»-ra joan ziran, Zanpanzart-aŕatsean ukabilka ta makilka ibīli ziran besoak alkaŕekin maiteki laztantzera...

XIV

SANTO DOMINGO - ITURIAN

Orduan Irutxulo-n bi ituri ziran, erikoak, San Telmo-kalean : bat Santo Domingo-enparantzan, bestea San Bizente-elizako «koxketan».

Bi ituri orietara bestelako jendea etori oi zan. Enparantzako iturira, batez ere, aldameneko soldaru zarak; ogia egosteko labea antxen ondoan zeukaten.

Baita ere ituri onetara inguruko neskatxak etori oi ziran; txanda eskatu, sulak lurean jari, bertan exeri ta ukalondotik itza zeriotela ere, zai egoten ziran, izketan goiak eta beak nastutzen zituztela.

Koxketako iturira joaten ziranak, guztiak doi-doi eritarak ziran : Apalategi-eneko okiñak eta beroien idekoak, eta bertako etxeegintzetan aritzen ziran piontzakoak.

Bai soldaruek eta bai eritarek ura eramateko alako gurbil luzeak izaten zituzten; gurbilak erdian zabalak ziran, lodiak. Mutur batean exerita, bestea altxatzen zitzaion gurbilari. Eta gisa onetara exerita, «Iriyarena»-edo txistua jotzen, beatzekin mutureko ol zabala jotzen zuten. Eta onelatsu egoten ziran zai.

Madalen enparantzako ituriko tartekoa zan, Plaza Beritik bertago zeukanez geroz. Aratsalde artan soldaru ta neskatx tarteko naste artan sularen gañean exerita zai zegoan.

Anton Zurut eta Joxe Ogi San Telmo-kalearen barena batetxoan etoriak zirala, Madalen-en ondora joatea oru zitzaien, destañaz artuko ba-zituan ere.

—Agur, Plaza Beriko eregiña —bota zion Zurut-ek Madalen-i.

Baño Anĩon-en aguŕa nolakoa izan zan jakiteko, irakurleak beste zerbaiten dakiana bear luke.

Donostia-n bost *eŕegin* izan izan ziran sasoi berean : Kaieko eŕegiña, Loyola-ko eŕegiña, San Martin-go eŕegiña, Ategoŕieta-ko eŕegiña ta Aŕandegiko eŕegiña.

Batzuk beren edertasunaz jartzen zituzten eŕegintzat; besteak eŕian gain-gañekoak ziralako. Norbere auzoan oso aipu aundikoak izaten ziran. Donostia-n beti izan oi ziran neska polit'askoak. Aspaldiko esaera zaŕa zan : «Zein emakume edeŕa, donostiaŕa dirudi».

Donostiar eder batzuk oso ezagunak izan ziran Donosti guztian ta iñolazko erderazko izenak jartzen zizkieten : *la Dama Imperial, la Polla Real, la Divina Pastora...*

Orain irakurleak ba'daki Anton Zuŕut-ek Madalen-i «Plaza Beŕiko eŕegiña» esan zionean zer esan zion.

Bai Madalen-ek bere aldiko eldu :

—Agur, «Pixepel»-eko Kuŕutako (Anton «Pixepel»-en bizi zan).

—Ni e'naun Kuŕutako; ni naun *Zuŕutako.*

Aitortu bear degun gauza auxe da, Madalen-i Anton nazkagaŕia ba-zitzaion ere zer paŕegin eman ziola «Zuŕutako» arekin : «au astua —egin zion— asto guztik ez dira Igeldo-n».

—Aizan, Txomin-ta or ikusi dizkiñagu... —zion Joxe Ogi-k.

—¿Nun?

—...Bretxa-n baŕena zaldiz zijoazela. Lenguan oso itzaldi polita egin emen ziñan. Zuen etxian pozik egongo zerate, noski. ¡Ik daukan suertia! Beŕiz ere neska edeŕa egongo aiz; Barbara-eneko sardin-zar eŕiak janda baño obeto bizi aiz. ¿Pozik al ago?, dantza ezan ba.

—Oŕa, kiloko ogiak artu ainbateko aboarekin esan —destañaz erantzun zion Madalen-ek.

Ta ixkiñeko aulkigile prantzesa ondotik zijoala, neskari begira, ala deitu zion Zuŕut-ek.

—*¿Musiú, le gusta la morena?*

—*¡Oh, bonita muquer para mi!* —besteak.

Ta Madalen-ek zionez onek ere belaŕieri kosk-egin ainbateko aboa omen zeukan. An joan zan «Fransua» aulkigilea.

Ta Zuŕut-ek «gaixtua sera, Madalen» esan ziolako oni ere :

—Zu ere ba'zinjuazke Miranda-ra, sulakin ura eramaten ari diran ezkeroz, abuan ura eraman dezakezula. (Ta txanda zetorkiola ituŕi-ondoan jaŕi zan).

—¿Ta iri abua txikiya daukanalako ematen al diten sula?, eo txonkatilak nere ukabila añakuak isan eta nai aña pixu gañian jaŕita eroriko es aiselako?

—Utsa litzake sulakin ibili-biaŕa noizian bein moskoŕakin egotia suertatuko ez ba-lizaiguke.

Ango sula-jendea pozik zegoan bateko ta besteko ziriekin, soldaru batek edo bestek aieri paŕez ikusita iŕia ezpañetan ere. Ta urari aŕetarik ez ta ango jardunari bai, ura gañezka asita ¡aren ojua! Sula buruan bat baño geiago ziran geldituak.

—Aizan, Madalen, ez adi asaŕetu —asi zan Joxe Ogi— oŕen sul-aundiya ¿zergatik ematen diten iri, kalera gutxiyagotan ateratziatik? ¿eta oŕenbeste ur nola eraman dezaken?

—Eta zuk ainbeste ogi ¿nola jan dezakezu? ¡Auxe da legamiya!

—Esango diñat. Asten naun ogiya ta gazta jaten. Gazta bukatu baño len ogiya aitzen ba-zait, beste ogi-puska artzera biartuta egoten naun; uŕena gazta gutxitxo ta beste puska jan-biaŕa etortzen zait, batez

ere gazta Idiazabal-goa baldin ba-da. Ta gazta zaŕa dalako ta Apalategi-eneko ogi koxkor biguña dalako, neuŕiyak eztizkiñat beñere elkartzen ta bete-bete egiñ--arte e'naun gelditzen. ¡Eskeŕak Patxiĺardegi-eneko ardoari!

—Mau, Joxe Ogi —esanda suĺa jaŕi zuan ituŕian txanda etoŕita.

Ta Joxe Ogi kantari asi zan. Ta zalako kanta artan *frondas* esan beaŕean, *el aroma de las fondas* ari zan iñor konturatu gabe ta Madalen-ek atzea ematen ziela. Uŕena.

—*E, Anĺon* —lepazamaŕean jota— *en la fonda buenas cordornises suelen estar.*

Suĺa beteta buru-gañean jaŕi ta abiatu zan Madalen. Joxe Ogi-k iñolazko bide-uztea egin zion itxuretan. Ta Madalen zerbait iŕi-egiña zala,

—¿Pozik al ago?, dantza ezan ba'— esan zion.

Etxera-bidean zijoala lagundu egin zioten arako kale-muturaño ibiĺi bitartean Joxe ta Anĺon adaŕa jotzen ari zitzaizkiola. Bein ezkeŕ-eskubi jaŕita erdian artu zutenean —*anima apartatuta*, Atotxa-ko astoa bi olo-zamukaen erdian bezela— utsagatik ez zuan suĺa aien buruetan ustu. Ta an gelditu ziran biak, Madalen buru-gañeko tontoŕarekin galbai zaŕaren zuloa baño lasaiago San Telmo-kalean baŕena zijoala.

Onela agurtu zuten neska sasoiezko ura :

Joxe-k :— Ai Madalen, Madalen.

Anĺon-ek : —Madalentxua.

Joxe-k :— Ire biĺa nebiĺen.

Anĺon-ek :— Eta ba'nua.

Ta joan ziran.

Madalen Plaza Beŕiko etxera irixtean, Anita-k edo Katalin-ek zerbait esango zioten orain ere. «Eŕotan beta ta bidean presa».

XV

BIOTZ-NEKEA

Txomin bakarik zegoan lan-gelan. Aita atera-beria zan. Ta, edo eskuari atseden ematearen ala zenbait oldozpeneri buruan toki uztearen, oitzoa (idatz-ortza) utzi ta ukalondoa tinkotuta, burua ezkereko eskuaren gañean jari zuan.

Gelan ixiltasuna zegoan. Etxekoak, ala ere, nabari ziran. Katalin, etxekoandre-ordea, ta Madalen «txoralda», arek esan oi ziona, ari ziran bien arterako :

—¿Ez al den otzik kolko zabal orekin?

—Ez det ezertxo geyago jantzi biarik. Loriya daukat soñekua, barengua ere loriya...

—¡Aaa! ¿Lori-lori ua arta'? Oraindik amak esanak goatu biar zaizkin lau bider. ¡Eru ori, antxen ori, ez besteñ ori!

—¡Ni e'naiz erua!

—Obe, obe, zintzua izanda e' naiko lana dago bizitzen. ¿Ba'dakin ze'ordua dan?

—Bai, egingo det.

—¡Egin egin biar den; aitu utsakin ez gaude ondo!

Baño Txomin-ek euria ariko balu baño areta geiagorik ez zion jartzen aldameneko ezertxori ere : barenen zerabilkian arek korapilloa. Aien izketan-ariak ez zion nasterik ekartzen, naiz-eta Madalen-ek larutik atera etxea. Lanak egin arteko bare-aldia izan zuan; orain, ordea, barengo kardaba aren burundarak kezka beritu ta goritu zion. ¡Mutil gizajoa, orelakorik...! Ta illeak illea aldean duala, zenbait illabete atzerako oroimenak aztertu ta milizkatzen zituan bein eta beriro. ¡Ezer ba-da ta biotza! Ontzi ori orera ezazu, adiskidea.

Orain uŕengoan Txomin ondaŕean izan zanean lengo tankeran *Chomin* ikusi zuan idatzita, bigaŕen aldiz. Ta Txomin-ek Kandi ta ondaŕeko idazkunak elkartzen zituan, naia arengana zijoakiolako, gero ta atsegiñago bai-zuan. Bera ba-zan, ez litzake gaizki, alegia; eta bera ez izatekotan, nor izan zitekean?

Ez da ezer gazte bat geiago kezkatu lezakeana onelako edo alako norbaiteri gogokoa zaiola esateak baño, noski, nor-nor dan esan gabe. Ta oŕez gañera Txomin-ek Kandi-ren gogoa zeukan. Idazkuna berarentzat jaŕia zala ez zuan al-oterik bigaŕen txanda onetan. ¿Neskaren batena al zan? Ez jakin ba'; beste aldez ezetz esan zitekean. Azkeneko aldian auxe oartu zuan: oin-atzak uretatik etoŕi ta uretara biurtu zirala, txalupa batetik jetxi ta ostera sartu izan balitz bezela. Ta oin-atzak txikiak zirala ¿mutilen batenak ote ziran? Ta mutilenak izatekotan ¿zer egitekoa zeukaten berarekin? Oŕetxengatik, kezkak aienatzeaŕen, orain uŕengoan izan zanean, *Chomin* zerizkionaren azpian, *¿Nor aiz?* idatzi zuan berak. Ta eragin ari zala, ain garaiz ta berak txaluparik ikusi gabe nola izan zitekean galdetzen zion bere buruari. Ta eragin jaŕaitzen zuala Kandi-ren itzaldia-aipatzea gogoratu zitzaion. Ongi iruduituko zitzaion, zion. Ta iñoiz baño itzaldia bota izateak orduantxe poztu zuan.

Zutitu zan. Paper batzuk alkartu, ginbala jantzi ta zoaz, joan zan. «Agur» esan zion Anita-ri alde-egiterakoan.

Betiko bidea artu zuan ondaŕerako. Orain, udara zala-ta, begien pozgaŕi zegoan ondaŕa. Udarak «kanpotar» asko ekaŕi oi zuan Donosti-ra ta ondaŕeko itxas-kolko artan busti-aldiak maiz artzen zituzten, naiz guztiak igarilariak ez izan. Donosti-ureta, diru-meta. Erdi-aldeko ondaŕa «kaxetaz» josia zegoan ta

itsasbera zala-ta kaxetak ur-ondora eramanak zeuden eŕenka luzean.

Andik zijoan Txomin zerbaiten egaŕi. Auŕeragoko egunetan ere izan zan, baño ez zion erantzunik arkitu bere galderari. Oraingoan, batez ere, laŕi zijoan. Bakartsu egon oi zan baztar artara abiatu zan, beti bezela, Loretopia-ko (1) baztar artara. Zerbait ikusi zuan. Norbait ibilitako aztarnak begitaratu zitzaizkion. Laŕitasuna biotzean bertaratu zanean auxe irakuŕi zuan: *I ez, zu.* Aztarnak ura-bitartekoak ziran eta atzindu edo ezereztu nairik ibili zan, zana-zala.

Oŕa ba' kezkak beŕitu. Mutila izatekotan «¿Nor aiz?» galderari «I ez, zu» erantzungo al zion? Ta neska izatekotan ¿txalupan ibiliko al zan ortarako? Nola edo ala, neskaren itxura obea zeukan. «I ez, zu» beŕiro irakuŕi zuan. «Zu» oŕek ematen zizkion lanak. Noski, Kandi-ri ika ez zitzaion arituko, bururatu zitzaion. Ta neska izanda ere ¿ez al zitekean beste bat izan? Ez uste. Egia, neska baldin ba-zan, ausartu xamaŕa zala iñoren izenarekin oŕela ibiltzeko eta ez bein bakaŕik. Oŕek ematen zion nekea Kandi izango ez zalakoan; artean Iñauteri-ko izketaldian eŕeztasun-antza eman zion.

Txomin-ek atzerako bidea artu zuan. Gogoz galdetuko zion edozeñeri arlo aretaz zerizkiona. Ez, baña, iñori ajolik bere arlo bakaŕa zana ta, galdetzekotan, iñork ez lioke argi beŕirik emango. Buruari ari ta ari zitzaiola, bi gauza auek artu zituan egitzazkoak : idazkunak berari egiñak zirala ta oin txiki aiek ez zirala mutilenak, «zu»-kako arek ongi-ongi adierazten zuan bezela. Neska ori nor ote dan bego uŕen-

(1) Loreto-bia zan Loreto-ko monja-etxeko bea. Gaur uretan bustitzen dan mendi-puska areri. «Pico del Loro» deitzen diote. ¿Loreto-tik ez ote dute «lorito» sortu?

gorako, zion; alegia burua geiegi nekatzeko bilduŕez. Ta Judua-eneko ondoa gogoratuta, ura izango zan azkeneko kasketa.

Oŕela ari zala ia eŕian zan. Ta pixka bat geroxeago Esnategi-kalearen baŕena sartu zala, Judua-eneko parean zan. Kandi-ren aztarnik ez zan: oartu-asmoak, beraz, utzi egin bear.

Judua ikusi zuan ta orduan konturatu larunbata zala. Denda itxita zeukan ta igandetan, beŕiz, idiki egiten zuan. Suduŕak aŕano-mokoaren antza zeukan; bizaŕa zuria, begiak txikiak.

Juduak mairu-antzeko alaba beltzarana zeukan, oso polita ta mutīla berebiziko biuŕia. Oso gizon atsegiña zan, itzegin-zalea. Eŕiko istorio-mistorioak atzegin zuan jakitea. Ta norbaiten egiteko txaŕen bat aitatzen ba-zioten, onela esaten zuan: «*¡vaya qué cristianos...!*» (¡a zer kristauak...!)

* * *

Orduantxe musu goŕidun eguzkia, egun-argia, itsasoan itotzen zan. Orduantxe Txomin etxe-aldeko bideari lotu zitzaion. Gure gaztea itun zebīlen. Gaztelumendiko ingurua artu zuan egurasteko, agidanean bakaŕik ibiltzeagatik. Kezka ura ezin iñola kendu. Kezka batetik, tokia ta garaia bestetik, oso biotz-nekatua zijoan Txomin.

Eguzkia itsaspean sartu zanean, lertu balitz bezela, azkeneko izpiak ortzi zabalean bota zituan. Txoriak ingelesen īlobietatik igeska zebiltzan. Itsasoko ur zabalari, aŕai-bizitegiari, gaua zetorkion. Orain une bateko zelai urdiñari margo bizia aldatzen zitzaion. Bere oñaen otsa nabari-nabari zitzaiola, Txomin eŕi--aldetik azaldu zan. Emendik mendi-ondoko eŕiaren

oiu ta deiak beko kalean bezin argi entzuten ziran. Ta bidean beera zijoala, telatuak goraka zijoazela ematen zuten. Poliki-poliki, San Bartolomé monja-etxe aspaldikoa ta Adaŕa-mendia, eguzki-galdatan zeudela, itzalak aŕapatzen zituan. Arako tximini beltz arek gizon bat exerita ematen zuan...

Ta eŕiko kaleetan baŕena asi zan, ardotegiz ta sagardotegiz josita zeunden kaleetan baŕena; aŕatseko ordu jakiñetan zaldiak bakaŕik ukulura joan ta gizonak beren etxeetara joateko laguntza bear izaten duteneko kaleetan baŕena.

Kaieko mutil biuŕiak poza ta algara gañezka zerabilzkiten: oñutsik, zanko beltzak agiri, gizon ta emakumeen artetik urduriki koŕika zebiltzan. Ogia, ikatza ta zenbait gauza batean saltzen zituzten dendaetan, etxekoandreak ate-ondoan exerita, lasai, besoak sabelaren gañean.

Txardin-saltzaleak bata bestearengandik aldenduaz biziro zabaltzen ziran eŕi guztian.

—¡Akul, akulaaa...!

—¿Zenbatian?

—Lau kuartuan.

—Jaŕiko nazu merkio.

—¿Zenbatian nai dezu ba'?

—Bostian bi.

—¡Bostian bi! ¿Ostuta daukatela uste al dezu?

—¿Zenbat egin du ba' aŕuak?

—Neri «de balde». Oŕenbeste beŕiketa ez erosteko, kaka jan biarko dute zuen apupiluak. ¡Akul, akulaaa...!

Ta kaŕaxi bixi ura kaleetan baŕena sartzen zan, iges bezela, ixiltasunak ematen zion lekuarekin.

Onelakoxeak ziran Jarana-ko saltzaleak. Zoaz beste mutuŕera ta ara zer entzungo dezun:

—¡Akula bizi-biziyaaa...! ¡Ai, au gauza!

—¿Zenbatian dezu?

—Bost kuartuan, etxekoandre.

—Ene ba', ¿oŕelako aŕai bastua ta preziyo ori?

—Etxekoandre, ni ere alaxen naiz, bastua, bañan oŕengatik baliyua ba'det.

—¿Emango al nazu bi kuartuan?

—Baño ¿ze' karajo, beti asaŕetu biar al det? Biñipin beoŕek erositako aŕayakin ez degu gona edeŕik erosiko. Azken-azkena, iru kuarto.

—Ez, ez, uŕengo batian izango da.

—¿E? Zuaz «al k...» zure diruakin, oŕenbeste beŕiketak egiñazten. ¡Ai, au akula edeŕa! ¿Zéñek náidu?

Ta, len esan degunez, kaŕaxiak kaleetan baŕena galdu ta uŕena alkaŕekin topo egiten zuten.

Garai itun artan giroa aldatzen asi zan. Txomin Plaza Beŕira iritxi zanean, toki itxi artan oraindik aizea epela zegoan. Txori bat, umeak atzetik, kotxu baten uŕen zijoan aŕapatu nairik. Aŕapatu zuan...

XVI

PATROIA

Zelaian, auŕak, aurzaiak eta soldaruak ibīli oi ziran. Txistua jo ta jendeak dantzatu. Aŕatsean Plaza Beŕira, arkupeetari birak eman eta etxera...

Ordea, udaran, Plaza Zaŕeko *Café de Comercio*-n ere jende asko izaten zan, aŕotza. Bolla, Campión ta Ayani dendaetan eŕuz saltzen zieten kanpotaŕeri: euritakoak, eskumakīlak, ureta-janzkiak, jostalīuak, Bayona-ko galtzerdiak, Bayona-ko oñetakoak, Bayona-ko kutxak eta baita ere Bayona-ko urdai-azpikoa.

Donostia-ri aspaldidanik datorkio aŕotzen gogoa. Izan ere eŕia txukuna, itsas-bazteŕean, ondartza ezin politagoa, eŕi-inguruak alaiak eta donostiaŕak berebiziko abegi oneko jende jostakiña izan. Beraz, *turismo* itzarik sortu ez ba-zan ere, arako gogoa ederki zabaldu zan.

Ta ¡eleak dira!, San Martin-ondoko Zezen-Plazan Lagartijo ta Frascuelo-k zezenketa ikaragaŕiak egiten zituzten. *Teatro Principal*-ean, beŕiz, *Compañía de zarzuela con la eminente tiple Dolores Franco de Salas*, zuten. *Teatro Circo*-n ere zerbait ba'zan.

Urumea-ondoko Zuŕiola-n jende apain-jantziaren egurastea izaten zan.

Igandero egiten zituzten gau-suak. Gros-eneko ondartzan, Zuŕiola-tik eroso ikusteko aukeran. Eŕitar batek eskatu zuan *linterna mágica*-ko ikustaldiak egiteko eresi edo musika bitartean. Ta gau-suen ondoren Zuŕiola-n jotzen zituzten fandango ta ariñ--ariñak lotarako ederki galetuta uzten zuten jendea.

Urteko egunik ospatsuenak Iñauteriak eta Dagon-

ilaren amabostgarena izaten ziran. Ta egun onetan, oi bezelako jai ederak egin zituzten urte artan.

Goizetik asi ziran itsasotik ontziak etortzen. Santa Maria ta San Bizente-elizetan meza nagusi joriak egin zituzten. Egun onetan mezetan exeritzeak bi kuarto balio zuan, bestetan bakara ematen ba-zuten ere.

Non-nai musika ta alaitasuna. Kafe-etxeak, beteak. Jendea eruz zebilen kaleetan. Prantzes asko ziran etoriak zezenetara. Ta jan-edan *poliki* egin zutela, ba'zan Donosti artantxe zanko-jokoa ta jostatzeko gogoa.

Egunezko jaiak aspertzeko edo nekatzeko naikoak ez ba-ziran, apal-ondoan beritu egiten zitzaizkieten indar eta kemenak. Ta gogoak eman-ala dantzatuta gero, zezen-suzkoa azaldu zan Zuriola-n txinpartak zerizkiola.

Zezen-suzkoa itxurazko zezena zan. Bi gizonek eraman oi zuten geriraño sartuta ta lau ankaen itxura emanik. Agidanean aspaldian idi edo bei biziduna izaten zan, baño arisko aundia izaten zala-ta, itxurazko zezen txingarduna ibiltzen zuten. Ta txingarduna ezik, bein edo bein danbada ikaragaria bota bear zuanean, barengo bi lagunak alkari estututa lari asko egoten ziran bizkar-gañeko arek lertu bear zuanean.

«¡O, Donosti-ko zezen-suzkoa,
izan zaitez zorionekoa!»

Zezen-suzkoaren ondoren, beriz, *Iriyarena* jo ta arekin bukatu ziran egun artako jaiak.

* * *

Udara oraindik bukatu-gabea, donostiarak asaldatuta zeuden asi ziran esamesaekin. Ardotegietan, sagardotegietan, kale-buruetan, kaietarak eta kaletar-

ak, nonnai ta nornaik beste itz-gairik ez zuten. Ezerk ez zezakean donostiaŕen donostiartasuna geiago txospertu, aboz-abo eŕi guztian zerabilkiten gudu arek baño. ¡Eta nondik etoŕi nor-nor baño geiagoko ura eta Orio-tik! Bai, irakurlea, treñeru-estropada eta aupaka.

Zenbait egunez auŕetik asiak ziran Orio-n donostiaŕak aipatzen estropada-buruz ez dakigu zer-nongo akiakuluekin. Ta donostiŕak gora ta donostiaŕak beera, laŕutu egin zituzten easotaŕak. Baten-batek «an ere amak semeak egiten dituzte» esan zualako, ia jan zuten.

Ordea, ango gaitz-esanak eta gaitz-izanak donostiaŕeri belaŕiratu zitzaizkien ta, esan degunez, auek ere oraintxe bero-bero asi ziran. Emendik arako ere ordain edeŕak bidaltzen zituzten. Egun aietan ez zan aŕantz-ontzirik Donosti-tik Orio-ra joaten. Ez-eta Orio-tik Donosti-ra. ¡Jainkoak «guarda»!

Orio-n, oriotaŕak ziran donostiaŕak baño geiago. Donostia-n, donostiaŕak aŕaunlari obeak. Baño noizbait leia arek autsi bear zuan ta autsi zan. Alaxe bukatu oi dira nor-nor baño geiagoko leiak: atzenean aup-egin ta biak erdira. Ta Orio-tik aup-egin zuten.

Ta sendo egin ere. Ogei mila eŕial jaŕi zituzten ziñaldari edo notario baten eskupean, donostiaŕek beste ainbeste jokatu nai ba-zuten. Oriotaŕen etxeak auŕetik leioak. ¡Treñeru-estropada! ¡Donostia-n bertan! Udara artako jaiak ez ziran bukatu. Onen-onena ate-txokoan gelditu zitzaigun, udazken-auŕetxoan.

Oriotaŕak eta donostiaŕak ixildu ziran. Donostiaŕek erantzun bear. Ta erantzungo zuten. Ezta akatsik ere ez zioten jaŕiko oriotaŕen deiari. Alde batekoak eta bestekoak irain gutxi. Zakuŕak eldu bear duanean zaunka uŕi. Aritu bear duanak jakin oi du zenbat

egiñal egin bear dan irabazteko, galtzen ez ba-da. Aŕaunlariak berak baño, itz eta gar geiago ibili oi du jokatu bear ez duan jendeak. Ala ere oriotaŕen aupa arek une bateko pakea ekaŕi zuan.

Donostia-n ez bakaŕik erantzun, aguro erantzun nai izan zuten ta ba'noa batean ogei mila eŕialak osatu zituzten, patroia ta aŕaunlariak nortzuk izango ziran ez ba-zekiten ere. ¡Alpeŕa eŕotaria!

Beraz, estropada bikaña ikusi bear degu. Orio-n gai zeuden noiz nai jokatzeko, baño Donostia-n doi-doi aŕaunlariak autu ba-zituzten. Ta aŕaunlariena bat eta patroiarena bestea. Donostia-n ba'ziran estropadetan aritutako patroiak, bat baño geiago. Baño oraingo onetan ezin ba' ain eŕaz bat aukeratu. Edo ain apostu aundi ta ugariak egin ta galtzeko bilduŕak atzeratzen zituan, ala norberak baño besteak obeto egitea uste; naiz-eta beste batek ospa irabazi, donostiaŕak etoŕi zitezela lenbizi beintzat.

Aŕaunlariak bai ta patroirik ez zan. Egunak joan, egunak etoŕi, lengo uts artan zeuden donostiaŕak. Lotsa tartetu zitzaien. Berandu astetik kaltea letorkiekean. Txomin-engana jo zuten; liburu onetan esan izan degu Txomin-ek patroitzarako nolako zaletasuna zeukan. Zaletasuna ezik Txomin oso patroi yayoa zan. Baño ezta Txomin-ek, ez zuan nai izan. «¿Noiz ezagutu dezute ogeitazortzi urteko patroia treñeru-estropadetan?», zion. Alegia patroiak zenbait urtez gorakoak bear dutela izan; urteek asko erakusten dutela ta une bateko irabazi-galtzeak eŕezago zoratzen duala gaztea zaŕa baño.

Istilu goŕia zegoan ba' Donostia-n. Toki guztietan beste arazorik ez zan nabari. Txomin-en ustea zeukaten ta uste ez zutena gertatu. Artean aŕaunlariak geldi.

Kofradian batzar bat egin zuten. Eŕiko zaŕenak an

ziran, batez ere arantzaleen artekoak; baita patroi-gai guztiak, Txomin ez-ezik. Azkeneko izketak antxen bukata bear zuten ta, nai ta nai-ez, patroiak andik eta batzar artan bertan atera bear zuan. Norberak naita ezin ba-zan, beartuko zuten zerizkiotena.

Baño ¡uraxe bai arazo gaitza! Iñoiz orelakorik ez zuten ikusi. ¡Bai gizon zetatsuak! «Bildura» itza bota zuten norbait akulutuko ote zuten. Ezta txintik ere. Ta edonor aukeratu ta uraxe beartzeko zeudeneko artan, ora non batek Poli oriotar patroiaren izena aipatu. Aretxek bai Txomin akulutu. Poli izaki Kandi-k Orio-n egonaldiak egiten zituanean zaletu zitzaion ogeitamalau urteko. Ta ordurarte Txomin-ek jakin ez beste aldeko patroia zala. Ta bat-batean aitzakia bururatu ta patroi azaldu zan: Poli gaztea zanez, beste gaztea jariko zitzaion aurez-aure. Ta Txomin egin zuten patroi. Donostia-k, beraz, treñerua osatu zuanestropadetarako.

Erege bateri semea jaiotzen zaionean bezelako alaitasunarekin, edo alatsu, azaldu zan Txomin donostiaren abotan. Donostiarek ba'zuten beren kutuna. Eriek noizpeinka bear izaten dituzte alako kutunak, naiz-eta umeen gisara usterik gutxienean ostikoz jo. Ordukoa ez zuten jotzeko beintzat, mun egiteko baizik eta gero gerokoak.

Donostiarek ez zuten beste gauzarik buruan egun aietan: Txomin zala, treñeru-mutilak zirala ta treñerua zala. Treñeruak ainbatek ezerk eta iñork ez du izketarako gaitzen: branka, toleteak, tostak-eta dirala. Treñerua, biziduna esan liteke. Treñeruak ez du izketan egiten, baño ibili egiten da. Zaldiak kori egiten du, baño jo-ala ibiltzen da. Araunlariek joko dute ta ibili dedila treñerua alik eta laisteren. Treñerua, beraz, —iduriz— nekatu, bizkortu, ajolagabetu, arduratu,

auldu ta indartu egiten da. Treñeruak lezake. Ta oŕengatik, egun aietako saiaketan treñerua legoŕetik artu ta lagun askoen artean eskutik artuta uretaratu zutenean, treñero gajoak atzeraka egiten zuan nekatu-bilduŕez.

Baño bai saiaketan bein asita ederki ibīli ere. ¡Uraxe zan donostiaŕen treñerua!, Donostia-ren izena eraman ta goien eutsi ala erortzen utziko zuana. Ta treñerua legunki iŕixtatzen zijoala, legoŕeko mīlaka begi aŕitu-itxuran, biotza pir-pir pozaren pozez egoten ziran. Auŕe-aldetik geiegitxo sartzen ez ote zan... aŕaunean bear bezela egiten ote zuten... Alaka zoŕotzak ziran beaŕesten, donostiaŕa izatea bestelako ziorik gabe. Ta bitartean, uŕutitxoan, Txomin zutik aŕauna eskuan ta mutīlak jo danak batean treñerua bizkortu zędin. Ta treñeru bizkoŕa, aŕaunak aidean zeudela ere, auŕera zijoan, beti auŕera...

Alaxe oi ziran saiaketak. Auen ondoren zer-esan ugari izaten zan: sagardotegi-bitartean, sagardotegian ta oe-aruntzean. Eŕi osoak ez zuan beste itzegitekorik. Izan ere Txomin eta bere mutīlak erakusten zuten batasuna... urteetan guztiak bat ibīli zirala esan zitekean. Baño oriotaŕak ere saiatzen ziran...

Andik laister ziran estropadak. Txomin zan egun aietan Donosti-ko gizona. Ezin zezatekean autu arek jaŕiko zuan kemena izango zuanik. Txomin-ek bi gogo zituan irabaztekoak; bigaŕena berak ezik beste iñork ez zekian, ezta Kandi-k ere: beretaŕak irabaztea nai zuan ta Poli apuŕ-apur egitea. Beretaŕek irabazteko gogoa ain aundia zala-ta, ezin esan bigaŕen gogoa geiagokoa zanik, baño bai aundia ura ere. Izugaŕikeria iruditzen zitzaion Poli-ren Kandi-renganako asmo utsa. Eta oŕetarako Donosti-rá zetoŕen nor bera aña, buŕukatu naiez, goiaŕo ura... Edo ala iruditu bein-

tzat Txomin-eri oldozpen aieri leku geiegi ematen zienean.

Iñork, mundu guztian, ez du leiarik jokatu Txomin-ek baño nai indartsuagoarekin. Arek bezelako soin edo gorputzak gorde zezakean, lertu gabe, aren baŕengo gogo ta nai kementsuak. Aren osasunak iraun zezakean uralako gogo bizia eutsirik...

Larunbatean saiaketa labur bat eta uŕengo egunean estropada.

XVII

ESTROPADA

Ordubete baño geiago zan jendea Portu-kalean baŕena joan-eta-joan asi zala. Kai-ateak ez zuan «sekulan» ikusi aren giza-mordo bukatu-eziña bere azpitik igarotzen. Lengo beltzura aienatu zitzaion: ez du orain ĩlunabaŕaren argi motelak jotzen; mikelete txapelgoŕiak ez du zergariarekin beŕiketan egiten; gaztain-saltzalearen kaŕaxiak ez ditu urizaiak ixiltzen, alegia gaztain baten gora-beragatik ez duala iskanbĩlik jartzen.

Ez-eta argi purtzil baten azpian ez du gau-zaiak lo-egiten... Goiz asko aŕtxen biltzen ziran txalupa--mutĩlak aŕantzarako. Aien oju ta eskalaproin-otsak karabinero gizajoa esnatzen zuten... aboa zabaldurik. Azpi artatik sartzen ziran eŕian kaieko aŕai-saltzale eŕitalariak.

Itsas-ikastetxeko ikasleak maiz ibiltzen ziran ementxe.

Ekaitz-eguna zanean, aterpe onetan batuta ekaitzaren zuzenbide ta noraňokotasunari antzematen zion aŕantzale-ozteak. Baño oraingo ozte-mordoa ekaitz--egunez neurtu bearko bagenu, Kantauri-itsasoa aŕas erotua ta eŕotik aterea zan, noski.

Ardotegi-zuloak ustutzen asi ziran. ¡Ura zan jendearen emana! An ikusi zitezkean getariar ixĩla, ondaŕabiar luzea, pasaitar jatoŕa; oriotar zabala, erdizka legortaŕa ta erdizka itsastaŕa; donostiar alaia, itsas--txamar urdin ĩlunakin, geŕikoa mutuŕa zintzilik, txapel txikia eskubi-aldera beeratua.

Gero-ta jendeak ematen zion azkaŕari. Estropada-

-garaia orduantxe doi-doi ta atzeeneko mutuŕa kristauaz ustutzen asi zan. Len mordo bakaŕa zana taldetan zatitu zan ta tarteetatik irabioka ba'zijoan laisterka bat baño geiago.

Gu ere Kai-atean ibiĺiak gera. ¿Nork edestu lezake orain Donosti edeŕaren zabal aren ikustea? Ez Helesponto-ko estropadetan, ez Beozi-ko bestelako indar-jolasetan, ez Trazi-n, ez Ejina-n, ez Megaro-n ez zuten iñoiz ikusi Euskadi-ko izbazter maitagaŕi artan zegoan añako edertasun ta aunditasuna; bada gu Portu-kalean jendea ikusten bezela, beste amaika tokietatik etoŕia zan oztea. Zarauts-ko zalgurdiak alkaŕen gainka zekarzkian estropada-zaleak. Uŕutiko tokietatik ere oñez etoŕiak ba'ziran. Itsasoz, batez ere, ontzi-pil izugaŕia etoŕi zan zenbait itsas-eŕietatik. Lengo eŕota-ontzirik ez zan ta guztiak luŕin-ontziak ziran. Ontzi beŕi aiek lengoen aldean askoz azkaŕagoak ziran.

Asi Kai-gañetik eta Eŕegesoro, Katea ta Loreto-peko guztian ikaragaŕizko giza-piĺa zegoan, bai goi-aldean, bai ondaŕean uretaraño etoŕiak. Gaztelumendiari begiratu ta ia ez zan belaŕik ikusten. Santa Klara-n ere orobat, estropadaen aldetik; ikustoki bikaña bai-da ura. Ta Txubiĺo-n gora aŕapatazka, belar tximaeri tiraka, igoak ba'ziran. Andik uŕutiko balizak eta bira-emateak ondoen-ondoena andixe ikusten da.

Oraintxe estropada-unea ez da uŕuti ta antxe dabiltz apostalariak aize guztietara apostuak botatzen. Aŕo dabiltz oriotaŕak. Iñoiz alkar ikusi ez dutenak apostu galantak egiten dituzte, jakiĺerik ez ba-dago ere; an gizon izatea aski da. ¡Zenbat diru esku-aldatuak gaur!

Luŕin-ontziz ta aŕaun-ontziz josia dago Donosti-ko

itxas-baŕena. ¡Antxen daude bi treñeruak! Patroiaren ondoko oial oria duana oriotaŕena da; oial urdiñekoa, donostiaŕena. Irteera-tokiko auŕean urduriki dabiltz bi treñeruak bakaŕik; ez aldez auŕetik nekatzen, besoeri —besoz goŕian— ariñala ematen baizik. ¡Aŕaunlari gizajoak, eŕuki zaituztet!

¡Deiaren turutak otsegin du! Otsa toki guztitara zabaltzen da. Ta irixten dan bezela pir-pir jartzen ditu biotzak. Aŕaunlari ta patroiak baŕen-indaŕez baretu nai izan dute biotza geiegizko bilduŕez.

¡Ortxen bukatu dira aupaka guztiak! Treñeruak zuzenduta balizetara abiatu dira poliki. ¡Ortxen aŕokeri ta ilabetez auŕeko jardun ta geiago izateak! Oraindik ere turutaren buŕunba belaŕi-zuloetan dago sartuta. ¡Ortxen irain, zemai ta jotzeko gogo guztiak! Eskubeteko elur-puska atzapaŕakin estutu ta urtuko bagenu bezela, zenbait egunez auŕetiko esamesa ta gaitz-esanak bat-egindako tantoak turutari ixuri zaizkio.

Patroiak estatxari eldurik daude. Bi treñeruak parean jaŕi dira. Aurki asiko dira. Txomin-ek eta Poli-k estatxa-mutuŕa eskuan dutelarik, aŕaunlariek aŕauneri eragiten diete estatxa teink eukitzeaŕen. Bi zakur —esan diteke— isatsatik elduta laisterka asteko amoŕatzen. Jende guztia begira dagokie begiak itxi gabe, irten-unearen zai. ¡Asi ditezela, badat Ta turutak aizea uŕatu du: *tararriii*. Ikara-aize bolara dabil guztion gañetik. Ixiltasuna dago. Begiak nekatuak.

¡Oŕa, bi treñeruak apar zuriz jantziak! Asi dira. Turutaren azkeneko «puntua» berandu iritxi da. Treñeruak bel-beltzak ematen dute apaŕaren erdian. Ori txanpa ikaragaŕia dabilkite. ¡Ori jotzea! ¡Ai, zer gertatu da! Jendeak ulu izugaŕia atera du. ¡Ene bada, donostiaŕeri zer gertatu zaie!

Àrtean auŕera dijoaz. Nonbait... aŕaun bat autsi. Ta Txomin-en begiratu batez aŕaunlariak bere burua bota du uretara. ¡Àn ez dijoa iñor egurasten! Ta treñeru eŕena auŕera dijoa beti. Mokoz-moko ortxe nonbait bi treñeruak, oriotaŕena pixka bat auŕexeago dijoalarik. Bi aldeetako aŕaunlariak ezin geiagoan jotzen dute. Oial urdin ta oriak dardar bizkoŕa darabilkite. Patroiak egiñalean ari dira. Poli-k gutxi eragiten dio aŕaunari, ain ongi neurtu ditu indaŕak. Txomin-ek beŕiz, treñerua eŕendu zaionez geroz, maiz eragin bear izaten dio zuzentasuna ez galtzeko. Baño txuxen dijoa. ¡Oriek treñeru ariñak!

Gaztelumendi ta Santa Klara-ko bi «puntetatik» igarotzean donostiaŕek txalo beroak jotzen dizkiete beretaŕeri. Aŕaun baten palta guztiek oartu dute. Alako leiaetan eŕukigaŕiak izan oi dira zoritxaŕak kosk eginda berdiñez beera gelditzen diran indarkariak. Ta esku-zarta bizia jotzen diete donostiaŕeri. Zenbait donostiar poztu-edo dira, alegia galduko ba-luteke ¡jakiña! ta alaz guztiz ¿irabaziko ba-luteke? Beste aldez, oriotar bat baño geiago atsekabetuta zegoan: irabazita ere besteak lagun bat gutxiago ta ¡galduko ba-luteke...!

Treñeruak itsaso zabalean sartu dira. Uŕutira gutxiago auŕeratzen dutela ematen dute. Olatuak aundiagoak dira lekorean baŕenean baño. Oriotaŕek lenen artzen dute gorakoa. Donostiaŕak gora, oriotaŕak beera.

Kaietik ez da ezertxo ikusten. Jendeak oparo itzegiten du arpegiz-arpegi. Norbaitek ukabila luzatu du aŕauna autsi dalako. Bi emakume asaŕetuta izugaŕizko iskanbila jaŕi dute alkaŕi tximatik tirata. Ia uretara erori dira biak-ala-biak. Ta beste emakumeak tartetu dirala, gortu añako kaŕaxiak ateratzen dituzte.

Baño goi artatik ikusten da ondoena. Askok urutikuskiñak dauzkate begieri itsasiak. ¡Polita da treñeruen ikustea! Biak «plaza» dutela, aurera dijoaz eten gabe. Aruntzko balizak antxen daude oial goriak keñuka. Bi alboetatik jarai daraikie makiñabat lurin-ontzi azkarak. Keaz beteko dituzte baztar guztiak. Ara, bi pizti, bi basurde igeska —esango genuke— ezin geiagoan itzulka, treñerueri antzemanda; ta alboetako ontziak, beriz, zakur amoratuak aieri jaraika. ¡Ori laisterka nekagaria daramate!

Araunlari gizajoak jo ta jo aurera dijoaz beti. Bildur daude oren gogor asita azkeneraño iraungo ote duten. Patroiak bakarik itzegiten dute. Estroboak soñu garatza egiten dute. Araun guztien artean soñu bakara ateratzen. Araun guztiak batera zuritu egiten dira. Itxas-ura iluna da, sakon aundiko uretan dabiltz. Mendian oriotarek deadarez ari dira apostuak egiten, baño donostiar araunlariek ba'dakite uberari igarita (ubera, ontziak uzten duan ur-eretena) besteak aldean dirala.

Estropadaren bide erdia oraintxe dute. Oriotarak sartzen dira lenbizi balizetan. Legoreko oriotar-jendeak ikaragarizko deadarak ateratzen ditu. Andi pixka batera, beriz, donostiarak asi dira ojuka, ez bai-dauzkate saltzeko beren araunlariak. ¡Ta arigaririk arigariena! Poli-ren ontziak oso nekez bira ematen duala, Txomin gazteak estu-estuan artu ta bira osoa eginda parean jari zaio, biak etorera berdiñean asteko moduan. Poli-k eta Txomin-ek alkari begiratu diote. Legoretik ulu ikaragaria, donostiarena, etori da ur-gañean irixtaka araunlarien belarietara. Oriotarak bildurtu dira, donostiarak bizkortu. Ta abots sendo batez, arauna ezkerean, Txomin-ek bota die: «¡Ekin, mutilak; gurea da-ta!»

Kandi aŕoka aundi batetik ia beera erori da. Antxe dago oraindik zutik, soin guztia aulduta. Bakaŕik, tontor baten gañean, araño joatea nola ausartu dan aŕitzen gaitualarik. Nonbait iñork ez ikustea nai. Aldamenekoaren lotsarik ez nai izatea. Bere begi politak ortzi ta itsaso-urdiñez beteak dauzka. Aŕaunlariak ekiten diote eta neska aieri begira. Aizeak buruko ile edeŕa tilingatzen dio...

«¡Ekin, mutilak!» Gezuŕa dirudi itz batek noraño-ko eragin-indaŕa daukan. Aunatuta dauden indarkariak bizitu ta amairu aŕaunak auŕetik asi zaizkie amalaueri, askoz ez ba-da ere. Orain ia batean artzen dute olatua gorako, donostiaŕak lenbizi. Len patroia igotzen zan azkena, orain lenbizi. Legoŕeko jendea urduri-urduri dabil nor auŕetik datoŕen. Kaiean auŕeko tokiak aŕapatu dituzte beŕiz. Luŕin-ontziak kea eŕuz botatzen dute. Bi itxurazko basurdeak auŕetik datoz. Aŕaunlariak lan eŕaza dute, baño gogoŕa.

Ba'datoz legoŕerantz. Ez da eŕaz emendik auŕean zein datoŕen antzematen. Ikusmenak itsasoan okeŕeko usteak eman oi ditu. Olatuak asko esan nai du, baño ez dira eraz etortzen. Alaz ere, itsastaŕak usmatu dute ta donostiar luŕin-ontzi guztiak txistu biziaz zarata ikaragaŕia jaŕi dute. Legortaŕek ontziak ezagutu dituztenean poztu ta txaloka asi dira beren aldiko. Donostiaŕak ipaŕetik datoz (Gaztelumendi-aldetik); oriotaŕak, baxotik (Santa Klara-aldetik). Alaz ere, asko zalantzan daude, alde batetik aruntzkoak ematen dute auŕean eta bestetik ere bai. Gero ta bertago daude.

Kaiean begitaratu dituzte treñeruak. Begiak zoratu itxuran, deadar ta oju bildurgaŕiak darabilzkite. Mutil batek, erortzeko aŕiskoan, telatu baten gañean dantzan «suelto» egiten du. Oraintxe treñeruak bi «puntetan» sartzeko zorian daudela ta bi aldeetako legor-

tarak donostiarak aurretik datozela igari dutela, txaloka ta uluka asi dira kaiekoekin batean. Emakume batek, ukabila erakutsiaz, zakurkeriak esaten ditu oriotarentzat ta gizonen artean bakarik entzun oi diran itz zatarak.

Artean araunlari gizajoak ixilik dagite beren lana, araunak atzera, araunak aurera. Treñeruen saiets luzeak batean sartu, batean atera. Ura bare dago emengo aldean. Treñeruak zuzen dijoaz elburura. Donostiarek treñeru erdia eramaten diete oriotareri ta tarte ori ezin da iñolaz ez aunditu, ez gutxitu.

Donostiar jendea pozik dago. Guztiak zai daude azkeneko unean zer gertatuko dan. Jotzen dute donostiarek, baita oriotarek ere, ta arabetearen aldea ezin kendurik, sartzen dira bi treñeruak balizetan. Donostiarek araunak altxa ta oriotarek ere bai. ¡Araun bat gutxiago donostiaren treñeruan!

Araunak erori ziran eta baita araunlariak aunatuta etzan. Treñeruak araunik gabe aurera dijoaz ta patroiek birakoa egin bear izan dute ondarera ez joateko.

Txomin-ek begiratu dio Poli-ri ta Poli-k ez du burua jaso nai izan...

—I, ertilari yayo ori, garaipenaren irudia marmo-ariz, brontzez ala mar utsez irudikatu gogo dekanean, ez ezakela emakumerik jari ta jakin ezak txapelduna izatea koroiduna izatea baño geiago dala. Jari ezak araunlaria, bai, araunlaria; ezkereko eskua araunaren mutur-aldean, beste besoa altxa egiñez, bien giarak austeko bilduñez, begiak gora...

Aratsaldean donostiarak besterik ez zan Donostia-n : joan ziran oriotarak, joan ziran pasaitarak, joan ziran ondaribiarak, joan ziran guztiak. Estropadak ikusita alde-egin oi du gure itsas-jendeak.

Garaipena ederki ospatu zuten Irutxulo-n. Txomin

goreneko maĺan ibiĺi zuten. Jarana-etxaidean dantza bikaña atera zuten txistu ta guzti. Dirua eŕuz irabazi ta edanegiak bat baño geiago ba'zebiĺen. Jarana-koak, berez ojuzaleak, izugaŕizko deadar ta kaŕaxiak zebilzkiten. Antxen, tinakoen ondoan, uraren ertzean, eten gabeko ariketa ari zuten. Antxen ardo ta txardin-usai nastua.

Txibiriskoak asi ziran dunbaka eta ez gutxi. Eŕia erotu zan. «La Euterpe» aŕatsalde guztian ibiĺi zan kalez-kale jo ta jo. Aŕatsean, beŕiz, Plaza Beŕian jo zuten. ¡Ai ura naspiĺa! Uŕena zezen-suzkoa. Txingaŕa zeriola irten zan arkupetik eta jendearen tartetik bultzaka ta jiraka zebiĺela, berebiziko zalaparta sortu zan Plaza jendez beterik zegoala. ¡Donosti-ko zezen suzkoa!

«Damatxo gazte ta galái fiñak
alkaŕi adi bat ezin egiñak
arkupetan
kiriketan
¡ai, zer alegiñak!
Zezen-suzkoa ba-da auŕean
iges-egin nairik asmoan,
zeren laŕi
diran jaŕi
elkaŕen ondoan.
¡O zezen pizkor txingar jariyo,
zenbat kontu zure meriyo!»

Ta zezen-suzkoak iraun bitartean, zakur bat balkoi batetik zaunka egon zan ibiĺi guztian.

¡DONOSTIA!

XVIII

UDAZKEN-EGUN BATEAN

Udazkena urte-sasoirik edeŕena izaten da Donostia-n. Ez da udara, ez-eta negua, bai bien artekoa: ez du udararen bero kiskalgaŕia, ez-eta neguaren otz mingaŕia. Landa-ibaŕak xamur ageri dira. Eguzkiak uŕe zaŕaren itxura dauka. Nik ez diet galdetu nere irakurgaietako maitaleeri biotzeko lera ori noiz-eta biziago nabaritzen duten; baño udazkenean egingo nuke, batez ere alaitasunera baño itundasunera emanagoak ba-dira. Udabeŕiko maitasuna alaiagoa da, zabalkoŕa; udazkenekoa, gotiĺuna ta sakona.

Udazkenean uŕutiko gauzak gogoratzen zaizkigu. Ernai-ametsak ugari etortzen zaizkigu burura. ¡Alako zera! Geronen baŕuan sartzen gera ta asegabeko naiak gurekin ditugula, alkartu ta bat egiten degu. ¡Aiek paa... gozoak! ¡Geren biotz gaxoa!

Osto gaxoak ere goŕituta zintzilik egoten dira adaŕetan ta noizbait bizitzari agur esanda, buruko zentzua galduta, bai-ta-ez, bai-ta-ez, erortzen dira. Goŕia zana beltza biurtu da. Aizea etoŕi, erabat artu ta zuŕungiĺoka an daramazki. Uŕena neguko eluŕak estali ta akabo.

Baño, ez, uŕutiegi joan gera, udazkenean geunden, eguzkiak eztia daukanean. Udazken artan, bada, asegabeko naiakin paa...ka ari zan Txomin gozoro. Gazteak ba'zuan guztia ta guztia ezerez. Txomin-ek itzal aundia egiten zuan Donostia-n, batez ere estropadak irabazita gero: ezpañak iŕitu, txapelak kendu, ateak idikitzen zizkioten. Txomin-ek eŕi guztia goratu zuan eta eŕiak Txomin goratzen zuan. Txomin-ek omen eta ospe-ituŕitik abo-beteka edan zuan.

Baño oneraño irakuŕi duan irakurleak —eskeŕak demazkiot— ba'daki Txomin-en «zer» ura. Gero-ta bizitu zitzaion lera ura. Len ondaŕeko joan-etoŕi aiek kezkatu ba-zuten, orain aunditu egin zitzaion korapiloa askatzeko naia. Ta Poli tartetu-edo zala, alako grin batek eldu zion.

Txomin-ek bere baŕena maiz azterkatzen zuan. ¿Berak maite al zuan Kandi? —galdetzen zion bere buruari. Itxuraz bai— erantzuten zuan. Beintzat ura gabe ondo egon-eza nabari-nabari zuan. Beraz, beaŕekoa zuan bereganatzea. ¿Eta Kandi, bere aldekoa al zuan? Baita, itxuraz ere. Azkeneko alkaŕi--begiratzeak esan-nai aundia zuten, ez da zala iñoren gogo ona begitarte onaz adieraztea. Baño on aundi baten zai gaudenean, edozerk bildurtzen gaitu. Agidanean begiratze aiek beste norbaiteri egin lezazkiokean... Poli-k berak —¡aŕanoa!— ¿ez ote zituan ikusi auŕez-auŕe Kandi-ren begiak?

Ta gazte gizajoaren ametsak auts eginda, esku--utsik arkitzen zan. Orduan aldarte txar batek gogaketuta uzten zuan, makalduta egoten zan. Ta ala izan oi dira maitaleen zalantzak. Beste edozeñek argi ikusten duana, aulduta, indar gabe etortzen da beren begietara. Artean besteena zearo jakin nai, besteak oparo eman bezate, ta gu uŕizaleak. Izan ere ezerk ezin lezake lotsa aundiagorik eman, guk geronek geren naia erakutsi ta aŕitu-itxuran erantzutea.

Ta Txomin beŕiro ondaŕeko arazora biurtzen zan, artan indar aundia zualakoan. Neska zan zaletu zitzaiona. Ta bide ortatik zeŕaikiola, ostera begiratu--arazora etoŕi ta oraingoan garaile ateratzen zan: bi egunean, toki ta garai berean topatzea... ezpairik ez zuan.

Alakoxeak izan oi ziran Txomin-en azterketak:

naiko bai-ta-ez ibilita gero, azkenez bere artan... baietz. Txomin garailari izateko jaioa zan. Ordea baietzko ustea bilduŕarekin nastuta zetorkion. Oŕa ba gure gazte lerdena Kandi-ren aizez nola makurtzen zan...

Askotan ere estropada irabazi-izatea gogozkoa zitzaion, alegia Kandi-ren begietara goiko tokitara igoa izango zala. Baño uŕena bere burua goregi jaŕi ez ote zuan, lotsatu egiten zan aŕotuta ez ote zebilen. Ta zalantza artan azkenik Poli-ren aldetik arloa erabakita, ondo baño obeto ez al zegoan areri eman zion etxera-bidea?

Txomin-en ustez neskaganatu baño len izan bear liraken gauza guztiak izanak ziran; berekiko buru--austeen garaia ederki joana zegoan. Ta ordurarte ez atzera, ez auŕera, egon ba-zan, oraingoan auŕera egingo zuan ta uŕengo egunean, auŕeko bi egunetan bezela, Kale Nagusian ibiliko zan ta Kandi ikusten ba--zuan, arengana joan ta zerizkion ondoena itzegingo zion, itxura kenduta lenbizi; baño nai bezelako aŕera egiten ba-zion, arek emango zion indaŕarekin, xamuŕetan xamuŕenak esango zizkion.

Uŕengo eguna etoŕi zan. Txomin, estropadaren garailaria, neska baten menpekoa zebilen. Aŕatsean ibilitako bururaketa guztiak goiz-argiak ezereztu zituan. Gaueko irudipenak eguna etoŕi ta ezerez. Ilunpean ustetakoak, egunez itxurarik ez.

Itzegin-bear utsak bilduŕa ta lotsa ematen zizkion. ¿Zer esango zion? ¿Nola asi? Len ain eŕazki Plaza Beŕian itzegiña, orain nekezko egitekoa zuan. Len, noski, ez irabazi, ez galdu; orain, ordea, bat edo beste: zoriona ala zoritxaŕa. Bildur zan okeŕeko bidetik sartuko ote zan. ¡Ai, Txomin, biotzak aŕaunerako besoa auldu zion!

Goizeko bederatzi t'erdietan atera bear zuan Kandi-k Santa Mari-ko elizatik eta Kale Nagusian baŕena etxera. Txomin Apaiz-kaletik aldean jaŕi zan —andik sartu bear bai-zuan neskak— ta bein eliz--ateetatik ateratzen ikustean, arako asiko zan, bidean topo egiteaŕen.

Noizbait garaia eldu ta, beste askoen tartean, Txomin baztaŕeratu zan ta bertan xamar topatzea nai zualarik, aldizka egon, aldizka ibili egiten zan bidea neurtuz. Albait ez zezala oartu berta'arte, abian asita alkar ikusten zuten arte; ez Apaiz-kaletik uŕuti, aŕera onik ez egitekotan bide labuŕa naiago.

Otz-giroa zegoan goiz artan. Kandi oso polita zetoŕen, lo-eginbeŕi ta garbitu beŕiko arpegiarekin: mantila buruan, meza-liburua eskuan. Txomin abian asi zan ezkeŕ-aldetik eta oraintxe alkaŕen aldean zeudela, eskubiratu zan bat-bateko ikustea ta alderatzea balitz bezela.

—Agur, Kandi —alai-itxuran esan zion.

—Agur, Txomin.

Auŕez-auŕe zeudeneko une ura laŕiena izan oi da alako topo-aldietan. Irabazi-galduak oŕetan erabakitzen dira. Edo alkaŕekin etoŕi ala banakako bidea artu. Xanti-k ederki zekian ori.

Txomin-ek itzegin nai zion:

—Eskuko kate ori polita dezu —esan zion josta--antzean.

—Ez, eŕosarioa da —Kandi-k.

Xanti-k oŕetan Txomin-eri eramango zion, beste edozertan au aña ez ba-zan ere. Asiera txaŕa eman zion, beraz, ta Txomin moteldu zan.

Baño Kandi-k lagundu zion:

—¿Nere izenik ba' zenekian? —ta tarterik eman gabe— Zurea ¿nork ez daki?

Oraintxe alaitu zitzaion baŕena Txomin-eri, bere buruaren jabe egin zan.

—Zure izena —polita ala ere— alako egun jakiñez dakit. Bein galdetu ta esan egin zidaten; geroztik, noski, ez zait aztu, aztuko ere.

Txomin pixka bat eskubiratu ta ibiltzeko asi zan, naiko tartea utzita. Kandi ere ezkeŕera asi zan...

—Ez izena, ez bere jabea...—poliki zijoazen—¿Eta zergatik aztu atsegiñezko gogoratzea baldin ba-zait?

Txomin-ek iŕia ezpañetan begiratu zion. Orduan bidearen laburtasunaz atsekabetu zan, baldin pozaren--pozez zegoala oŕenbeste esan ba-genezakean.

—Izan ere atsegin ori gero ta aundiagoa zait.

Ta Kale Nagusiko argitatik Apaiz-kaleko itzalean sartu ziran.

Orduan Kandi-k baŕen-alaitasunez :

—Esaidazu beŕiz atsegin ori.

—Plaza Beŕian nere aŕebaren sudur-zapia jaso zenuanean asi zitzaidala, gero aundiagotu ta orain zure ondoan nagoanez ezin geiagokoa dala.

—Eskaŕik asko— neska pozik.

Andik pixka batera :

—Atzo ta eranegun ere ikusi zindutan, beste noizbait ere bai. Oŕa gaur irugaŕena. Gero-ta zaleagoa nozu. Gaur aña zorionik ez det izan...

—¿Eta estropada irabazi zenuanean?

—Orduan ere zure aldeko zoriona izan nuan. Zuk ¿nork irabazi izatea nai zenuan, Poli-k ala nik?

—¡Oi, donostiaŕak!

—Ez, gu bakaŕak giñan aldetik.

—Esan dizut ba', zuk.

—Eskaŕik asko —mutiĪak ere.

Goizetik eskeŕak alkaŕi ematen ederki asi ziran. Kandi etxeratu ez zedin, mutiĪak ekin zion :

—Egia esan, irabazteak poza ori ekaŕi zidan: ni zure zale ain zaletua nengoala, zuk nereganako begikotasuna...

—Esaidazu beŕiz poza ori.

Orduaṅ Txomin-ek esanaren truke par goxoa egin zion ta atean sartu, Kandi ere atearen oñean jaŕi zala. Oŕa ba' etxerako bidea nola luzatu zitekean.

—Aizu, Kandi polit'ori, nere atsegin ta poza zatzaidala esan dizut egi utsa dalako. Aspaldidanik gogozkoa zintzaidan. Plaza Beŕian Iñauterietan alkaŕekin itzegin genuanean nere buruari zorionak ematen nizkion. ¡Eta geroztik zenbat bider! Artean gaur añako poza iñoiz ez. Zuri esan nizukeanaren puxka txiki au esan aal-izateak zorabidean jartzen nau. ¡Eta zenbat gauza geiago esango nizkitzuke bein eta *beŕiz!* Askotan bakaŕik nenbiĩela, orko bazteŕetan, nere buruan nenbilkizun beti. Ondaŕeko egurastea, batez ere, maite nuan. ¡An egin ditutan ametsak!

Txomin-ek neska bere aldekoa zuala ikusi. Arpegian maite-miñaz jota zegoala ezagututa Txomin oso bere buruaren jabe egin zan. Izketa nai izan zuan alderdira ekaŕi zuan. Ondaŕeko idazkunen jabea oraintxe jakin bear. ¡Ain eskier zegoan Txomin!

Ta auŕera jaŕaituaz:

—¡Ondaŕeko egurasteak batez ere! —beŕiro esan zuan—. ¡Itsas-beerako nere ibiĩi-aldiak! An askoz bertago zengokidala iruditzen zitzaidan. Batzuetan zu zerori nabari zinduztala uste izaten nuan. Agidanean, esaten nion nere buruari, emendik ibiĩiko zan. Artean ez zindutan beñere ikusten. ¡Aiek ametsak, alkaŕekin egon ba-gindezkean! Orain bezela, zure aldamenean. Ta alako ibiĩialdietan gauza batek aŕitu ninduan. Ibiĩi-ibiĩi joaten nintzala, bein, eta geiagotan ere bai, —ez det esaten neretzat jaŕi zutenik— norbaitek *Chomin*

idatzi zuan ondaŕean. Ta bein ikusi ta ez nion aŕetarik egin; baño uŕengoetan auxe igaŕi nion: oin-atzak uretatik etoŕi ta uretara biurtzen ziran. Idazkuna eginbeŕia zala ta nai ta nai-ez idazlea txalupan etoŕia bear zuala izatea ¿nolatan ez nuan nik ikusten?

Orduan Kandi-k erantzun zion:

—Txalupan etoŕi-izatea ez zan beaŕezkoa izango. Oñetakoak kenduta, uŕutitik asita, uretan sartu ta joan eta etoŕi zitekean...

Ordurarte ez zitzaion Txomin-eri alakorik bururatu ta oraindik aŕituta zegoalarik, gañeratu zion:

—Zu itxas-beera dagoala eguras-zalea zerala jakin ta arako bakoitzean bestelako oñetakoak jartzen dituzula ikusi ta ara baño len beste ibiltzea egiten dezula usmatuta, ez litzake arlo zala. Gero Esnategi-kalera joatekotan, ondaŕ-aztarnak oñetakoeri kendu, antzik ez emateko ta... Ala ere —erdi-paŕez asi zan— bein aguro xamar joanda ia aŕapatu ninduzun...

Txomin zoraturik zegoan. Arpegiz-arpegi jaŕita esan zion:

—Beraz ¿zu ziñan, enetxoa?

Ta Kandi, ezeri aŕetarik eman gabe ¡aŕigaŕia! besoak luzatu, mutilari lepotik eldu ta une batean lepotik zintzilik gelditu zitzaion.

Ta lotsaren lotsaz besoak kendu ta igeska maladian gora etxerako abiatu zan.

¡Kandi gizajoa! Geroztik ¡zenbat denboran egon zan Txomin ikusi gabe agitz lotsatuta!

Txomin, bakaŕik, txaldantuta gelditu zan eskaratzean.

Udazken-egun batean izan zan, ostoak zimeldu ta erortzen diran sasoian...

XIX

BRETXA-N

Atal onetan Donosti-ko Bretxa irudiazi nai nizuke, irakurlea: emen edestutako gertaeraen sasoi berbereko Bretxa; bada gauza ta kristauak denboraz aldatu egin oi dira ta gaurkoari ez nioke nai antzik eman ere. Donostia ta donostiarak : orixe zan nere asmoa, naiz itz laburez nere liburua izendatu.

Auxe zan, zorioneko Bretxa ori, Donosti-ko igande-goizetako tokirik alai ta atsegiñena. Plaza Beria zan Donosti-ko biotza; Bretxa, arnasa ala aboa ta abotik sartu zitzaizkaten donostiareri ingelesak 1831garen urteko guda madarikatuan itsas-aldeko aresiak txikituta.

Bai, arnasa; ta aize-bearez joango zan, noski, dioteneko donostiar ura, ainbeste urteetan urutiko luretan ibili ta, Donosti-ratuta, lenen-lenengo Bretxa-ri besarkatu ta mun eman omen zion ta urena San Bizente-elizari, Plaza Beriari ta Portu-kaleko ateari.

Ara zan, bada, donostiaren joera igande-goizetan: donostiarena ta baseritar askoena ere bai. Meza-ondorengoan eruz ibiltzen zan jendea ta gauza, ta giza-talde artan alaitasun-usaia nabari-nabari zan.

Bretxa-ko saietsean, aresi zararen muturean zulo bat eginda, zeukan lantegia pasi-konpontzale batek. Gizajoak burua makurtu bear izaten zuan sartu bakoitzean. Eguzkiak izpi biziaz jotzen zuanean, pasi guztiak diz-diz jartzen ziran... «Mokoluxe» alperaren galtza zar arabakituak ezik.

Onen aldamenean Fermin peratzalearen zuloa : peratzalea ta albaiteroa. Makiñabat pera jari zituan,

onek ere aldizka burua makurtu bear izaten ba--zuan ere.

Zoaz ezkeŕera ta *Santero*-n etxea, purtzīleri--denda. Santa Ana-kaleko beste aldean Elizegi-eneko ostatua. Aŕotz edo ostalari asko izaten zituzten; ta askorentzat jana asko bear ta nolanai ogei-ogeitamar zeŕi eukitzen zituzten San Martin-goian.

San Juan-kaleko mutuŕean, «Mūtuŕ-okeŕa»-ren paīar-denda.

Etxe oien auŕean, beŕiz, Bretxa-ko beste aldean, txabola zaŕa : aterpe ta saltokia. An saltzen zituzten sokak, arto-txurikiña, zigaŕoak, abarketak, seīoak eta abar; antxen biltzen ziran gobarazale guztiak; ara gaztigu ta mandatu guztiak : au zan «Sokagīlietako denda».

Onen auŕeko ituŕia Txoritokieta-ko aŕiakin egiña zan; gañean lau borobil zituan eta inguruan exeri--aŕiak.

Bretxa-n biltzen ziran gaztain ta txardin-saltzaleak, lore ta txori-saltzaleak, salerosleak. Ostatuak ontzi zaŕak beŕitu nai zituztenean, ara bidaltzen zituzten zaŕak saltzeko ta ontzi aiek ostatuaren ezaugaŕiekin eŕi guztian zabaltzen ziran.

Baño igandero

«Bretxa-n kanta beŕiak
Bretxa-n dira kantariak».

Txanpon bana kanta-paperak. Ba'zegoan antxe borda-bete bordari Segura-ko itxuari adi-adi. Itxuak abestu ta aŕabita jo ta andreak kanta-paperak saldu.

«Segura-ko itxua
da nere senaŕa,
kantatzeko ba'dezu
Manu-ren biaŕa.

Zoŕua galtzarbian
besuan gitaŕa
etzenduben ikasi
opiziyo txaŕa».

¡Ain pozik ere egoten zan jendea, batez ere baseŕitaŕak! Asko saldu oi zan paper aietatik; «Neska-mutiĺenak» eŕuz saldu ziran. Txomin-en etxeko Katalin-ek ogeitabat bertso ikasi zituan buruz aŕats batean, Bretxa-n saltzen ziranetakoak.

Ankari anka ezin eman an ibiltzen zan jendearekin. Uŕengo baztar batean, an ikusiko zenuan jendearen gañetik, pitxi ta era guztitako gauzez inguraturik, nork geiago demanari elatari belaŕimotza saltzen.

An ari zan beŕitsua, zalako *quita-manchas* ezin obeagoarekin.

Uŕena jaboi txikiak saltzen asiko zitzaizun.

—*Respetable público: Me cabe el honor de ofrecerles a ustedes unas deliciosas pastillas de jabón, presentación maravillosa... Hagan corro, señores... dejen pasar a los que están detrás... verdadero jabón higiénico; produce abundante espuma; toda persona medianamente aseada lo debiera usar para la limpieza de sus manos. Esto es aroma, fragancia, perfume y no lo que se vende por ahí con este nombre, valiendo más el frasco que su contenido, que no vale nada. Pero este jabón que un servidor tiene el gusto de presentarles a ustedes, tiene la virtud, insospechada hasta ahora para esta clase de artículos, de curar las heridas de las manos producidas por rasguños y toda clase de incisiones...*

Eta auŕera zijoan jardunean. Baño alako batean entzule batek erantzun zion :

—*Ese jabón, igual como ese, te venden «ande» la Bixenta por sinco cuartos.*

—¡Qué entenderá de jabones este ignorante! ¿«Ande» la Bixenta, eh?

«El respetable público que me presta su atención, entenderá de jabones seguramente mucho mejor que este buen hombre que, por lo visto, no está obligado a saber más; y yo, por mi parte, he de añadir que como este jabón no lo vende nadie en las Provincias Vascongadas y en todo el territorio de España, no lo vende nadie más que yo, para quien trabajan exclusivamente varias fábricas. Si ese señor que se está riendo no lo cree, que se ponga conmigo cien, doscientos pesos, y veremos si tiene razón el que les dirige a ustedes la palabra...»

«Y era justo que si este jabón me cuesta a mi cinco cuartos lo venda en seis, pues no va a ser todo hablar con la garganta. Pero para que vea ese señor que a mí no me achica nadie, aunque pierda quinientos pesos, lo voy a vender a tres cuartos».

«¿Otro? Va enseguida. ¿Dos? Ahora mismo. Tengan el dinero preparado».

—Es que le llevarán a usté al procurador por vender igual jabón a ese presio—beŕiro itzegin zuan lengoak.

—¡No hay procuradores para los ambulantes! ¿Usted no sabe eso?

«Una docena para ese señor. ¿Otra? Otra».

«Y ahora, para que vean los señores que me escuchan que a mí no me duele el dinero perdido, voy a vender las dos únicas pastillas que me quedan en cuatro cuartos para que tome café con puro mi secretario. Oye, Angel, dáselas a esa señora».

Len bakaŕa iru kuarto ordaindutako batek ala dio:

«Nik erosi detenian iru ¿ta orain bi? ez naukazu beŕiz aŕapaturik. Gauza ona, baño benta obia».

Orduan elatariak, entzuleak joan ez zezaizkion, arnasa artzeko betarik gabe, botil ur-goŕixka bat artu ta besoa auŕean guztieri erakutsiaz ekin zion beŕiz ere.

—Yo no soy orador como los que hablan en los ateneos, que echan un discurso y nadie les hace caso. Yo hablo y vendo. Y vendo porque digo las verdades y presento artículos que nadie más puede vender ni puede discutir sus méritos. Como es este elíxir del Tonkín que me cabe el gusto de presentar al respetable público, verdadero elíxir, de efectos asombrosos, procedente de las lejanas tierras del Tonkín, tan lejanas como las de las Américas, aunque en dirección opuesta, como podrán aseverar los señores aquí presentes que hayan saludado la Geografía; para lo cual, mi secretario y un servidor de ustedes, disfrazados de moros, llegamos hasta allí, y en el mismo momento de la luna nueva me apoderé yo del líquido en la fuente...

«Este líquido posee virtudes excepcionales en todo lo que a la dentadura y boca se refiere. Si lo empleáis en gotas diluídas en medio vaso de agua, evita la caries de las muelas, limpia la dentadura y refresca la boca, concediéndole un aroma agradabilísimo. Empleando un poco de huata o algodón que se impregna en este líquido, usado puro, y colocándola en el mismo sitio del mal, cura instantáneamente el más rabioso dolor de muelas.

«Señores: esos elíxires que con el nombre de tales se venden por ahí, son una brutalidad, porque estropean el esmalte de los dientes. Y si por un descuido vienen a caer algunas de esas gotas en el estómago del que las usa ¿qué pasa entonces? Y yo

digo : malditos sean los inventores, porque si una muela se hace polvo, ¿qué le va a pasar al estómago de un cristiano? Vamos a ver, ¿qué es más duro, un estómago de una «persona humana» o un pedazo de porcelana?»

«Sí, señora, también para los flemones. Hay flemones así de duros que no los aplasta ni el tren. No hay más que frotar con un trozo de algodón embebido en este maravilloso elíxir...»

«No quisiera más, sino que hubiera aquí uno que tuviera un flemón...»

Izlariak entzuleen artean ortzoi aunditua duanik ez dagoala igaŕi dionean, gero ta geiago deadar egiten du :

—*Si hay alguno ¡que suba aquí!, ¡que suba, hombre, que suba!...*

Ta oŕa non Anĩon Zuŕut, *La Fraternal*-en artutakoaz geroztik agiñetako miñarekin maiztxo zegoana, oŕa non azaltzen dan masalla aunditua.

Beŕitsuak ikusi zuanean, kopeteko zimuŕa ikaragaŕia jaŕi zion ta aŕas asaŕetuta onela egin zion kaŕaxia :

—*¡Que suba! ¡que le voy a dar una patá en la cabeza que se le va a quitar el sueño pa' un mes!*

—*¿Tú a mí dar patara?* —Anton-ek bere aldikoz— *Yo sí a ti te voy sacar plemones en dos laos.*

Ta utsagatik ez zuan jo. ¡Jendeak atera zuan par gozoa! Zalako «elixir» ura utzi ta beste aritik jaŕaitu zuan.

XX

TXALDANA

—Bai, Xanti adiskidea, orain Maalentxo Sarobe sartu zait biotzean ta ni neroni gogozkoa natzaiola antzemanda nagoalarik, ain jaso aundiko nere arazo au ezerk galdu ez dezan, zure laguntzaren beaŕa bai nuke; baldin zuk toki bertara jotzeko asmorik ez bazendu, len bezela «biok» gudakatu ez gaitezen.

—Ez, orixe —erantzun zion Kuŕutako-ri—; baño tamala da Kontxexi Araneder-en lagunarekin asi izatea; biak beti alkaŕekin ibiltzen bai-dira ta ni, dakizunez, Kontxeri-rekin asaŕetuta nago...

—Baiṭa ni ere —aŕokeriz Kuŕutako-k.

—...ta bestela egin nezaizukearen erdia ere ez det uste egin nezakeanik; ala ere nere iritzia on ba-lizaizuke ez dizut ukatuko.

Ta arazo arekin zer-ikusi polita izango zuala-ta Xanti asko poztu zan.

—Ordea —erantzi zion— bear da bear okeŕeko usterik ez artzea. Zu oŕetara emana ote zauden kezkatuta nago, bada zuk okeŕeko itxura ematen ba-didazu, okeŕeko bidean sartu gindezke ta kalteak «letorzkiguke».

Kuŕutako bildurtu zan Xanti-ren gaitzak leporatu bearko ote zituan. Beste aldez, esker beroak zemazkion ain bere aldeko jaŕi zitzaiolako.

—Ez ba' Xanti adiskidea —erantzun zion Kuŕutako-k— egun auetan gertatutako zenbait gauzaen jakindun jaŕi bear zaitut eta orduan esango didazu bai ala ez.

—Bada jaso aundikoa da —zion oraindik Xanti-k—

guk azaletik oartzen ditugun gauzak, ez gure naiez beste aldera ikustea, baŕen-agerbidea diralakoan gure uste bakaŕa izan litezke-ta.

—*Sí, es la esencia principal*, —bota zuan Kuŕutako-k, erderaz ari zirala.

Ta Zelaian baŕena ibīli zebiltzala, ixilune baten ondoren, aipatutako gertaerak esateko gogoa etoŕi zitzaion Kuŕutako-ri, Xanti bai-zeukan orain egurastera joateko.

—Ta eskeŕak zuri, Xanti; alegia zure esaneri jaŕaituaz ainbat ondore on izan ditutala.

«Zuk abagunea datoŕenean eskua eman bear zaiola esaten zenidan, beti begiraka aritzearekin ez dala auŕeratzen, edo-ta, aitzakia bīlatu ta aitzakia tarte dala, itz-bidea sortu...»

—Bai, gizona —Xanti-k—; eta ba'dakizkizu onoko bertso auek :

«¡O zezen pizkor txingar jariyo,
zenbat kontu zure meriyo!»

—Bada igande batean goizeko zazpietatik eguardi arteko meza guztiak entzun nituan San Bizente-n, Maalentxo Sarobe-rekin topo egiteaŕen ta uŕengo igandean bostetan jeikitzeko asmotan nenbīlela Santa Maria-n izan zala jakin izan nuan.

Ezin ba Xanti paŕez zutik egon «¡gizona, gizona!» ziola.

Ta Kuŕutako ere iŕia ezpañetan besotik eltzen zion Xanti-ri ondorengoa bota naiez :

—Baño igaro-igandean iru meza bakaŕik entzunda nengoala oŕa non ikusten deten Maalentxo Sarobe pinpiŕiña... ¿Zuk zer derizkiozu neska?

—Polita neska. Zuretu aal ba-zenezake ez zenuke «ganga» txaŕa.

Ta Kuŕutako gero ta poztuago gertatu zanarekin.

—Ta ateratzeko zai nengoala, alako batean ba' dator urbedeinkatu-ontzira. Ta ni, arazo auetan zerbait jakiña naizela, (beatz-mutuŕa begi-azpiari erantzi zion) ba'nengoan aldean, atera-itxuran, nik neronek beatza bustita areri emateko. Ta beatza luzatu nionean lenbizi atzera egin zuan ez-artu itxuraz. Baño ni gai auetan asko jakiña izaki ta bera ta ontziaren bitartean jaŕita nengoala «egun on, Maalentxo» goxoki esanaz, azkenean nere beatz-mutuŕarekin bere beatz-mutuŕa ikutzeko zoriona izan nuan. Paŕez abiatu zan nik eman nion pozarekin.

Ta aŕotuta, geldik ezin egonik, Xanti ere paŕa gogotik ari zuala, besoa bizkaŕaren gañean dantzatzen zion.

—¡Zaude, zaude!, —ots-egin zuan Xanti-k— antxen datoz berak.

—¿Nor-eta?

—Kontxexi Araneder ta Maalentxo Sarobe.

Ta ala zan. Eŕegesoron baŕena biak zetozen onuntz, eta bi mutiĺak aruntz zijoazela bide berberetik —besterik ez bai-zan— nai ta nai-ez alkaŕen ondoan igaro bear. Oŕa ba',etxea bear ta bideak ekaŕi.

Kuŕutako-k bestearen bizkaŕetik besoa erortzen utzi zuan ta bat-bateko arekin ikara sartu zitzaiola, orain esanak ukatu-mugan gelditu zan.

Xankoak «kolokan» zeuzkala, ala galdetu zion Xanti-ri.

—¿Ta orain zer egin bear «degu»?

—¿Baitin al zaude esan dizkidazun guztiak egiak dirala?

—Nik ala uste... neri ala iruditzen zait beintzat.

Neskak iŕia zekarten ezpañetan, Kuŕutako ikusi

bai-zuten. Xanti ere pozik ¡arek ematen zizkion atsegin-aldiak! Katua xaguarekin jostatu zitekean bezin ederki jostatzen zan Xanti Kuŕutako-rekin.

—¿Orain zer egin bear det? —zion onek.

—Orain «agur» batez ginbal̄a kendu neskari.

—Baño neskak ez dauka ginbal̄ik.

—¡Zurea, gizona!

—¿Eta eskeŕeko besoa, atze-adera?

Neskak paŕez zetozen.

—Ez, biotzaren ondoan.

Ta Kuŕutako gertu zijoan.

Oraintxe alderatu dira, oŕa non Kuŕutako-k jartzen duan oin bat auŕera ta bestea atzera, auŕera soña makurturik, ezkeŕeko besoa biotzean ta eskubiko ginbal̄a... zeruko urdiñean. Begiak txikiturik, begi aŕotza ere bai, maiteki esan zien, Maalentxo-ri begira:

—Aguuur...

Neskak iŕi-karkara atera zuten. Ezta erantzun ere. Xanti eskua aboan egiñaletan Kuŕutako-k ikusi ez zezaion. Kontxexi Araneder, paŕez zegoanez, arpegi onaz begiratu nai izan zion Xanti-ri...

Izardi otzez Kuŕutako alderatu zitzaion Xanti-ri ta.

—¿Ta, ta? ¿Zer derizkiozu? —galdetu zion.

—Oso ederki. Begira, neskak askotan iŕia egiten dute baŕengo «zera» erakusteko lotsa dutenean. Ta Maalentxo-ren baŕengo «zera» atera duan iŕiaz neurtu bearko bagenu, noski, zoriondunik zoriondunena zu ziñake munduan. Ta oŕa nere bostekoa.

—¿Bai e?

Ta batak besteari bostekoa eman ziotenean, Kuŕutako-k burua atzera egin zuan. Ta neskak ere atzera begiraka zijoazela, beŕiz ere paŕez topatu zituan.

Kuŕutako-ren poza, beraz, ez zan ukatzekoa. Ta

arian ari zirala, gero-ta aŕotuago zebīlen, azkeneko izualdia aŕas aztuta.

Orduan Xanti-ri —Kuŕutako apaŕa baño aŕotuago zebīlenez geroz— lengo esan beroak pixka bat epeltzea oīu zitzaion, ez zezaiola gero berari aitzakia eman beaŕ-eza gertatuta ere.

—Ala ere —asi zitzaion beti atzera begiraka zegoanari— ez da egoki geiegizko usteak artzea, uts egin genezake, oker egon gindezke. Bada-ezbada, guztiak gogoan artu bear dira. Neri onetxek ematen dit kezka : biak par egin izateak. Maalentxo-ren arloa izanik, berari bakaŕik zegokion begitarte ona jartzea. ¿Jostatzeko gogoa ote zeukan? ¿Zuk zer derizkiozu?

—Auxe ta besterik ez : Kontxexi-k ezin duala eraman ni bestearekin asi izatea. Oŕa beŕiro neska nereganako gaituta. Or ez dago besterik, orain biak nai lutekela; baño ez noa ni orain lengo bideak artzera; oŕetara, ainbeste bide artu nezazkikeala, ez lizaidake eŕeza nora jo jakitea. Ni pozik nago gaurko gertaeraz. Ta zuk ongi ikusi dezu zure irakaspenez abagune egokiak nola atxitzen dituten. Eskeŕak zuri, Xanti adiskidea. Baño ikusi izan dezu ni ere ez naizela kamotza arazo auetan. Bai, egia da, gertaldiari eskua eman bear zaiola. *Sí, es la esencia principal* —beŕiz ere.

Orduan Plaza Zaŕeko auŕean zeuden geldituta. Xanti-k ibīlaldi gozoa egin zuan Kuŕutako-rekin. ¡Aren jostaketa atsegiña! Kuŕutako-ren bein-edo-beingo aŕokeriagatik, Xanti-k nai zuana eginerazten zion. Oraingoan ala esan zion :

—Baño bear da bear gauzak ez nastutzea. Nik, egiazki, abagune ona atxitu bear dala esan dizut; baño neska-mutīlak alkaŕi begi ona jartzekotan; baldin oŕelakorik ez balitz, askotan txarki izango litzake

iñori arpegia ematea ta ausarkeria. Baño zuk esan zenidan, ta edestu, zuen bion begiratzeak eta mezetako ain ongi alkaŕ-aditzeak...

—Ta ez da irudipena, egi utsa baizik. Ta oŕengatik nago onen pozik, zorion betea atxitu nezakealako, «nere» Maalentxo polita neretu nezakealako. Ene Xanti maitea, ni bezela andregai eder baten jabe ikusi nai zinduzket. ¿Zerbaitean lagundu aal ba-nezaizuke?

—*Bueno*, nere arloa alde batera utzi oraingoz ta eskaŕik asko. ¿Ba'al dakizu zer bururatu zaiten? Oiek guztiak egiak izanda, ta nik ez dizut ukatuko, ¿ba'al dakizu zer egin bear zenukean? Idazki bat, karta bat idatzi.

Ori entzundakoan Kuŕutako-k akika egin zuan pozaren pozez ta bostekoa eman zion Xanti-ri.

—¡Asmatu dek! —esan zion— ta barka egidak ika asitzea. Ni ortan nengoala esango ba-nikek ¿zer esango ukek? Ez asmoa artu bakaŕik, saiatu ere egin nauk. Poztutzen nauk i nere iritzekoa izan izatea. To, iri detan guztia esateak ez zidak batere lotsik ematen, i mutil *ondradua* aizelako. ¿Ba'al dakik gau guztian lo-tantorik ere ez detala egin karta ori burutik kendu eziñik? Asiera egin zioat, edeŕa ala ere, ta ezin izan diat andik auŕera jaŕaitu, iñola ere. Ta aalmenik gabe ez nagoala dakitalarik eta i zenbat onesten autan jakin ezakan, irakur ezak onoko paper onetan egin diaten saioa.

Xanti-k ez zuan iñoiz ikusi Kuŕutako oŕen paŕagaŕi, aŕas txaldanduta edo erotuta ez ote zegoan ia bildurtu zan. Ta esan bezela ingi txuri bat atera ta izki aundi aiek ala zioten: *Distinguida señorita: Desde que tube la inmensa dicha de conocerla, mas y mas ha ido creciendo en mi corazón la pasión que des-*

espéra a todo ser humano... Ta ementxen bukatzen zan Kuŕutako-ren gau guztiko lana.

Xanti-k ez zekian, edo paŕa egin ala ezkeŕez jo ta Plaza Zaŕeko arkupetako aŕiarekin Kuŕutako-ren burua joerazi. Baño ez zeukan zalantzan luzaro egoterik, toki artan egon gutxi egin zuan Kuŕutako-k; bada bat-batean nola jaŕaitu bururatu zitzaiola-ta, etxera abiatu zan azkaŕean, Xanti bakaŕik utzita.

Xanti-k Zuŕiola-aldera jo zuan. Oŕen txaldana izateak aŕituta zeukan Xanti. ¡Ura gizon aŕaioa! Ala ere zer paŕ-egin ematen zion ta zer ikusteko zeuden ez zekian. Zalako idazki arekin gauza gogoŕen bat gertatu bear zuala baitin zegoan, bada Kuŕutako-ri erokeria buŕundara biziz zebilkionez geroz, arek izugaŕizko idazkia egingo zion, bidali ere bai ta korapiĺoa nola askatzen zan ikusi bear. Maalentxo-ri ikara pixka bat sartuko zion, baño ondorenean ederki jolastuko ziran Kontxexi ta biak. Ta baldin beragana, Xanti-gana, aitzakiarekin baletor, zer erantzun beti izango zuan ta bestela ankaz gora bota.

«Baño okeŕena ori ez da —egiten zion bere buruari Xanti-k— zentzuko gizonak ere, neskak dirala-ta, nola txaldantzen diran. Artean ezkongaietan usoak diruditen neskaeri atzapaŕak jaiotzen zaizkate ezkondutakoan. ¡Emakume oien gizona zapaldu-beaŕa! *¿Au al da etxera etortzeko garaia?*, esaten diote iĺundu orduko etxeratzen dan «gizonezkoari»; ta patrikak miatu ondoren *¿zertan gastatu dezu palta dezun txanpona?*, egaŕiak amoŕatzen egun guztian egoten dan diru-jabeari. Nik dakitalarik, eta nik ederki dakit ori, gutxieneko ogeitik emeretzi emakumek menderatzen dituzte beren senaŕak; eta zanpa-zanpa egin ere egiten dituztenak ba'dira. Bestetan nai dutena egin ezin dutenean, beren burua gaizkitu ta senaŕaren

eŕukitasuna uztiatuz eginbidea sortzen dute. Oŕetzaz antzezki osoa egin nezaket ta izen au jaŕiko nioke: *El imperio de la víctima*».

«Beste aldez, ez da emakume bakaŕa bere senaŕari bear bezelako lotsa dionik. Ni askotxo ikusia nago. Gizonak ez ditu aipatzen emaztearen egitekoak; artean emakumeek, bai».

Xanti-k gai ortatik gogor eldu zion. Gizonek emazte bat baño geiago duten eŕiak gogoratu zitzaizkion; baño ari ura lakar xamaŕa zala-ta, beatzetatik kendu zuan. «Danetara ere —zion— emakumea gizona baño askoz gutxiago da, alderatzeko ere. Gizona gizon ta emakumea... ezerez. Nik ez daukat bestela emakumea gogoan: gizonaren auŕean diran dantzarik politenak dantzatzen. Ezertxo ere ez legokio ain eder emakumeari. Emakumea ta dantza ¡zein elkarkunde edeŕa! ¡Gizonaren atsegiña!»

Ta lengo uste txaŕak etxera-bidean beste atsegiñagoekin aldatu zitzaizkala, Kontxexi-ren berarentzako iŕi gozoa, Eŕegesoro-koa, gogoratu zitzaion...

XXI

TXORALDA

Gauza arigarıak ba'dira. Amaika bider ustez beste aldeko gertakizunak gertatu oi dira: alako zulotik sartu, bestetik atera; ainbeste zituan arek itxusienarekin ezkondu; nardagarıa, maitagarı biurtu. Ta auxen eta bera gertatu zitzaion Madalen-i Anton Zurut-ekin edo berak zion «Zurutako»-rekin. Ta zenbat-eta amorua ta nazka aundiagoak izan orduan-eta naitasun eztiagoa ekarı oi dute askotan.

Beraz biotz-ikutua zebīlen Madalen ere. Ora ustegabeko erbia non atera zitzaion. ¡Nork esan moskora zeritzanari maitekatu bear zitzaiola! Artean, egi-egia. Ta iguingarıena, gogaikarıena zitzaionean. Ora aldez bestekoa bat-batean egin.

Len nai ez zuala egiten zuan topo Anīon-ekin; orain ez nai ainbeste. Len gogorak esaten zizkan; orain ezin samuragoak. Eta len kopet'īluna jartzen ba--zion, orain aal zuan iririk gozoena. «Agur, Zurutako», esan oi zion maiteki. Ora ba',ora.

Ez Anita-ren erietak, ez Kataliñ-enak ez zioten deus ajolik. Lotsagabetu zan, len baño geiago. Kataliñ-ek zerbait usmatu zuan. «¿Ba'dakin batzuetan oso pozik etortzen aizenala? —esaten zion— ¿zer ematen diten?» Bestetan, ordea, asare etortzen zan. «Bai... gaur... nai uana ez den ikusi. ¿Edo nai-ezkoa gertatu al zain?»

Madalen, beraz, maite-giroak zerabilkian.

Bein eztabaida bizian zetozen Anton Zurut eta Joxe Ogi; Kale Nagusian asi ta San Telmo, Eskotīla, Ikazkale, Esnategi, Astokale ta Bretxa-rañoko guzti-

an : alako Santa Mari-ko iletak bigaren ala irugaren malakoak ote ziran, alegia. Ta Bretxa-n aurez-aure jarita ezin bukatu añako izketa zebilkiten. Ez ziran asarezaleak; baño orduko artan norbera zuzen zego-alakoan ez utzi nai ba' itz-bideari.

Madalen-ek Esnategi-kalean ikusi zituan ta arazo ura Anton-en alde erabaki gabe ezin eramanik —entzun bai-zuan zer ari ziran— Bretxa-n alderatu zitzaien poliki-poliki. Ta zaldiak eta il-kutxarekin ari zirala, alako batean non Madalen asten zaion erderaz Joxe Ogi-ri :

—*Si caballos tenían plumeros, segunda. Basta; no hablas más de eso.*

Ta Joxe-k bi lagun aurean zituala :

—*El día el que estar callada tú...*

—*Yo doy rasón a todo el mundo el que tiene* —Madalen-ek beriz.

—*Contigo hay que tener mucha pasiensia.*

—*¿Pasiensia? ¡Ni sabes tú qué es tamién tampoco! El que se dise lo que quiere, se oye lo que no quiere.*

—*¡Aaa... yo ya le conosco el gente como tú!* ¿Ere buruz al abil? ¿Pozik al ago orain? Dantza ezan ba'.

Ta Anton-i begiratuaz alde egin zuan Madalen-ek. Oratx ba', oratx.

Baño Madalen maite-arazoz gero ta okerago zegoan. ¡Orduantxe bai orduantxe! Iñon diran asmatzekoak asmatzen zituan. Baño batez ere au zitzaion gogozkoa : etxerako sagardo-bila ateratzen zanean, Eskotila-kalera joan bearean urutiagoko Barbara--eneko sagardotegira joaten zan Anton-ekin topo egitearen, Anton ango zalea bai-zan.

Ordea, onetxek bere korapiīoa ba'zeukan. Madalen-ek sagardoa ekartzeko garaia lentxeagoa zan Anīon-eta Barbara-enera joaten ziranekoa baño. Ta oŕekin ibiltzen zituan istīluak Madalen-ek.

—I, Madalen, ¿gaur sagardorik gabe apaldu biar al diñagu? Ba'uake lenbaitlen —bein esaten zion Kataliñ-ek.

Beste batean :

—¿Ez al den aitu sagardo-bīla juateko? ¿Noiztandik etoŕi zain oŕen berandu juateko gogua?

—¿Zeoŕek ez al diazu esan sukaldeko luŕa garbitzeko?

—Sagardotegitik etoŕita ere naiko denbora izango den.

—Bai, ibīliko naiz lana utzi ta beŕiz espartzua artu ta bustitzen.

Katalin-ek aŕitu-itxuran :

—Neska, ire bizitza guztiyan ez den luŕik onen ondo garbitu. Aŕituta nion. Etzekiñat zer aŕano darabilkin. Ala ere e'litzaken ezere oŕen jaboi-puska aundiyak ondatuko ez ba-ituzkenan.

Ta egia zan. Beranduxeago ateratzeagatik «laŕua» kentzen zion luŕari indar guztiz laŕaskaturik. Ta abiatzeko asmoan mantala kentzen asten zanean, oraindik ere Katalin-ek esaten zion : «Mugi ari, neska».

Baño Madalen-eri «bost» aren eŕietagatik baldin Anīon ikusten ba-zuan. ¡Aien jokoaren aitzakiarekin zenbatetan egon oi zan pitxaŕa sorbaldan Anīon-en ondoan egoteko pozik! Anīon-ek irabazten ba-zuan, Madalen gozatuta egoten zan; galtzen ba-zuan, goibel. Oiek guztiak Anīon-ek ederki igaŕi zitzakean eran. Bai Xanti begi zoŕotzak ere.

—Neska, ken a'i emendik —batek.

—Sagardua epelduko zain —besteak.

—Ai, Madalen; «ire biĩa» beŕiz ere ibiĩiko 'itun —uŕenak.

Ta joaterakoan sagardotegikoak agurtzen zituanean, batez ere bere «Zuŕutako»-ri begiratu ta bera bakaŕarentzako beste aguŕa egiten zion.

Orduan koŕika asten zan etxerako, Katalin-en ikusi-beaŕak azkeneko gozoaldia samintzen ziolarik. Orduan izaten ziran gezuŕa asmatu-beaŕak: bein, jende asko zegoala sagardotegian; bestean, txotxa beerago jaŕi bear izan zutela sagardoa aitzen zijoalako; uŕena, sagardoa txit aitu ta kupela beŕia asi zutela, naiz-eta sagardoak beŕiaren antzik izan ez.

Egun batean baso bat sagardo ordainduta utzi zuan Madalen-ek Anĩon-entzat.

Ezin ba' oŕela egon. Idazki edo karta egingo omen zion Anĩon-i. Bere gogoko zerbait esan nai zion; baño iñork ez jakiteko eran. Gañera idazkiz eginda esatean izaten dan lotsa ez zuan izango. Ez, noski, ez zizkion erokeriak esango, itxuski litzake emakumezko bategan; baño Anĩon-ek igaŕi lezaioken eran, bai. Agidanean biotz-ikutua egingo lioke, noski, ondo idaztekotan. ¿Ta zer erantzungo zuan Anĩon-ek? Ura poza, beŕiz, beregana etoŕiko balitz. ¿Nola artuko zuan idazkia? Ta ondo artzen ba-zuan ¿zer gauzak esango lizkioke berari? ¡Ai, alakorik!

Ura lortzeko, ordea, Madalen-ek egiteko aundia egin bear zuan, idazkia egin; baño egingo zuan, lotsagaŕi ba-zitzaion ere. Ta bat-batean auxe bururatu zitzaion: berak idazten tutik ez zekialarik ¿nork egingo zion? Ez Kataliñ-ek beintzat. ¿Nork bada? Ta buru-baŕena ondo azterkatuaŕen ez zuan nai zuana biĩatzen. Ta Anĩon-ez gañera idazkia idatzi bear zukeanak ere jakingo zuan bera zer zebiĩen... ¡Aiek istiĩu-

ak! Or... ganorarik ez zion baten-batek egin bearko zion, besteen kontuekin ezer jakiteko ez zegoan batek. Ta au esanda bat-batean Fransua aulkigile prantzesa gogoratu zitzaion; bai, aulkietan «letrak» egiten ikusi izan zuan. Bai, oretxek ondoena...

¡An ziak gure neska txoralda Fransua-gana! Espartzua bear zanaren aitzakiarekin abiatu zan kalera Madalen. Ta Eskotila-kalean sartu bezin laister, non ikusten dituan Anton Zurut eta Joxe Ogi, gain eta muin oraingoan, onuntz datozela. Ustegabeko arek aras lotsatu zuan neska, Anton-ek zertara zijoan igari bear ba-lioke bezela. Ta ia etsita zijoalarik, ala ere, ez zuan beste biderik artu nai izan.

Bein parean agur esan zioten alkari. Joxe antzemana zegoan, lendik, ta iria ezpañetan igaro zan. Madalen lotsatu-xamara zijoalarik, askoz atsegiñagoa iruditu zitzaion Anton-eri. Agur xamura izan zuten. Madalen-ek burua atzera egin ta Anton-en arpegia begira zegokiola ikusi. ¡Neskaren poza! ¿Non dira lengo nardagariak?

San Telmo-kalean sartzerakoan Madalen-ek beriro atzera begiratu zuan, baño Anton eta biak ezkutatu ziran. Orduan asi zitzaion laritasuna Madalen-i; prantzesari barenen zebilkiona aitortu-beara. Santo Domingo-ko ixkin artan makiñabat aulki ikusten zan ol-zuriz egiñak, zintzilik batzuk, besteak atarian. Une batean gelditu egin zan Madalen: atzera-aurerako artan geldik egon bear. Beatza aboan zeukala, prantzesaren maluketak Madalen-en belarietaraño irixten ziran. Alderatu zan. Noski, Fransua-k idazten ba' zekian, antxen ikusten ziran bere eskuz egindako izki edo letrak. Ta ia bertaraño joan zala, non ateratzen dan Fransua aulki bat zintzilik jartzera. Bat-batean aurerantz asi zan Madalen.

—*Eh be...! ¿Com' está por aquí Matalen?* —egin zion prantzesak.

—*Buenos días, Musiú. Usté siempre trabajando,* —asi zitzaion Madalen baŕenen beste norbait ote zegoan begiratuaz.

—*Sempre a trabacar. ¿E tú a pasear desde la mañana?*

—*No, mir'usté, Fransua...* —asi zitzaion legunki beste iñor ikusi ez zuanean— *sab'usté... yo quería que usté a mí haser un pavor. Mir'usté, yo tengo nesesidá d'escribir una carta, ¿sab'usté? Y como yo no sabe escribir, si me haría tanto pavor...*

Ta Madalen-ek esan bitartean, Fransua-k laŕuzko prantzes-txapelaren azpian lapitz aundia sartu zuan, aulkia luŕean utzita.

Madalen poliki-poliki zer bear zuan guztia ari zitzaion esaten. Prantzesa adi-adi zegokion, surpeko bibote luzearen mutuŕak peŕaren antzera beeraño eroriak zeuzkalarik. Ta bein Madalen-ek bere nai guztia erakutsi zionean —biotz onekoa bai-zan prantzesa— biboteak goratu ta baŕenatu baño len zintzilik jaŕi zuan ate-buruan zekaŕen aulkitxoa.

Madalen-ek berak zekarzkian paperak eta azalak. Ol-tarteetatik ibilita noizbait exeri zan Fransua mai txiki batean, Madalen ondoan, ta aspaldian erdoituta zegoan idatz-ortza eŕenka asi zan... Madalen-ek zer gogoa zuan esan ta bien artean antolatuta gero Fransua-k idazten zuan. Iñork ez zien galazi lan artan. Idazkia egiteko guztian ezta iñortxo ere ez zan azaldu; beraz tajuz egin zezatekean, luzetxoa zalarik, bada Madalen beti zerbait geiago esateko gogoarekin gelditzen zan.

Azkenean, egin zuten bien arteko ura. Guk ikusi baño len jaŕi diote azala. Madalen gogo-bete dago.

Ta azala itxi ondoren onelako idazkuna jaŕi zion prantzesak: *Signor Çurrutaco*. Madalen-ek Zuŕutako izenarekin nai izan zuan ta prantzesak bere erara ala jaŕi zuan, aien *Ç* kakodunak gure *Z*-k ainbat balio du-ta.

Madalen pozik atera zan, Fransua-ri naiko eskeŕ-ak biotzetik emanda gero ta an joan zan idazkiari estu-estu eginda, Katalin-en oroimena gogo txaŕez zetorkiola.

Ajola gutxi areri; ta ez ori bakaŕik, aŕatsaldean beŕiro kaleratzeko aukera izan zuan. Ta ez ori bakaŕik: bada-ezbada idazkia berarekin artu zualarik, non, eskaratz-atean zegoala, non ikusten duan Anton Zuŕut bakaŕik Plaza Beŕiko beste aldean zijoala. Bat-batean mukizu bateri deitu ta bi piko emanez, eman zezaiola arako ari idazki ura ta eman bezin aguro iges egin zezala ezer galdetu ez zezaion. Ta mutila abiatuta Madalen-ek ere eskaratzean gora iñolazko abiadura artu zuan.

Ordea... mukizuak azala irakuŕi ta Kuŕutako —Madalen-ek ez ikusi— auŕetxoan zijoala ¡ez zion ba' Kuŕutako-ri idazkia eman!

XXII

KUŕUTAKO EBAINDUTA

Aŕandegi-ko ondoan Kuŕutako-k dei egin zion Xanti-ri, biak San Juan-kaletik zijoazela. Kuŕutako-k «Xanti» deitu ta oŕez gañera sakelatik paperezko bat atera ta arekin etortzeko esaten zion. Alkaŕi «aŕatsalde on» esanez ta lengo ika izketan-aritzea aztuta, Kuŕutako guztiz aŕoituta azaldu zitzaion Xanti-ri.

—Len ere zuri eskeŕak emanik nago, Xanti; baño arazo onetan ni neroni, iñoren laguntzarik gabe, bakar-bakaŕik asi izan banintz ere berdiñeko ondore ona izango nuan. Ikus Maalentxo Sarobe-k neretzat egindako idazki au, baldin leenik arek neri idatzi-izatea utsak aŕituta ez ba-zauzka. Ni, beŕiz, ez nau aŕitzen. Onelako auziak geienetan erabaki nezazkike nere alde. Gai onetan oker bat izan oi det oraindaño : ni neroni naizen baño nere burua gutxiagotzat egitea. Oŕek ondatu nau. ¡Ta gauzak zer diran! Maalentxo-ren arazo au ain eŕeza ikusten detala ¿ba' al dakizu jaso aundirik ez diotela ematen? Ikus ezazu bere izena —idazkia zabaltzen lagunduaz esan zion.

Xanti, ixil-ixilik. Ez-ustekoren bat zebiĺela usmatu zuan. ¿Zer aŕano izan zitekean? «*¿Signor Çurrutaco?*» ¿Nork idatzita? Ez Maalentxo Sarobe-k idatzita. ¡Aren izki zataŕak! Idazkera prantzesena zan. Ta «Madalen» izenpea ikusita bat-batean asmatu. Kopeta eskuarekin jotzerakoan itxura kendu zion Kuŕutako-k ezer igaŕi ez zezan. ¡Berak bai-zekian Madalen neskamearen beŕi!

Ta Kuŕutako izketan gogotik ari zala, zion :

—A, bai; ba'dakizu, neskak askotan obe-ustean

txarki egiñak egiten dituzte, «don Amalio» izenik jaŕi gabe «*Signor Çurrutaco*» jartzea otu zaio; agidanean nik prantzesez dakitala jakiñan gañean dagoalarik atsegin geiago emateko ustean egingo zuan. Irakur ezazu guztia. Danetara ere izki politagoak egin zitzakeala uste nuan. Oŕek zerbait mindu nau. ¿Nik nola esaten nizkitzun igande artako mezaren ondorengoaz? Ona emen egia berak esanda; ordea, Maalentxo politak «San Vicente» jaŕi beaŕean «Santa María» jaŕi du. Ikusi emen (erderaz zegoan idatzita) «egin izan dizkitzutan iŕi gozoak», zuk agian paŕ-algarak uste zenituanak; «zure nereganako begiratu xamuŕak, nik biotz-biotzez eskartzen nizkitzuanak», ¿ori ez al da gauzak bear bezela egitea ta biotzeraño zuzen joatea? ¡Ta oiek guztiak Maalentxo Sarobe bezelako neska batek neri esatea! Aŕetaz irakuŕi beste au: «Zuek biok ikusi zaituztenean, burua atzera eginda alkaŕi begiratu diogunean», oŕa Eŕegesoro-ko egun artako topo-aldia, ni baitin nengoala ta zu kezkatan zenbiltzala. «Noski, zuk nik baño izkiera politagoa izango dezu», dio emen beŕiz.

Ta au ere oar geiegi egin gabe bere alde artu zuan. Azkenik idazki ura bereari «bai» esanaz zetoŕela erabaki zuan Kuŕutako-k. Ez zegoan egiña damutan.

Orduan Xanti-k idazkia azalaz jantzi ta Kuŕutako-ri biurtuz ala esan zion:

—Oŕa nere bostekoa bete-betean ta zure egiteko aundi au jaitu dezagun, Elizegi-enean garardo-bonbīla (zerbeza) edatea eskeñi ezadazun eskubidea ematen dizut.

Ta Bretxa-n sartu ziran.

Elizegi-enean garardo-bonbīla aundi bat eskatu zuan Xanti-k eta naiz Kuŕutáko jardulea egaŕituago egon, Xanti-k edan zuan geiena, bada xankameak

gizonen arteko edariari muxin ez egiteagatik, atsegiñik ematen ez zionari indar aundiz bultzatzen zion pitin bat sartzeko.

Ta edan-ontzia gora zeukan batean idazki ura Kuŕutako-ren eskuetara nola etoŕi izan zitekean bururatu zitzaion Xanti-ri: «Zuŕutako» deitzen bai-zion Madalen-ek Anton-eri.

Kuŕutako-k garardoa ordainduta, ateratzeŕakoan, oŕa non auŕez-auŕe beti bezela Kontxexi ta Maalentxo azaldu ziran biak alkaŕekin. Bretxa-ko aulkian exeri ta beren arteko kontuetan asiko ziran, noski, Elizegi--enea atzean zeukatelarik. Beraz, bi neskak exerita auŕean, beste aldera begira, ta bi mutilak Elizegi--enean.

—Nere esanen beaŕik dezunik —zion Xanti-k— ez det uste onuzkero, bakar-bakaŕik zenbat dezakezun oraintxe ikusiak gaude idazki oŕekin; baño baldin nere itzak kalterik egin ez lizaizutekela uste ba-dezu, oraintxe dezu abagune edeŕ-edeŕa: zoazkie ta zu mutil eratsua zeranez geroz, itzegin ta zeoŕek igaŕiko diozu Maalentxo-ren ondoan exeritzeko aukera noiz daukazun. Ez uste, bada, neskak zuk diozun bezelako idazkia egin —eta nik orobat diot— ta «aspertuko al aiz» utzitzea ondo dagoanik. Zure txanda da orain. Nere ustean —ta zurean agidanean ere bai— neska zu beregana joateko amoŕaturik dago. Ez ezazula abagune eder au galdu. Beranduegi ibiltzeagatik, baitin nago —eta zu ere uste ortakoa izango zera— ¡amaika neska eder joan zaizkitzu!

Orain beste esku batek artu zuan kandela. Orain Xanti-k itzegiten zuan ta Kuŕutako mututu egin zan. Idazkia ainbesterañokoa ez zala esateko gogoa etoŕi zitzaion, aguroegi ez zala ibili bear, abaguneak «sobra» izango zituala; baño beranduegi ibiltzeagatik

ainbeste neska eder joan zitzaizkala txinistuta, larítasuna sortu zitzaion ta mutil gizajoak berebizikoak ikusten.

—¿Biok ez ote giñake joango? —galdetu zion Xanti-ri.

—Baño, gizona, ¿ez al dakizu ni Kontxexi-rekin asaŕe nagoala? ¿Edo nai al dezu exeritzeko garaian ni Maalentxo-ren ondoan jartzea?

Onoko onek zirikatu zuan geiena, len Kontxexi kendu zion bezela ea orain Maalen kentzen ote zion.

Ta Kuŕutako, bilduŕez ba-zan ere, abiatu zan.

—Esaiozu idazkia artu dezula —zion oraindik Xanti madarikatuak lertzeko zorian.

—¿Eskua emango al diotet? —galdetu zuan Kuŕutako-k burua atzera eginda; baño ez zuan Xanti ikusi.

Iritxi zan ba' neskaen tokira. Ginbail-kentze izugaŕia egin zien. Iŕia egin zien, baño ezagun zuan xankoak dar-dar zeuzkala.

—Aŕatsalde on, Maalen —ta Kontxexi esatea aztu zan.

Neskak lenengo aldian izutu ziran, baño gero bereala lasaitu.

Asi zan ba' zein pozarekin ikusten zituan esaten ta maiz xamar izanagatik ez omen zituan nai ainbeste ikusten. «Izan ere gu alakoak izan oi gera: ona ba-da ez gaitu iñoiz asetzen».

Neskak paŕez asi ziran. Ta Xanti-ren esana gogoratuta asi zan pixka bat Maalentxo-ren utsunearen aldera bear baño len aldatzen. Ordea, neskak igaŕita oso poliki alde artarako igitu ziran, tokirik ez uzteaŕen. Xanti, beŕiz, Elizegi-eneko baŕunbean paŕez zoratzen.

Zer geiago ezin esan gelditu zan Kuŕutako. Xanti egon bear zuaneko aldera begiratzen zuan, baño ez

ikusten. Ez ba' esatekorik etortzen ta gero ta laŕitasun aundiagoa zeukan. Oŕez gañera Kontxexi-k galdetu zion :

—¿Ori al zeneukan esateko guztia?

—Ez, ba'neukan Maalentxo-ri zerbait esatekoa. Alegia, Maalentxo, zure idazkia artu detala eta esker beroak demazkitzutala. Nik ba'nekian zu biotz oneko neska ziñala ta ni bezelako «gazteari» —ez nik esateagatik— abegi ona egingo lidazukeala, ez bai-naiz ni beste asko moduzko mutil txoroak bezela. Beraz, oso ondo arkitu ditut zure esanak eta, noski, nere adiskidetasunik xamuŕena zuretzat izango da.

Orain arte neskak paŕez aritu ba-ziran, oraingoan ederki asaŕetu zitzaizkion.

—¿Zer idazki ta idazki-orde? —galdetu zion Maalentxo-k izututa.

—Maalentxo polit'ori —Kuŕutako-k zion— ain goza-aldi edeŕa eman didazu ta ¿zergatik nai zenuke nere zoriona —zu bai-zera nere jabea— nere zoriona ondatu? Idazkia egin ba-didazu ¿zergatik ukatu?

—¿Nik zuri idazkia? ¿Uste al dezu txoratuta nagoala? ¿Edo guztiak zu bezelako txoroak gaudela? ¡Naiago nuke Txina-ra joanda bazeunde! —ausartu zan esaten Maalentxo.

—¡Baño Maalentxo; emen bai-daukat zuk egindako idazkia!

—¿Nik, nik? —ta bi neskak altxa ziran.

Santa Ana-kaleko mutuŕean, Bretxa-ko aldean, Madalen-ek Anton Zuŕut topatu zuan. Lotsatuta ba-zan ere alderatu zan ta aŕitu zitzaion iñori ez egindakoa berari bakaŕik egin ta ain nekezko idazkiari ez batere jaramonik egitea, artean bene-beneko idazkia egin omen zion. ¿Zergatik zan oŕen mukeŕa berare-

kin? ¿Zerbait gaitz egin al zion? ¿Ez al zuan beti ongi artu bada? Esan zezaiola zer iruditu zitzaion gaizki.

Anĩon-ek lenengoz ez zuan txinistu idazkirik egin zionik eta txantxetan ari ote zan uste izan zuan; baño Madalen gero ta maiteago ari zitzaiolarik, «baño, neska, —esan zion— nik ez diñat ez irerik ez iñoren kartarik artu. Ta gañera ez diñat txinisten ¿noiz ikasi unan ik eskribitzen? ¿Ta zerk eman din kartak eskribitzen aritzeko?»

Madalen-ek baietz, idazkia egin ziola ta bera Plaza Beŕian baŕena zijoala mutil bateri eman omen zion berari eskuratzeko. «¡Nere bi piko gozuak!» Bai ba', bi piko eman omen zizkan mutiĩari. «Oraintxe bertan txiki-txiki egingo nuke topatuko ba-nuke», amoŕatuta zion. «¿Baño egiya al da, Anĩon, —beŕiz ere— etzenduela artu?» Madalen oso samurtuta ari zitzaion. Idazkian jaŕi zuana esatea nai ba-zuan galdetu zion, Anĩon-en erantzuna jakin nai bada. Ta beŕiz ere mutiĩarekin asi zala non ikusten duan mukizu berbera an aldean zijoala.

Asten da Madalen arengana koŕika ta,

—Ik, granuja oŕek, ¿nun daukak nik emandako karta? —besotik min emateraño elduta esan zion.

Anĩon ere etoŕi zan. Bion artean izutu zuten. Ta bere burua miñatik begiratzea besterik ez zitzaiola gogoratu, erantzun zuan :

—Oŕek kendu zidan —Kuŕutako erakutsiaz.

—¿Oŕek *ostu?* —Madalen-ek.

—Bai.

—¿Oŕek *lapurtu?* —Anĩon-ek.

—Bai.

Abiatzen dira, Madalen auŕetik. Ta bertaratu ta non ikusten duan Kuŕutako bere idazkia Maalentxo Sarobe-

-ri erakutsi naiez. Kentzen dio idazkia eskutik eta «lapuŕa» esanaz eltzen dio txamaŕatik eta berebiziko astindua emanaz, alako batean ia bota zuan zilipurdika. Ta eroriko zan nerekiko, baldin Anĩon atzean egon ta zutik jartzeko ondoena jo zezakean tokian, ostiko bat bete-betean jo ez ba-zion.

Kuŕutako zuri-zuri eginda, itzik atera ezin zezakeala, etxerakoa artu zuan ta Elizegi-eneko auŕetik bear baño azkaŕago zijoala, norbaitek baŕendik kanpora zankoa atera ta beste ostikoa jo zion, azkaŕari uztea otuko ba-zitzaion ere. Xanti zan.

Bretxa-n jende asko bildu zan.

Ta Kontxexi Araneder ta Maalentxo Sarobe izututa ibĩli ba-ziran, azkenik zer paŕ-egin etoŕi zitzaien. ¡Kuŕutako gizajoa!

XXIII

AZKENA

Ori dezu, irakurlea, Donosti edeŕa. Ori zan nere eŕia : eŕi maitea, nere biotzeko kutuna. Alaxen jostatzen ziran donostiar alaiak. Donosti bakaŕa munduan: ori bera ta ez beste. Donostiaŕen izakera berezia askotan aipatu izan dute edestilariek. ¡Aiek olde onekoak! ¡Aiek jolas-zaleak! Ta olde onekoak ziralako «kaxkariñak» deitzen zieten. Ta jolas-zaleak ziralako makiñabat jai eder antolatzen zituzten; ordea, antolatu esatea gauza bat da : aiek sortu, aiek tajutu, aiek egin. Ba' zituzten musikari bertakoak, ba'zituzten bertsolariak, ba'zituzten antzeslariak; ba'zuten eŕia, antzokirik politena. Ez da ba' aŕitzekoa ainbeste erbesteko ango jaietara joatea : ba'zekiten-eta an arkituko zuten eztia beste iñon topatuko ez zutela. An ez zan beste eŕiko usairik : Donostia-n donosti, irakurlea. Gure opila etxean egosia, adiskidea.

Orduko Donostia zer zan jakin ezazun, egiñalak egin ditugu. Egia esan, zerbait lortu degunaren ustea daukagu. Gu mami-mamiko donostiaŕak izan, eŕe-beroa eŕapetik edan, kopeta eŕiko aŕietan egindako aundituaz josia izan eta ¡zuri esan-beaŕak buruko ariak naspilatuko al zizkigun ba'!

Oŕa ba'«Donostia», «Usauri»-ren anai laztana. ¡Lanak eman dizkidate bi seme oriek azitzen! Ta baŕengo au kalera txapelik gabe atera ez dedin, eman dezaiodan bukaera.

Aste ta asteetan ez zuten Txomin donostiar jatoŕak eta Kandi-k alkar ikusi. Txomin-ekin eskaratzean izandako egonaldiak lotsatuta zeukan Kandi, doi-doi etxetik ateratzen ba-zan. Nekezkoa ba-zitzaion ere,

an egon bear, berak maite zuana etxetik at ibiliaren. Kaiolatik atera nai ez duan txoriñoa esan zitekean, naiz ateak idikita egon ta askatasuna maite.

Txomin ere arituta ibiltzen zan, zer gerta ote zitzaion, non ote zebilen. Iñolaz ere iñon arkitzen ez; aren beririk ezta batere. Oraintxe zorionaren jabe egin ziran, beatz-tarteetatik iges egin zien. ¿Egia ote ala ametsa? Bi besoetan eukitzea uste ta esku-utsik arkitu. ¡Zenbatetan ez zitzaion Txomin-eri Kandi-ren beso-botatzea irudibiatu! : nola edo ala izan ba-zan, zintzilik gelditzeraño lotu ba-zitzaion. Orduan Txomin lepoan aztarnen bat edo miña gelditua, pozik egongo zan egi-antza aundiagorekin; artean Kandi-ren antza bera ¿ez al zitzaion galduko?

Gure irakurleak, ordea, antza obea emango dio; besteen gauzetan argi ikusten bai-da. Bein ba' alkar ikusi zuten. Txomin-ek ez zuan, ez egin ez esan, eskaratzako egonaldia gogoarazi zezakean ezertxo. Ez batek, ez besteak, ez zuten besteaganako geiegizko zaletasunik erakutsi; urengo batean lotsagarizko ura aztutzat utzi zezatekean. Baño ikustaldi arek poz beria ekari zien; urengorako oso gaituta zeuden.

Ta urena etori zan ta urenaren urena ere bai. Ta ikustaldi aien beri eman bearean, bildur giñake. Txomin nor zan ta Kandi nor zan jakiñik, eztia non zan ba'dakigu. ¿Ta zertarako guztiak esan? Gañera, atzerako kontuetan ari gera ¡urtebete geroztikako beriak bai-dakizkigu! Bai ba', Txomin ta Kandi ezkondu ziran. Ta ezkonberitan bein Gaztelumendian gora egurasten zijoazela, Santa Klara-aldetik, Kandi ari zitzaion Txomin-eri :

—...ta zuk bakarik dakizun nere belauneko orbana, arkaitz artan egin nuan, zuk estropada irabazi zenuan egun artan bertantxe...

Xanti menderatzalea menderatu zuten; gaitz erdi, banketxe jabearen alabaren aldera erori zan. Ez zan nolanai erori, erortzekotan; baño erori. Arazo onetan ez da naikoa nai ez izatea edo akiakuluak jartzea. Kontxexi Xanti-ri zaletu zitzaionetik, bere aldera egon zan beti, mutilaren erdeñuagatik. Ba'dakigu Eregeso-ro-n begitarte ona egin ziola; ezin ba' ukatu barenen zebilkiona. Maitasun epela zeukakionaren, iraunkora. Ta Xanti-ri biotz-aldia eman zionean, Kontxexi--rengana joan zitzaion. Ederki irabazita zeukan neskak. Ez zuan Xanti-k lan aundirik izan; aundiagoak erez berdintzen zituan.

Beraz, Xanti Zalakain ta Kontxexi Araneder ere ezkondu ziran. Xanti-k uztarpea atsekabez ikusi zuan. Bere ustez, emakumeengatik esaten zituan guztiak egiak ziran. Ezkontzeko garaian, beraz, ba' zekian--edo zer ikusi bear zuan. Artazkero ala bear zala ta lepoa makurtu bearko ziola uztariari. Ezkondu-berian, bein galtzak artu ta emazteari eman omen zizkan :

—Ar itzazu —esanaz— gero ere zeorek jantziko dituzu-ta.

Ara Kurutako ere ezkondu; «Txardin-beri»-enera ezkondu zan.

«Aukera daukanak
nekea berekin
¿nork egingo ote du
portuna nerekin?»

Amagiarebak suiaren *poltxa* maiz aipatzen zualata, berari «Poltxa» jari zioten izena.

Ordea,

«Ango zokoak
ezkonduz geroztik
garbitzekoak».

Edo-ta,

«Nere andreak kamisa zaŕa;
berea balu, ezeŕez,
keaŕa baño beltzago dauka
garbitutzeko alpeŕez».

Kuŕutako gizajoa beti iraulka ibiĪi ta azkenik ukuĪua jo zuan buruarekin.

Baita Anton Zuŕut eta Madalen ere, ezkondu ziran. Anton-ek ezkontzara bi alaba eraman zituan, emen orain arte aipatu ez ditugunak.

Gauez ezkondu ziran, bakaĪu-azpil edo platera apaldu ta uŕengo goizean Anĩon bakaŕik atera zan etxetik Miranda-ra oñez ango burnibide beŕian urpekari edo «buzo»-lanez zubi bat egiten.

Joxe Ogi-k ez zuan andregairik artu.